

J. CARLOS OLLO OSCÁRIZ

BIZIKIDETZA ETA PORTAERA

DISRUPTIBOA

IKASTETXEETAN KONTROLATZEKO
ESTRATEGIAK

BIZIKIDETZA ETA PORTAERA DISRUPTIBOA

Ikastetxeetan kontrolatzeko estrategiak

J. Carlos Ollo Oscáriz

Egilea: J. Carlos Ollo Oscáriz

© GOBIERNO DE NAVARRA - NAFARROAKO GOBERNUA

Maketazioa eta diseinua: Cobo-Munárriz Diseño Gráfico

LG NA 973-2021

ISBN: 978-84-235-3588-0

Sustapena eta banaketa:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza

Navas de Tolosa, 21

31001 PAMPLONA / IRUÑA

Telefonoa: 848 427 121

fondo.publicaciones@cfnavarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

SARRERA

Izugarri zaila da halako egile baten ikasgai paregabe honetarako hitzaurre bat modutzea. Egileak, izan ere, eskuzabalki erauki baitzizkidan bere ezagutzak, kritikak ere egin, neure interesak eta premiak aintzat harturik, eta hortaz izugarri lagundu baitzidan neure lanbide jardueran, Carlos portaeraren arloan guztien maisua baita, denek aho batez aitortzen dutenez, bermerik hoberena. Haren ekarpenari esker, hobeki ulertzen dugu zer egin behar duen gaur benetako hezitzaile batek.

Testua, azken batez, gonbidapen bat da estrategiak eta baliabideak hobeki ezagutzeko eta hezkuntza premia berezietan sakontzeko. Eta bai, bistan denez, ekitatearen, hezikidetzaren, aukera berdintasunaren eta, jakina, bizikidetzaren aldeko apostua ere.

Bizikidetzaren aldeko apostu garbia egin ezean, izan ere, ez gara gauza izanen etorkizunean hezkuntzaren alderdi onetik aurrera egiteko. Liburu honena bezalako adibiderik gabe, zailagoa izanen litzateke gure jokabideak nola aldatu jakitea. Liburua etsipenaren aurkako eredu bat hartu nahirik ari da eta ikasgai eder bat ematen digu bizikidetzaren giroa, bai hezkuntzako bizikidetzaren ere, nola aldatu eta hobetu jakiteko; gertaerekin beste modu batez harreman egiten ikasteko proposamen bat da, eta, bidez batez, erakusten digu aldaketarako gaitasunak egiten gaituela gu ere, hain zuzen, eraldatzaile.

Tratatu honek azaldu egiten du nola bateratu, nola errespetatu, nola adostu, nola batu behar den dibertsitatea, norbera errespetatua eta ordezkaturik sentitu dadin. Ekarpenean erabakigarria da ikastetxeak bizikidetzaren eremu izanen badira eta Hezkuntza Inklusiboaren kontzeptua benetako erredundantzia izanen bada; zeren, egitez, "hezkuntza, inklusiboa ez bada, ez da hezkuntza"; horregatik, ekarpen hau ezinbestekoa da elkarrekiko bizitza ahalbidetzen duten balioak eskualdatu eta praktikan jartzeko eta gure ikasleei partehartze arduratsuen bidean laguntzeko, batez ere erakunde sozialena, hori baino laguntza hoberik ez baitago denek batera hezkuntza eremu berean, gure ikastetxeetan, bizikidetzaren balio horiek bereganatu dituzten eta ikasle guztiak amankomunean guztiena den zerbaitean parte izatearen aukera etikoa garatu dezaten.

Carlos Gimeno Gurpegui

Hezkuntza kontseilaria
Nafarroako Gobernua

AURKIBIDEA

● 1. PARTEA

BIZIKIDETZA HEZKUNTZAREN TESTUINGURUAN.....	11
BIZIKIDETZA IKASGELAN ERAIKITZEN	13
1. AUTORITATEAREN PRINTZIPIOA.....	13
2. AUTORITATEAREN ESZENIFIKAZIOA. DENOK BATERAKO FRONTEA AURKEZTEN	15
3. AHALEGINA.....	18
4. IRAKASLEAK: JARRERAK ALDATZEN, TREBETASUNAK HOBETZEN	20
5. HARRERA.....	24
6. LEHEN MOMENTUEN BALIOA.....	27
6.1. Lehen egunak zer “ari den” jakitea.....	27
6.2. Lurraldea markatzen.....	28
7. ARAUDIA. ADOSTASUNAK SORTZEN	30
8. EGUNEZ EGUNEKO LANA. GATAZKA ARRUNTETAN LAN EGITEN	34
8.1. Gatazkei aurre egiteko jarrerak eta erreakzio estiloak	34
8.2. Baldintza pertsonalak agerraraztea.....	36
8.3. Gatazkei modu eraikitzailean aurre egin. Bitartekotza	37
8.4. Gatazkak antzezten. “Linterna magikoa”.....	40

● 2. PARTEA

IKASGELAKO PORTAERA NOLA ARAUTU	45
1. ABIABURUKO OSAGAIK.....	45
1.1. Portaera disruptiboaren jatorria.....	45
1.2. Portaera disruptiboaren testuingurua	46
1.3. Portaera motak. Helburuak	48
2. PORTAERAN NOLA ESKU HARTU.....	50
2.1. Esku-hartzea arautzeko printzipioak.....	50
2.2. Oinarri teorikoak.....	51
2.3. Ikasgeletako portaerarako ardurako diren kasuistikak	53
2.3.1. Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak (PAN)	54
2.3.2. Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmendua (AEN).....	59
2.3.3. Espektru Autistaren Nahasmenduak (EAN).....	62
2.3.4. Piztaldi psikotikoak.....	63
2.3.5. Haserrea, agresibitatea eta bortizkeria.....	66
2.3.6. Droga kontsumoa.....	73

3. PORTAERAKO ESKU-HARTZE MAILAK.....	79
3.1. Prebentziozko esku-hartzea	79
3.2. Prestakuntza esku-hartzea	79
3.2.1. Komunikazio trebetasunak.....	79
3.2.2. Gizarte trebetasunak.....	82
3.2.3. Funtzio exekutiboak	84
3.2.4. Jauzkortasuna-Deskontrola	86
3.3. Zuzeneko edo zuzenketazko esku-hartzea.....	90
3.3.1. Paradigma sistemikoa	90
3.3.2. Paradigma kognitibo-konduktuala	92
3.3.3. Diziplina positiboa. Ondorio logikoak.....	94

● 3. PARTEA

FAMILIEKIKO HARREMANA, ELKARLANA ALA GATAZKA	101
--	-----

● ERANSKINAK

1. PARTEA.....	113
2. ETA 3. PARTEA.....	179
BIBLIOGRAFIA.....	217
WEBGUNE INTERESGARRI ETA BALIAGARRIAK.....	219

1. PARTIE

BIZIKIDETZA HEZKUNTZAREN TESTUINGURUAN

Hezkuntzaren helburu nagusia pertsonak HEZTEA izaten da, eta hartarako abian jartzen dituen baliabideak bizikidetza eta IKAS zein IRAKATS prozesuak izaten dira.

Ikastetxeak bizikidetzarako eremuak dira. Haien osakide diren pertsonak elkarrekin harreman sakon eta konplexuak eratzen dituzte. Ikastetxeetan maitasuna eta adiskidantza aurkitu eta eraiki egiten dira; baina bai arbuioa eta gaitzespena ere, ordea. Ikasgeletan bizi eta esperimintatu, ezagutu eta interpretatu, sentitu eta hauteman egiten dugu. Eskolan barna egiten dugun pasaera hain da garrantzi handiko gertaera non bertan izandako bizipenei esker eta haien bidez eraiki ohi dugun geure burua gizabanako gisa.

Bizikidetza ez da soilik besteen bizikide izatea, baizik eta, batez ere, haiekin elkarreragitea, noiz modu eragingarri eta harmoniatsuan, noiz gatazkan eta ezinean. Besteekiko elkarreragitea ezinbestekoa da norberaren ongizate eta osasunerako eta nork bere nortasuna egoki eraikitzeko. Elkarreragite horretan, hain zuzen, definitzen dugu nor garen eta zer maila eta estatus hartuko ditugun gizartean.

Nork bere eskola urteetan izaten dituen esperientziak baldintzatzen dute zer printzipio, zer balio, zer jarrera eta zer erreakzio-estilorekin egiten diogun aurre gizartearen eskariei eta gatazkei; norbaiten esperientziak gehienbat osasuntsuak eta arrakastatsuak izan badira, haren jokabidea ere eraikitzailea eta eragingarria izanen da; negatiboak eta frustragarriak izan badira, berriz, oso litekeena da gatazkari modu noragabe batean aurre egitea.

Horiek guztiak direla medio, ikastetxeek, erakunde gisa, ikastetxeetan giro egokia sustatzea beren helburu nagusien artean hartu behar dute, errespetua, elkartasuna eta laguntza bezalako printzipio demokratikoetan oinarritutako bizikidetza bat faboratzeko. Hala ere, bizikidetza oneko giro bat sortzea ez da aski eta ez du bermatzen Hazte eta Heltze prozesu sozial zein pertsonalak egoki gartzea. Hori lortzeko, ikastetxeak esperientziak diseinatu, gertaerak aprobetxatu, egoerak sortu eta beharrezko baliabide pertsonal eta sozialak nola abian jartzen eta nola erabiltzen diren zuzendu behar du, eguneroko gatazka eta gertaerei aurre egiterakoan (bizikidetzaz ikasten da bizikidetzan).

Ikastetxeen egitura soziala ez da simetrikoa; irakasleei kudeaketa dagokie eta, beraz, autoritatea; haiei dagokie erakundearen harreman sistema osoa diseinatu, abian jarri, gainbegiratu eta ebaluatzea, eta bai haren helburuak finkatu eta haiek iristeko prozedurak ezartzea ere. Ikasleek, beren zentzu kritikoari uko egin gabe ere, egoera hori onartu behar dute eta ezarritako arauak eta programak bete behar dituzte. Testuinguru asimetriko horretan, ez da harrizkekoa pertsonen arteko gatazkak

eta desadostasunak azaltzea bai norbere rolaren interpretazioan eta bai arauen betebidean; hala ere, frogaturik dago ze bizikidetza markoa zenbat eta argiagoa, demokratikoagoa eta parte-hartzaileragoa den, hainbat eta gutxiagotan izaten direla gatazkak, eta modu eraikitzaileago, hezitzaileago eta eragingarriagoan trata daitezkeela.

Norbaitek esan zuen “Hezkuntza Inklusiboa” kontzeptua erredundantzia bat dela, eta hala izaki. Hezkuntza, inklusiboa ez bada, ez da hezkuntza. Inklusioaren mamia, bereizirik dagoena edo desberdina dena testuinguru berean baldintza berberetan murgiltzea da, eta murgiltze horretan, gainerako parte-hartzaileek dituzten eskubide-betebehar berberak (esperientziak, sentimenduak, arauak, eskakizunak...) eskualdatzen dira. Ikastetxeetan, zenbait ikasle hezkuntza baldintza eta premia bereziak izaten dituzte, eta horrek besteengandik desberdinu, bakartu eta batzuetan isolatu egiten ditu. Berariazko arazoak dituzten ikasle horiekin inklusiorako esku-hartze berezituagoak eta ohartagoak egin beharko ditugu, eta horrek erronka pertsonal eta arazo profesionalak sortuko dizkigu haren portaerak kontrolatzeko; gure zenbait jarrera pertsonal eta irakasle gaitasun aldatu beharrean ere egonen gara eta hortaz estres iturri bat izanen da guretzat; hala ere, esperientziak erakusten digu haiekin egindako lanari esker hobetu egiten garelako pertsona eta irakasle gisa.

Nire kasuan, egokiera izan dut nire lanbide bizitzaren parte handixkoa (zenbait urte irakasle, eta beste zenbait orientatzaile) halako ikasleekin emateko, bai Lehen Hezkuntzako eta bai Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako ikastetxeetan; Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabide Zentroan emandako urteek ere, Berariazko Lantaldeetan (denboraz “Psikikoak” eta “Konduktualak” deituak), aukera eman zidaten sakonago ikasteko nola erabili behar diren giza, teknika eta adimen baliabideak ikasle horiei hobekiago kontu egiteko. Orain utzia dut hori (adinaren gauzak) baina agian lan eta ahalegin horiek merezi izan zuten (bai eta ikasle haientzat ere). Liburu honekin bildu nahi izan ditut parera atera zitzaizkidan gatazka pertsonalak eta arazo profesionalak eraman eta batzuetan konpondu ahal izateko baliagarri izan nituen pentsamendu, eredu, estrategia eta tresna batzuk.

Lan honen helburua da, bada, ikastetxeei honetarako tresnak eta baliabideak ematea:

- a) Bizikidetza giro egokia diseinatu eta eraikitzea portaera disruptibo eta desegokiak bakanagoak eta gobernatzeko errazagoak izan daitezen.
- b) Egokierak eta egoerak ematea pertsonen arteko harremanen gaitasunak trebatzeko (enpatia, errespetua, elkartasuna eta etika).
- c) Hezkuntza estrategiak erabiltzea gatazkei aurre egiteko eta portaera desegoki edo disruptiboak aurrez galarazi eta zuzentzeko.

BIZIKIDETZA IKASGELAN ERAIKITZEN

1. AUTORITATEAREN PRINTZIOIOA

Autoritate printzipioak, mende askotan, oso izen txarra izan du gizartean oro har eta, bereziki, hezkuntzaren eremuan. Autoritate hitza *auctoritas* latinezko hitzetik dator, zeina *augere* aditzetik baitator, (“hazi”, “gurendu”, “handiarazi”). Jatorriz, beraz, autoritatez jantzirik zegoen pertsona zen besteei beren garabide sozial eta pertsonalerako behar zituzten elementuak emateko gai zena. Pertsona horrek, beraz, baditu besteengan oraindik aurkitzen ez diren ezagutzak, estrategiak, jarrerak eta printzipioak eta horrek, beraz, ospe eta balio handiko erreferente bihurtzen du besteentzat.

Denbora joan ahala, jatorrizko printzipio horrek hainbat arau, irizpide eta funtzio desberdin bereganatu ditu. Mende askotan autoritatea despotismoz, inposaketaz eta are arbitrarietatez jantzirik agertu izan da; abusu horiek, ordea, pixkanaka leunagotu egin ziren, gero eta pertsona gehiagok hartu baitzituzten autoritatezko karguak hartarako jaiotzazko eskubiderik izan gabe. Egoera horren aurka, joan den mendean korrante soziopolitiko berriak sortu ziren, ordu arte nagusi zen autoritarismoa gaitzesten zutenak; hala ere, autoritateaz egiten ziren erabilera txarrak (abusuak) aldatu beharrean, printzipioa bera suntsitu zuten; eta, hortaz, ikusten dugu nola zenbait korrante sozial eta pedagogikok ikasle-irakasleen arteko harreman simetrikoak bultzatzen dituzten, nork bere ikaspena eraikitzea bultzatuz eta bai arau eta erregelarik eza ere. Ideia horien ondorioz, irakaslea autoritatez gabeturik gelditu da, coach bat balitz bezala mozturirik, edo animatzaile soziokulturala, orientatzailea edo laguna balitz bezala.

Gizartean ere beste hainbesteko bilakaera izan da, bereziki familian: Gurasoak, autoritate printzipioaren berezko eramaileak, eta hortaz bere umeak hazi arazi, helarazi eta gaitu arazteko ardura dutenak, orain seme-alaben “adiskide” bihurtu dira (bai eta menpeko ere, batzuetan) eta haiei giza eta gizarte balioak eta jarrera pertsonalak irakatsi beharrean, mantenu- eta geriza-emaile huts bihurtu dira eta hainbat ondasunen hornitzaile. Familiaren Kulturari dagokion “bagaje” hori guztia, guraso-haurren arteko hezkuntzaren muina zena, gizarteak, komunikabideek eta gizarte sareek usurpatu dute (askotan ohartu gabeko delegazio baten bidez).

Aztertzen badugu zer bidetatik iritsi garen familiaren eta hezkuntzaren egoera horretara, ikusiko dugu nola harreman simetrikoa defendatzen duten korranteak, demokratizismoa, permisibitatea, ikaspenaren autokudeaketa defendatzen dituztenak, mekanismo oso antzientifiko baten bidez jokatu duten: ezarritako ordenari oposaketa soila, hots, penduluaren legea. Aztertu eta ebalua-

tu beharrean autoritatearen erabileran zer ote zen ona eta aprobetxatzekoa (aldaketa erabakiak hartzeko) eta zer ohitura eta aztura ote ziren desegokiak eta bidegabeak (horiek kendu edo zuzentzeko), erabateko arbuioa aukeratu zuten, korrante horietan autoritarismo hutsa baizik ez baitzuten ikusten.

Hazten, heltzen eta askotariko gaitasunak garatzen laguntzea da familia instituzioaren eta bai eskolaren helburua. Gure ikuspuntutik, askoz zailago izanen da hori iristea etxeetan eta ikasgeletan beharrezko autoritate printzipioa falta baldin bada; horregatik, gaude ahalegin berezia egin behar dela printzipio hori berreskuratu eta abian jartzeko. Ez da lan erraza izanen, pertsona autoritatedunak (autorizatuak) izaten zituen hainbat gaitasun, trebetasun eta eginkizun galduak baititugu. Duda eta lotsa zerbait sentituko dugu haietako batzuk berriz aplikatzean (agian atzerakoi deituko digute eta bai hala sentiaraziko ere) eta gaitzespen handia eta kolaborazio eskasa aurkituko ditugu igualitarismoaren, anarkiaren edo "Onkeria pedagogikoaren" aldekoen artetik.

2. AUTORITATEAREN ESZENIFIKAZIOA. Denok baterako frontea aurkezten

Ikastetxeetan maiz ikusten dugu portaera disruptiboak soilik edo gehienbat zenbait ikasgela jakinetan eta zenbait irakasle jakinekin gertatzen direla. Kasu horietan irakasle paperarekin datorren boterea eta autoritatea ikasle edo ikasle talde disruptibo batek hartu eta erabiltzen du.

Heldu batek bere ikasleen aurrean autoritatea galdu duenean, zaila izanen da hura berreskuratzea, zeren maiz horrek bere jokabidea (eta pentsabidea ere bai agian) erabat aldatu beharra eskatuko du, eta ikasleek, berriz, kontra eta gogor eginen diote harremanean sartzen diren aldaketa horiei, uste baitute “dohainik” uzten dituztela irabazitako estatusa eta pribilegioak.

Autoritatea galdu ondorengo egoerek gatazka asko sortzen dituzte ikasgeletan eta gatazka horiek, gainera, gehienetan eskalatu egiten dira, gero eta gobernatzeko zailagoak bihurtzen, eta gero eta pertsona eta testuinguru gehiagori erasaten. Egoera horren aurrean honako aukerak ditugu:

A AUKERA
Ezer ez egin, edo ordu arte esku hartu dugun modu berean esku hartu.
Lortuko ditugun emaitzak ordu arte izandako emaitzak berak izanen dira; egoera lehengo berean dago.

B AUKERA
Estrategia gutxi pentsatuak eta bakartuak erabiltzea, adibidez:
<ul style="list-style-type: none"> ▶ Autoritatea pertsona instituzionaletan delegatuz (irakasle batek ikasgelan klase ematea eragozten dion arazo bat izan duenean, Zuzendariari edo Ikasketa Buruari deitzen dio ikasle hori harekin mintzatuz edo araudia aplikatuz “zentzarazteko”). Halako estrategiak kalterako izaten dira, porrotaren esperientzia handitzen dutelako eta galdutako autoritatea are gehiago gutxitzen dutelako. (Ikus beherago ordezkio proposamena). ▶ Edo, bestela: Modu bakan, sakabanatu eta are kontraesanekoan jokatu. Hala izaten da irakasle bakoitzak bere kasa eta bere gisa jokatzeko duenean, bere egintzak Taldearekin koordinatu gabe, irakasleen artean jarreraz, trebetasunez eta autoritatearen erabileraz dauden diferentziak begien bistan azaltzen direnean.

C AUKERA
Bil itzazu ikasgela horretan diharduten irakasle guztiak eta ikuspuntu guztietatik so egiozue arazoari:
1. Aliatuak bilatu. Adostasuna eraiki.
<p>Reúne a todo el equipo docente que trabaja en ese aula y enfoca el asunto desde todos los frentes posibles:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Azter ezazue arazoaren arazoak, parte hartzen duten pertsona nagusiak eta hari aurre egiteko dauden baliabide guztiak. Lana errazteko, 1. ERANSKINEAN eskaintzen dena bezalako tresna bat erabil daiteke (“Portaera disruptiboaren edo desegokituaren talde azterketa” 115-116. orrialdeak). ▶ Har ezazue gogoan laguntza egitura bat sortzeko aukera (laguntza, errefortzua, ordezkape-na) irakasle ukituenak laguntzeko. ▶ Diseina ezazue ikasgelan esku hartzeko plan estrategiko bat, arau eta ondorio txit argi eta zehatzekin..

2. Denak baterako frontea eraiki eta aurkeztu.

Antola eta egin ezazu bilera bat irakasle talde osoaren eta ikasgelaren artean. Denok baterako frontea eman ikasleen aurrean (ikus dezatela bat eginik zaudetela, segur, sendo). Bilera horretan, adieraz iezaiezu ikasleei zein diren nahitaezko bizikidetza eta jarduera arauak. Argi utzi zer ondorio dituen ez betetzeak. Haiei itzal zerbait emateko, eginahala egin ezazu arazo gehiago izaten dituzten irakasleek parte aktiboa har dezaten, bileraren buru ere direla (hitz egiteko txanda ematen...).

3. Ekin.

Hurrengo egunetan, klaseetan, hutsik egin gabe bete itzazu erabakitako estrategiak eta ez utzi ezer pasatzen gertatu ez balitz bezala (portaera ikusezinik ez dadila izan. Itundutakoaren arabera neurriak hartu). Klasearen ondotik ikasle gailenekin mintzatu, bai portaera desegokiak zuzentzeko bai egokiak indartzeko.

4. Laguntza eskatu ikasleei.

Kasuko irakasleak, lagun baten laguntza eta elkarlanarekin (hala behar izaten badu), ikasle lagunkorrenekin eta proaktiboekin biltzen da, esplikatzeko die nola ikasgelaren jardunbidea hobetzeko asmoa hartu duten eta hartarako haien laguntza eskatzen. Era berean, ikasle edo talde gatazkatsuekin ere bilera egin, esplikatzeko die zer arau dauden eta haiengandik zer espero den, eta bizikidetza hobetzeko laguntza eskatzen die.

5. Autoritatea antzeztu.

Autoritatea galdu duen irakaslearen autoritatea ageriratu eta hura berreskuratzen laguntzeko, antzezteko estrategiak erabil ditzakegu, aurretik planifikatuta, emaitza ona ekarri ohi dutenak:

Bere autoritateagatik ardurakoa den pertsona bat (Zuzendaria, Burua...) ikasgelara etortzen da, ikasleei kontsulta bat egin edo zerbait jakinaraztera. Atea jo, mintzatzeko baimena eskatu, eta irakasleak honela esaten dio: *"Zaude momentu bat esplikatzeko ari naizena esplikatzeko bukatu arte".* Hala iruditzen zaionean, ikasle bati esaten dio: *"Atera eta esaiozu zuzendariari orain pasa daitekeela". "Zuzendari jauna, bost minutu dituzu, ez gehiago... lan asko daukagu egin beharra eta gaur bukatu nahi dut".* **Behin zuzendariak bere jakinarazpena bukatu ondoren, bere arreta eskertzen dio irakasleari:** *"Eskerrik asko, X jauna/andrea zure ikasleekin mintzatzeko baimena emateagatik, orain, zure baimenarekin, banoa".*

6. Familietan aliatuak bilatu.

- ▶ Irakasle gatazkatsuen gurasoak bildu eta azal iezaiezu egoera zein den, zer portaera sortzen dituzten haien seme-alabek, zer ekintza abiatu dituzuen horiek hobetzeko eta zer ondorio etor daitezkeen haietatik.
- ▶ Erakutsi konfiantza duzula denon elkarlanari eta abian jarritako neurriek esker egoera hobetu egingen dela.
- ▶ Eska egiezu laguntza, ikastetxearen eta familien artean komunikazio bide azkar eta eragin-garriak ezarri.
- ▶ Emaiezu informazioa eta aholkua neurriak hartzeko, haien semeak edo alabak ikasgelan edo etxean halako portaerak izaten dituenarako.

B AUKERARI dagokionez, argitu behar da eze ikasle bat indiziplinagatik edo behin eta berrizko molestiengatik ikasgelatik apartatu beharra badago, honela jokatuko dugula:

1. Autoritatedun pertsona bati deitu **ikasgela** bere gain hartzeko.
2. **Portaera disruptiboa sufritu duen irakaslea ikasle gatazkatsuarekin ikasgelatik ateratzen da**, elkarrekin arazoari aurre egin eta ebazpideak bilatzeko, dena soseguz eta koherentzia eta asertibitatea erakutsiz
3. Ikaslea eta irakaslea gelara itzultzen dira itun edo adiskide-tratu batera iritsi eta portaera bideratu bada.
Bestela, irakasleak araudian aipatzen diren beharrezko hezkuntza neurriak hartu eta ikaslea ikasgelatik apartatuko du haren portaera hobetzen ez den artean.

Horrela, disrupzioa edo errespetu falta nozitu duen irakasleak ez du bere ikasleen aurrean autoritatea galduko eta gatazkan inplikaturik diren alderdiek eginen diote aurre.

3. AHALEGINA

“Talentua ez da falta izaten; adimena ez da eskas izaten; jarraitutasuna bai.”

Doris Lessing (2007ko Literaturako Nobel saria)

Autoritatearekin batera gaurko gizarteak ahazturik daukan beste balio bat ahaleginarena da. Azken hamarkada hauetan izan diren aurrerapen tekniko eta teknologiko askok, lana erraztea izan dute helburu, dela etxean, dela enpresetan, eskolan edo, oro har, gizartean. Komunikabideak ere desira hori bera zabaltzen aritu dira: *“Ikasi ingelesa ahaleginik gabe!” “Matematika errazak ingeniariendako!” “Abdominal ikusgarriak lor itzazu bost minututan!”...*

Ikasketaren teoria guzti-guztiek, ordea, garbi lotzen dituzte ahalegina eta ikasleen arrakasta nahiz porrota; baina hori jakin arren, Espainiako hezkuntza sistemak joera hori bera izan du eta pertsonen bilakabidean eta gizartearen aurrerabidean ahaleginaren garrantzia eta balioa ahaztu. Joan diren hamarkadetan hezkuntza politikako agintariek askoz ere interes handiagoa hartu izan dute ikasleek ikasgaien “aurkikuntza” egiten errazteko prozedura eta baliabideak sortu eta eratzten, ezen ez ikasleak bilaketa, analisi, gogoeta eta ahalegin saiatu eta jarraikira eramateko moduko proposamenak egiten.

Ikasleek ez dute inoiz ikasketan ahalegintzea hautatuko inoiz sumatu ez badute jarrera horrekin arrakasta etorri zaiela eta kontrakoarekin, berriz (utzikeria, pasibitatea, ahaleginik txikiena...), porrot egin dutela. Ahaleginaren bidezko arrakasta ezagutzea ezinbestekoa da, mekanismo horrek, besteak beste, ikasketa desiragarri eta estimagarri bihurtzen baitu. Baldintza horrek, ageri den bezala, zuzenean irakasle funtzioei dei egiten die, eta beraz oso beharrezkoa litzateke hezkuntza sistema osoak eta bereziki irakasleek, beren lehentasunen artean jar dezaten ikasleek jarrera ahaleginzaleak garatzea.

Ahalegina prozesu baten emaitza da. Hartan esku hartzen dute funtzio exekutiboek (lan memoria, planifikazioa, helburuak sortzea...), motibazioak, pazientziak, jarraitutasunak (ahaleginari denbora guztian eustea, gauzak espero ez bezala atera arren eta nekea sentitu arren) eta diziplinak (helburuak argi mantendu eta ahaleginak hobeki antolatzeke gaitasuna). Ahaleginaren ohitura gutxi duen ikasle bat, ohiko gizarte kontsignetara makurtua (“ezeren aurretik, erosotasuna eta plazera”) ez da ahaleginduko pena merezi duela uste ez badu.

Hortaz, justu kontrakoa sustatzen duen gizarte konplikatua honetan, nola txertatu gure ikasleengan ahaleginaren ohitura eta balioa? Oso zentzu komuneak diren ideia batzuk bururatzen zaizkigu, denak motibazioaren, eta exigentzia maila berregokitzearen lotuak:

LEHENENGOA

- * **Ereduarekin irakatsi.** Klaseetan duzun jarrera, haien duda eta galderen aurrean ageri duzun dedikazioa, kontzeptu eta prozedura konplikatuek ulertarazteko egiten duzun ahalegina, horra hainbeste eredu, lanari aurre egiteko duten moduan aztarna utziko dutenak.

BIGARRENA

- * **Erronkak jarri.** Ez eman edukiak lehendik “egosiak”. Ikasleei proposatzen dizkiezun lanek ardura eta ahalegina eskatu behar dituzte.

HIRUGARRENA

- * **Ez eman laguntza gehiegi;** beharrezkoak baizik ez. Dudak edo zailtasunak badaude, eman animoak eta ahalegin gehixeago eska egiezu.

LAUGARRENA

- * Denbora pasa ezazu ikasleei lana eta denbora **planifikatzen, ordenatzen eta antolatzen**.

BOSGARRENA

- * Exigi ezazu hasten diren lan guztiak bukatu eta aurkezteko. Era berean, ez inoiz utzi klase saio bat itxi gabe, ez eta probarik zuzendu eta bihurtu gabe ere.

SEIGARRENA

- * **Ahalegina baloratu eta saritu**, emaitza bezainbat edo are gehiago. Aitormena eman egingdako ahaleginei, porrot egin badute ere, horrela espektatibak sortuko dituzu. Harro ager zaitez ongi egingdako lanarengatik. Aldian behin, ozenki azter itzazu proposatutako lanak: zer zailtasun zituzten, zer ahalegin behar ziren eta zer arrakasta izan ziren.

ZAZPIGARRENA

- * **Ikasleak ikasi egin behar du**. Azterketak eta probak jar itzazu eta haietarako ikasleak prestatu daitezela, buruz ikasiz, erreparasatuz, laburbilduz, analizatuz... Gelan ikasketa saioak antola itzazu ikasleek edukia erreparasatu edo probak prestatu ditzaten.

ZORTZIGARRENA

- * Programatu **elkar laguntzeko jarduerak**, dudak argitzeko edo eduki edo ataza jakin batzuekin zailtasun pertsonalak konpontzeko. Saritu ezazu elkarlana.

BEDERATZIGARRENA

- * **Gogora** iezaiezu maiz zure ikasleei ahalegintzeko gauza ez den pertsonak ez duela inoiz bere ametsik gauzatuko eta denboraren jostailu biziko dela beti eta arrisku handia izanen duela alderdi guztietan hutsunez eta limitazioz beteriko bizitza bat eramateko.

"Inor lanean jarraikia bada, adimen gogorreako bada ere, azkenean ernetu egingen da, eta ahula bada ere, azkenean indartsu izanen da."

Leonardo Da Vinci

4. IRAKASLEAK: Jarrerak aldatzen, trebetasunak hobetzen

Irakasleek beren gain daukate hezkuntza sistemaren efikaziaren parte handia. Haien prestakuntza, haien irakaste gaitasun eta trebetasunak eta erabiltzen dituzten balio, printzipio eta jarrerak, ezinbesteko tresnak dira beren irakaslanerako eta irakasle bakoitza berezi eta desberdin bihurtzen dute.

SEDUKZIO BATEN HISTORIA

Gazte batek behin bere irakasle zaharrarekin topo egin zuen.

– Nitaz oroitzen al zara? Zure ikaslea izan nintzen.

Agureak ezetz esan zion

– Eta orain zertan aritzen zara?

Gazteak erantzun:

– Hara, irakasle egin nintzen.

– Hara, zeinen ongi! Ni bezala? –esan zion agureak.

– Bai, gainera zure kulpaz egin nintzen irakasle. Kontatuko dizut gauza nola izan zen: Behin nire adiskide batek, ni bezala ikasleak, erloju berri dirdaitsu batekin etorri zen. Nik niretako behar zuela pentsatu eta lapurtu egin nion, eta poltsikoan gorde.

Handik gutxira adiskidea lapurretaz konturatu eta berehala gure irakasleari keja egin zion; zuri, alegia. Orduan zuk klaseari hitz egin zenion:

– Zuen lagunaren erlojua lapurtu du norbaitek gaurko klasean, lapurtu duenak, mesedez, bihurtu dezala.

Ez nuen bihurtu, niretako nahi nuen.

Gero zuk atea itxi eta denoi zutitzeko esan zenigun. Banan banan joanen zinela guztiei poltsikoa begiratzen han erlojua ote zen.

Baina esan zenigun, halaber, denok begiak ixteko, horrela bakarrik bilatuko baitzuen erlojua, denok begiak itxita baikenituen.

Bai hala egin ere guk, eta zu poltsikoz poltsiko joan zinen eta nirean, jakina, erlojua topatu eta hartu zenuen. Zuk jarraitu zenuen denen poltsikoetan miatzen eta bukatutakoan honela esan;

– Ireki begiak, hemen dugu erlojua.

Ez zenidan ezer esan eta ez zenuen berriz inoiz aipatu gertatutakoa. Erlojua nork ohostu zuen ere ez zenuen inoiz esan.

Egun hartan zuk ene duintasuna salbatu zenuen betiko. Hura izan zen ene bizitzako egunik lotsagarriena baina egun hartan ikasi ere nuen pertsona duinagoa izaten. Eta zuri esker ulertu nuen zer egin behar duen benetako hezitzaile batek. Oroitzen al zara orduan gertatuaz, irakasle?

Eta irakasleak erantzun:

– Gogoan dut gertatua, erloju lapurtua, zoko guztiak miatu nituela, baina ez zintudan zu gogoan zeren nik ere begiak itxita nituela bilatzen nuen.

Facebook-etik aterea. Egile ezezaguna.

Mundu guztiak daki nola zenbait pertsonak –gure istorioko irakasleak, kasu– trebetasun berezia izaten duten, zergatik argi ez badakite ere, besteekin harreman egiteko. Badituzte zenbait ezaugarri pertsonal (printzipio, jarrera, balioak...) imitatu beharreko eredu bihurtzen dituztenak eta, hortaz, ikasleen aurrean autoritate handia izaten dute (*auctoritas*). Denok sentitu dugu (aurrena ikasle gisa eta gero irakasle gisa ere bai) tasun horiek gure lankide batzuegan badaudela eta beste batzuegan, berriz, ez.

Halako trebezia dutenekin, ikasleak arauetara moldatzen dira eta hobeki zentratzen dira lanean: ez dutenek, ordea, ahalegin handia egin behar izaten dute diziplinari eta kontrolari eusteko. “Zerbait” hori duten irakasle horiek ez dira denak berdinak. Ez dira beti bere irakaskideak baino sendoagoak, altuagoak edo ederragoak. Ez dira autoritarioagoak izaten, bestalde; eta hala ere, zerbait badute, dudarik gabe, haiekin ikasgelako giroa hain desberdina izateko.

Lanean zentratutako ikasgela giroa sustatzeko dohain berezia duten irakasle horiek, besteak beste, profesionaltasuna izaten dute ezaugarri (beren arloan autoritate bat izatea). Gure iritzirako, irakaslearen profesionaltasunaren muinak hiru osagai ditu: JAKIN, EGITEN JAKIN eta IZAN (ohar zaitetz nola osagai horiek ikas edukien motekin bat egiten duten). Hiru faktore horiek honako baldintza hauetan mamitzen dira:

JAKIN
<p>Kasuko ikasgai oso jantzia izatea. Eman beharreko ikasgaiak oso ongi jakin.</p> <p>Ikasgelako saioetan landu beharreko edukiak hautatu eta zehaztea.</p> <p>Loturak egin kontzeptu eta prozedura zientifikoen artean.</p>
EGITEN JAKIN
<p>Irakaslaneko metodologia eta estrategietan autoritate bat izan eta egoki aplikatzea.</p> <p>Irakasle gaitasun handia.</p> <p>Ikasleen baldintzen eta ezaugarrien arabera moldatzea.</p> <p>Irakas sekuentziak programatu eta ezartzeko trebezia.</p> <p>Hauteman, ebaluatu eta aldatzeko gaitasuna.</p>
IZAN
<p>Portaera eredu gisa autoritate bat izan. Errespetuzkoa, berdinkoia eta adeitsua.</p> <p>Balio, printzipio eta jarrera tolerante eta demokratikoak izatea.</p> <p>Elkarreraginerako trebea. Entzumen aktiboa. Komunikazio trebetasun asertiboak.</p> <p>Bizikidetzaren, arauen eta arauak ez betetzeak dakartzan ondorioen gaineko konbikzio seguru eta tinkoak.</p> <p>Autoritate irabazia eta erabilia izatea.</p> <p>Irakasle taldearen kide ardurakoa. Parte-hartze aktiboa.</p>

Bistan denez, baliteke gure ikastetxeko irakasleek ezaugarri horiek guzti-guztiak ez izatea, edo ez goreneko mailan. Batzuek gaitasun maila handia izanen dute ematen duten ikasgaian, baina gaitasun psikosozial edo didaktiko gutxiago, ordea; beste batzuen profilek, berriz, pertsonen arteko gaitasunetan dute goreneko puntua, baina ikasgaian ez daude hain jantziak, eta abar. Ardura duena da jakitea gure indarguneak zein diren, haiei eusteko, eta zein diren gure ahuluneak, hobetzeko. Hori hain begi-bistako gauza bada ere, praktikan gertatzen da irakasleek ez dutela gauza horien gainean gogoeta egiten eta ez dakitela zein den beren profil profesional propioa, edo haren ikuspen oso subjektiboa eta makurtua dutela. Gure ustez, ordea, gogoeta hori ezinbestekoa da gure irakasle gaitasunak hobetu eta autoritatez jantzi nahi baditugu.

Irakasleei bere buruaren ezagutzan sakontzen laguntzeko, hiru estrategia proposatzen ditugu:

1. Geure baitan introspektzio bat egitea ikasgelan eta instituzioan zer nola egiten dugun ulertzeko.
2. Baimena ematea beste irakaskide batzuek begira dezaten nola ematen dugun eskola.
3. Ikasleei galdetzea gure irakasle jardueraz zer uste duten.

Estrategia horietako lehenbizikoarentzat, proposatzen dugu gidoiak edo galdetegiak erabiltzea, norbere baitan begiratzea errazten baitute. Adibidetzat, bi tresna eskaintzen ditugu hemen: **2. ERANSKINA**, “Neure irakaslanaz gogoeta egiteko galdetegia” (117-119. orrialdeak) eta **3. ERANSKINA**, “Nork bere irakasle funtzioak hautemateko” (120-121. orrialdeak); bata zein bestea erabil daitezke, nork bere gustu pertsonalen arabera, edo haiekin “mix” bat egin eta berri bat sortu.

Bigarren estrategia (irakaskide batek guri begiratzea) oso indartsua da: Geure portaeraz eta geure irakaste trebeziak informazioa eman ez ezik, estrategia horrek bide emanen digu irakaskide trebeen eta esperimintatuenengandik ikasteko. Estrategia hori ezertarako izanen bada, besteek guri begiratzeak dakarren lotsa gainditu beharra dago eta elkarrenganako konfiantzatik eta diskrezio-tik jokatu. Guk, **4. ERANSKINEAN** “Ikasgela antolatu eta kudeatzeko estrategiei nola antz eman” (122-123. orrialdeak) eta **5. ERANSKINEAN** “Irakaste estrategiei begiratzea” (124-126. orrialdeak) aurkezten ditugunak bezalako tresnak erabiltzea proposatzen dugu, talde bakoitzaren gustuaren arabera bata nahiz bestea erabiltzeko modukoak. Tresna horiek erraztu egiten dute bete beharreko elementuak zein diren zehaztea eta bai erregistratze irizpideak ezartzea ere. Behin tresna horietako bat osatu denean, lan saio batean erabili beharko dugu, iritziak trukatu, ateratako datuak analizatu eta erabakiak hartzeko trebetasun behinenak trebatzeko, aldatzeko eta hobetzeko (ebaluazio guztien helburu lehenetsia).

Hirugarren estrategia bereziki zaila da irakasle askorentzat, erreparoa ematen baitie ikasleek haiek ebaluatzeak, haien kritiken aurrean lotsagarri gelditzeko beldurrez; hala ere, maiz konprobatu izan dugu lan hori burutara eman den aldietan, ikasleek irakasleek, ikastetxeaz eta hezkuntzaz duten ikuskerak, oro har harturik, erabat aldatzen dela. Sentitzen dute aitormena ematen zaiela eta balioa ematen zaiola haien iritziari. Baliteke heldutasun gutxiko zenbait ikaslek ere gaitzespena eta balorazio oso negatiboak azaltzea baina horrek ez gaitu gehiegi kezkatu behar; aitzitik, hori aprobetxatu behar dugu horiek askotan problema pertsonalen agerbidea baizik ez baitira, eta hori guk ezagutu egin behar dugu behar den momentuan esku hartu ahal izateko. Prozedura honek duen garrantzia da erregulartasunak lortzea, galdetutako taldearen iritziak bat egiten dutenean, eta erregulartasun horiek aintzat hartu behar dira.

Hainbat prozedura daude gure ikasleen iritziak eskuratzeko: Banakako elkarrizketak batzuetan estresagarriagoak izaten dira bai inkestatzaile nola inkestatuarentzat, taldekako eztabaidetan kutsadura arriskua dago, eta neutraltasuna nahiz lintxamendua izan daitezke joera. Proposatzen dugu ikasleei beren ikuspuntuak azaltzeko moduko galdetegi bat eskaintzea. Handik bildutako datuak gero irakasle protagonistak analizatu eta handik erregulartasunak eskuratuko ditu gero bere

auto-gogoetakoekin konparatzeko. **6. ERANSKINEAN** “Egindako irakaste funtzioei buruzko ikasleendako galdetegia” (127-128. orrialdeak), halako tresna horien adibide bat daukagu.

Bestalde, zenbait kasutan ikastetxe batek, departamentu batek edo irakasle talde jakin batek elkarrekin gogoeta egin nahi du testuinguru horietan izaten diren irakasle funtzioez.

Halakoetarako, **7. ERANSKINEAN** “Eskolako giroaren gaineko galdetegia (1) (129-132. orrialdeak) eta (2) (133-136. orrialdeak) eskaintzen ditugun tresnak bide ematen digu, lehenbiziko parte batean, kide bakoitzaren balorazio indibiduala egiteko, eta bigarren batean, parte hartzen duen talde osoaren datu osotarakoak ateratzeko. Kasu honetan, prospezioa ez da soilik irakasleentzako jardueraz egiten, baizik eta zabalagoko faktoreez ere, instituzio osoa, osakide dituen estamentuak eta haien arteko harremanak ukitzen dituzten faktoreez.

Behin estrategia hauen bidez lortutako informazioa bildu ondoren, gogoeta eta erabakiak bai indibidualak eta bai taldekakoak izanen dira (departamentukoa, ikastetxekoa...). Zehaztu beharko dugu zein diren gure irakaste indarruneak eta ahuluneak, haiek konpartitu eta horiek aldatzeko.

Zenbait alternatiba daude lan horri ekiteko:

1. Irakasle trebetasun berriak trebatzea (jakin, egiten jakin eta izan) klaseen eguneroko jardunean, nork bere efikaziaren neurketa eginez.
2. Trebetasun horiek gure irakaskideen aurrean antzeztea, berariazko lan eta prestakuntza saioetan. Kasu horretan irakaste dohain oso nabarmenak dituzten irakasleek beren kideen aurrean aurkezten dituzte, eta halakorik ez dutenek ikasten dute nola erabili. Ondoren, landutako dohain horiek ikasgelara eramanez eta lehen alternatibaren bezala trebatzen dira.
3. Irakaskide bati uztea klase ematen eta lehenik hautatu dohain horietako batzuk gauzatzeko ari garen bitartean begira egon eta notak hartzea.

Ekintza horiek guztiak grabatu ondoren ikusita xeheroago aztertzen baditugu, are gehiago hobetuko ditugu dohainak.

Beste alternatiba bat, irakasle taldeak bere lan jardueraren gainean egiten duen gogoeta errazteko, “irakurketa dialogikoak” delako estrategia da. Jarduera horretan, irakasle talde bateko irakasle bakoitzak, bakarka, lehenik hautatutako testu psikopedagogiko bat irakurtzen du (adibidez, Joan Vaelloren “Cómo dar clase a los que no quieren”) denbora jakin batez (astebete, hamar egun...) eta ondoren bilera bat egiten da hura gidoi bat segituz iruzkintzeko. **8. ERANSKINEAN** “Irakurketa dialogikoak” (137. orrialdea), gidoi eredu bat proposatzen dugu bilera dialogatuak kudeatzeko. Jarduera mota hori ikasbide handikoa da, ez soilik testuaren egileak egiten dituen ekarpenengatik, baizik eta, batez ere, irakaskideen ikuspuntuak, iritziak eta ideiak entzuteko aukera ematen duelako. Parte-hartzaileek iristen dituzten ondorioak abiapuntu, proposamenak modutu daitezke ardurakotzat atzeman diren estrategiak praktikan jartzeko eta haien zailtasuna edo efikazia ebaluatzeko.

Jarduera hori gauzatzeko, aurrena irakasleek proposamenean izena eman beharko dute. Jarduera barne-prestakuntzako izanen da eta zilegi izanen da ordu eta saio kopuruaren arabera dagozkion kredituekin ordain ematea.

5. HARRERA

Lehendabiziko inpresioek sakonki marka dezakete harreman baten izaera eta bilakaera. Ikasle batek ikastetxearekin, irakasleekin eta ikaskideekin egiten duen lehen kontaktua “harrera egun” deitu ohi zaien horietan izaten da, baina ikasturteko lehen egun edo asteetan ere egiten da.

HARRERA EGUNAK

Maila, gradu edo familia profesionalen arabera egin ohi dira eta Zuzendaritza Taldeko eta Orientazio Departamentuko arduradunekin egindako bilerak izaten dira, bai eta berariazko beste bilera bat ere, gero, zein bere tutorearekin. Familiekin ere egin ohi da antzeko harrera egun bat, antzeko egiturekin.

HARRERA EGUNAK IKASTETXEETAN. BILERA OROKORRAREN EGUNEKO GAI ZERRENDA
<ul style="list-style-type: none"> ■ Agurrak, aurkezpenak eta ongietorria. ■ Ematen diren irakaspenek zer ezaugarri dituzten azaltzea. ■ Ikastetxeak kalitateko irakaskuntzarekin duen konpromisoa. ■ Ikastetxeko arrakasta / porrot estatistikak. ■ Ikastetxeko bizikidetza araudia. Ikasleen eskubide-betebeharrak. ■ Ikasleen (eta familien) parte-hartze eremuak. Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak egiteko prozedurak (IKE). ■ Orientazio Departamentuaren aurkezpena. Disponibilitatea, kokaera eta kontaktua. ■ Egutegia, ordutegia, irakasleak. ■ Familiendako koordinazio eta informazio prozedura eta sistemak: EDUCA, tutoretza bilerak, posta elektronikoak eta telefonoak. ■ Instalazioen bisita.

Momentu hau ikasle guztientzat garrantzi handikoa baldin bada, historia pertsonal korapilatsua (**HPK**) izan duten ikasleentzat, portaeraren edo nortasunaren nahasmenduak izan dutenak, kasu, edo abandonoa, abusuak adopzio eta harrera gatazkatsuak, eskola porrota, jazarpena edo beste edozein esperientzia traumatiko bizi izan dutenentzat, bereziki ardurakoa eta garrantzitsua iruditzen zaigu. Hortaz, egunak osatu baino lehen, komeni izanen da gure zerrendetan begiratzea zein ikasle izan daitezkeen halako egoeretan.

Ikasleez aurretiazko informazioa eskuratu eta atzematen badugu taldean badirela halako ikasleak, horiek espreski hartu beharko dira kontuan bileretan (ikus “*Egunetan jorratu beharreko elementuak*” taula), eta oso egokia izanen da haiekin eta haien familiekin bilerak egitea (ikus “*Banakako elkarriketak*” taula).

Bilera orokorretan kontuan hartu beharko da halako historia pertsonal korapilatsuak dituzten ikasleak badauden ala ez, eta zenbait momentu eskainiko dira haientzat eta haien familientzat ardurako diren alderdiak jorratzeko. Ondoko taulan alderdi horietako batzuk ageri dira:

HPK IKASLEAK DAUDENEAN HARRERA EGUNETAN JORRATU BEHARREKO ELEMENTUAK

- HPK ikasle errolda (osotarako datuak).
- Ikastetxeak pertsonaren eskubideekin eta konfidentziasunarekin duen konpromisoa.
- Ikastetxeak Aniztasunaren Arretarekin duen konpromisoa.
- Koordinazio prozedurak: Familia-Ikaslea, Profesionalak. Zitak eta kontaktuak.

HPK ikasleak ez dira denak berdinak (nahasmendu bakoitzaren ezaugarri bereziak, ikasle bakoitzaren historia eta giroaren eragina zein izan diren, halakoa izanen da kasu bakoitza); horregatik oso komeni da ikasturteko lehen asteetan (Harrera Egunen testuinguruan) haiekin, dela Tutoretzan dela Orientazio Departamentuan, banakako elkarrizketak egitea; bilera haietan, problemetan erabat zentratu gabe, honako gai hauek jorratuko ditugu:

BANAKAKO ELKARRIZKETAK. HPK IKASLEEN LEHEN KONTAKTUAK ORIENTAZIO DEPARTAMENTSUAREKIN

- Elkarren aurkezpena (Ikaslea-Familia-Tutorea-Orientatzailea).
- Ikasleagandik informazioa jaso: Zer sentazio, sentimendu, premia eta eskari dituen ikastetxe berrian.
- Ikasleak eta familiak zer espektatiba dituzten gerorako.
- Eskola historialari errebaso neutro bat egin.
- Ikasleari aditzera eman zer laguntza programa eta baliabide erabilgai dauden eta haientzako arauak zein diren.
- Ikasleari eta familiari aditzera eman zer arrakasta espektatiba ditugun guk.
- Orientazio Departamentua haien zerbitzura jartzea (disponibilitatea, tokia eta kontaktu-hitzorduak).

Lehenago esan bezala, ikastetxeek eginkizun oinarritzkoa dute: Haien ikasleei **Hazten lagundu** (pertsona, gizartekide, ikasle eta profesional gisa), hots: Heldutasunera bidean gidatu eta laguntzea. Helduaren eta heldua ez denaren arteko diferentzia izaten da helduak sentimenduak eta emozio bizitzaren gaineko nolabaiteko kontrola lortu duela, eta bere bizitza kudeatu, bere gain hartu eta zuzentzeko gaitasuna bereganatu duela.

Nork bere burua kontrolatu, kudeatu eta bere gain hartzeko gaitasunak garatu beharra ez da berriz aipaturik egoten eskola curriculumetan, eta are gutxiago Bigarren Hezkuntzakoetan. Jakintzat ematen da eduki horiek ikasgai bakoitzaren jarrera-edukietan sarturik daudela. Gure iritzian, ordea, gaitasun horiek apenas lortuko diren ikasleei hainbat esperientzia, egoera eta momentu ematen ez bazaizkie bere buruen kontrola, kudeaketa eta erantzunbeharra gauzatzeko modukoak.

Ikastetxeak beharturik daude ikasleei beren burua kudeatu eta beren gain hartzeko moduko egoerak eta esperientziak ematera; ildo horretatik, bere bizitza pertsonal, sozial eta akademikoaren inguruko gertaera eta erabaki guztiak bere ezagutza, baimena eta ardura behar dituzte aurretik.

Pixkananako ahalduntze helburu hori gogoan, bai Orientazio Departamentuen ardurapeko eremutik bai Irakasle Departamentuetatik eta Tutoretzetatik, honela jokatu behar litzateke:

1. Ikasleei aditzera eman zer datu pertsonal, sozial, akademiko dauden beren espediente per-tsonalean.
2. Ikasleei aditzera eman zer eskubide dituzten: Beren datuen gainean zer jabetza duten eta hura nola erabili behar eta ahal duten.
3. Ikasleei aditzera ematea zer betebeharrak dituzten: Gainerakoen eskubideak errespetatzea.
4. Ikasleei (edo/eta haien familiei, adin gutxikoen kasuan) baimena eskatzea datu horiek Ori-entazio Departamentu eta Tutoretzan kudeatzeko eta haien berri hirugarrenei emateko (osatu dokumentua: **9. ERANSKINA**, "Konfidentzialtasun Konpromisoak" (138. orrialdea).
5. Ikaslearen sinadura (eta gurasoena, hala behar izaten bada), egindako akta eta elkarrizketa guztietan.
6. Erabaki hartze informatuaren prozesuetan prestatzea, edozein egoera edo gertaera apro-
betxa-tuz bere burua kudeatzen eta bere gain hartzen ikasteko.

Harrera prozesua bukatu ondoren, orain HPK ikasleak dituzten talde/ikasgeletako tutoreen eskura jarriko ditugu hezkuntza eta tutoretza lanerako ardurako diren datuak; hartarako lehenago ikaslea-
ren edo haren familiaren (adingabeak badira) baimen sinatua lortu izanen dugu kasuko hezkuntza arduradunen aurrean.

HPK IKASLEAK DITUZTEN TALDE/IKASGELETAKO TUTOREEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

- Beren taldeko HPK ikasleen errolda datuak.
- Atzeman diren kasuen ezaugarri oinarritzkoak. Hezkuntza premiak.
- Lan prozesua eta hautemate, laguntze eta kontrol estrategiak.
- Konfidentzialtasun eskariak beste irakasleen aurrean.
- Dauden kontaktuak (familia, ikasleak).
- Behar diren koordinazioak: Orientazio Departamentua, Zuzendaritza taldea, kabineteak (disponibilitatea, tokia, kontaktuak eta hitzorduak...).

6. LEHEN MOMENTUEN BALIOA

6.1. Lehen egunak zer “ari den” jakitea

Esperientziak irakatsita dakigu gizarte taldeak sortzearen lehen faseetatik hasita haien kideek hurbiltze, gaitzeste, botere bilatze eta estatus eta aitormen soziala bilatu beharreko portaerak ageri dituztela. Jarduera eskema hori bera ikusten dugu ikasgeletan ikasturteko lehen asteetan: Ikasleek taldeko giroa ezarriko duen gizarte harreman sarea sortu, egituratu eta zehazten dute: Zer erreakzio estilo izanen duten eta nola eginen dieten aurre arazoei. Pultsioz eta tentsioz, bilatzez eta ihesez, hurbiltzez eta gaitzestez, maitasunez eta gorrotoz betetako gizarte mundu hori ezin dugu oharkabean pasatzen utzi, eta ez bakarrik hartan “egosten” delako gure ikasleen zoriona ala zoritxarra (eta geurea ere bai), baizik eta baita, zeren mundu horren mende dago ikas eta irakats prozesuen arrakasta ala porrota. Hala ere, eta gaia ardua handikoa delarik ere, gure ikastetxeetan maizegi aprobeztatu gabe galtzera uzten dugu ikasleek beren jokaerarekin eta harreman moduekin ematen dizkiguten datuak bildu eta atertzeko aukera: Ikasleek beren kasa ikasgelan nola banatzen diren, zer nolako elkarreginak izaten dituzte, nola erantzuten dieten irakasleen agindu-mandatuei, zer jarrerak izaten dituzten... datu horiek guztiek irakasle taldeak jaso eta aztertu behar rak dira. Azterlan horrek bide emanen du geroan suma daitezkeen arazoei prestatu gabe harrapa ez gaitzaten eta arrakasta aukera gehiagorekin aurre egin ahal diezaiegun.

Hona hemen hartarako eskura ditugun estrategia batzuk:

1) Ikasleen elkarreragina errazteko berariaz diseinaturiko jarduerak:

Talde jarduerak dira, irakasleek ikasle arteko harremanak faboratzeko proposatuak. Gure helbururako baliagarriak izanen badira, jarduera horiek bide eman behar dute ikasleak beren buruz taldetan bana daitezten eta beren buruz bana ditzaten elkarren artean emandako lanean hartu beharreko rolak; bestela, ez da hor agertuko taldearen benetako jardunbidea. Aukera bat da zenbait dilema moral hartzea lanaren abiapuntu, interesgarriak eta ardua sozialekoak. Adibidez, **10. ERANSKINEAN** “Dilemen gaineko talde lana” (139-142. orrialdeak) bi alternatiba eskaintzen ditugu, lehenbizikoa, “**Bizikleta horia**” deitua, gerok egina da; bigarrena, Kohlbergen “**Heinzen dilema**” maizenik erabiltzen diren dilema moraletako bat da, eztabaidarako aukera asko ematen baititu. Hala ere, gure ustez, gure helbururako beti askoz hobe izanen da testuingurura moldatutako jarduerak sortzea gaurkotasuneko gaiak eta gertaerak aprobeztatzuz.

Jarduera mota hau gauzatzen ari dela, irakasleek hauteman eta jaso behar dituzte ikasle artean sortzen diren harremanak eta gero datuok azkar ikusteko moduko tresnaren batean irauli. Guk eredu bat eskaintzen ditugu **11. Eranskinean** “Taldeak eratzeko fasean jaso beharreko datuak” (143-144. orrialdeak).

2) Proba soziometrikoa::

Ikasgelako jardunbide soziala ikertzeko beste prozedura bat da “Proba soziometriko” bat erabiltzea; halako asko daude merkatuan. Zein tresna zehatz erabili aukeratzeko, kontuan hartu behar da batez ere ikasleen adina, eta baita, halaber, zer erraztasun ematen duen tresna datu esanguratsuak ateratzeko eta zenbateko lana eta esfortzua eskatzen duen.

Gure iritzian, proba soziometriko batetik honako datu hauek ateratzea aski genuke:

- Ikasleen talde sarea.
- Liderrak eta haien arteko harremanak (afinitateak eta etsaitasunak).
- Pertsona isolatuak: Baztertuak edo gaitzetsiak.

Datuok lortzeko aski da ohiko galderak modu positiboan egitea, eta ez da beharrezko izaten formulazio negatiboa erabiltzea (zeren gure esperientzian azken honek ikasleei proba pasa ondoren go solaserako balio baitu eta ikasle batzuei ez baitie inolako mesederik egiten). **12. ERANSKINEAN** “Proba soziometrika: Adiskideak egiten” (145. orrialdea), galdetegi soziometriko baten eredu bat proposatzen dugu, 12 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat pentsatua. Horren bidez lortutako datu guztiak “Lehen egunetan hautemandakoen erregistro”an irauliko ditugu, **13. ERANSKINEAN** ageri dena (146-147. orrialdeak).

3) Zuzenean hautematea eta erregistratzea:

Eskura dugun beste baliabide bat da, gure ikasgelako bizitza sozialari antz emateko, datuak zuzenean hauteman eta erregistratzea da; hala ere, irakasle guztiek ez dute izaten hauteman eta erregistratzeko gaitasun hori; batzuk ohartu ere ez dira egiten prozedura honen garrantziaz. Lana errazteko, hobe da zenbait tresnak markatzen dituzten adierazleak eta pautak segitzea da, **13. ERANSKINEKOA**, adibidez, lehen esan bezala.

Hautemate lanean trebe den irakaslea, hiru estrategia hauen bidez lortutako datu horiei esker, ohar-tu egingen da bere ikasleek zer ezaugarri eta baldintza dituzten eta notatu egingen du (bere memorian baizik ez bada ere) zein ikasleri eman beharko dion arreta gehien eta zeinekin jokatu beharko duen zorrotzago edo etorkorrago. Bistan denez, halako ebaluazio batek (beste edozein ebaluazio bezala) ez du datuak lortzea azken buruko helburu, baizik eta ikasgelako funtzionamendu soziala hobetze-ko plan bat eratzea (kasu honetan). Datuak baliagarri eta ardurako izanen badira, haien azterketan sakondu behar dugu, haien atzean dauden arrazoiak eta motibazioak zehaztu, eta esku-hartze koherente baterako plan bat eratu.

“Lehen egunetan hautemandakoen erregistroa”ri esker gauza izanen gara ezaugarri eta baldintza jakinak dituzten ikasleen zerrenda bat egiteko, gero haiekin zuzeneko tutoretza lana egiteko, nahiz eta hartarako agian beharrezkoa izanen den familiekin eta lankideekin koordinazio lanak abiatzea eta kasuko ikasleekin elkarrizketa pertsonalizatuak egitea.

6.2. Lurraldea markatzen

Lehenbiziko egun horiek, ikasleak, haien harremanak eta erreakzio estiloa ezagutzeko ez ezik, irakasleek beren autoritatearen oinarriak ezartzeko eta ikasgeletan argiro erakusteko ere balio izaten dute. Lehen egun hauetan hauek argi zehazturik utzi behar dira:

- * Ikastetxearen **helburu** nagusia dela ikasleak gararaztea eta hartarako jartzen direla abian ikas eta irakats prozesuak.
- * Irakasleek **autoritatea** dutela (exigentzia, justizia, errespetua eta adeitasuna) ikas helburuak iristeko.
- * Oinarrizko **araudi** bat badela, guztiek nahitaez bete beharrekoa, lanean zentratutako ikasge-la giroa sortzeko.
- * Irakasleek **uste osoa** dutela ikasleen jarrera onean eta behar duten **laguntza** guztia emanen dietela.

Helburu horietarako, jakinaren gainean zenbait irakaste portaera eta jarrera erabili beharko dira, zeinen bidez aukera izanen dugun ikasleen aurrean errespetua, geriza, inklusioa irudikatzeke, baina bai exigentzia eta autoritatea ere:

- Ikasgelako atean harrera egiezu zure ikasleei, banan banan eta irribarrez agurtu. Hitz josta-garriren bat esan.

- Itxaron denak eserita egon arte klasea hasteko, begiratu egiezu eta esertzeko eskatu, plurala erabiliz: *“Eser gaitezen”, “hasteko, isildu eginen gara...”* Eskertu egiezu kolaboratzea.
- Hasteko, azal ezazu zer eduki landuko diren eta zer fasetan banatuko duzun saioa.
- Esplikatzen duzunean, sartu itzazu ikasleak zure esplikazioan (galdetu, arbelera atera esaten ari zarena apuntatzeko, esan duzuna laburbiltzeko eskatu...)
- Bakarkako lana agintzen baduzu, gora eta behera ibil zaitez ikasgelan eta haiekin mintzatu, distraitu gabe. Distratzen dena bidera ezazu baina lasai eta pluralak erabiliz (*“zentra gaitezen lanean, eta ez badakizue, laguntza eskatu”*).
- Keinu konplizeak erabili arreta deitzeko: Tiratu bat eman zure belarriari eragozten ari denari irribarre eginaz; bideratu duzunean, lokia ukitu eta esan: *“Mutil azkarra”...*
- Ahalegina ere eskertu, ez soilik emaitza, eta *“ni mezuak”* erabiliz emaiouzu aditzera: *“Pozpozik nago nola lan egin duzuen... arrakasta ia seguru daukagu”*.
- Ahaleginean ez dadila izan lanik gabeko unerik. Hartarako, oso ongi programatu beharko duzu saioa.
- Ikasleren batek, arreta deitu badiozu ere, arauak eta lanak bete ez baditu, klasea bukatzean harekin gelditu eta galdeiozu zergatik jokatu duen horrela eta zer behar duen egokitzeko. Esaiozu askoz gehiago espero duzula harengandik eta erakutsiozu laguntzeko prest zaudela. Eskua estutuz agurtu ezazu eta entzuteagatik eskerrik asko esanaz. Hurrengo saioan arreta berezia izan harekin eta laguntza gehiago eman.

7. ARAUDIA. Adostasunak sortzen

Azken hamarkadetan gizartea, gizarte harremanak eta gizartearekin doazen balioak izugarri aldatu dira, halatan non lehengo estilo eta roletara ohiturik bizi izan ziren pertsona eta instituzioak askotan zail izaten dute gaurko baldintzetan modu osasuntsu eta egokian bizitzea. Familiak, hazkuntza estiloak, autoritatea aldatu dira, eta bai, azkenik, "tribuak" zer zegoen ongi eta zer zegoen gaizki ezartzeko erabiltzen zituen irizpideak eta zenbait portaeratik heldu diren ondorioak ere. Orain, berriz, balioak demokratikoak eta demokratizatuak dira (eta haien eraikuntzan eta kudeaketan parte hartzea exijitzen da). Testuinguru horretan indibiduo ardatza da. Nork bere modura ikusten ditu gauzak eta interpretatzen du errealitatea, eta iritzi guztiak dira (printzipioz) berdin errespetatze-koak; autoritatea, beraz, ez dator kargu edo estatus batetik; aitzitik, egunez egun lortutako prestigioarekin irabazten da.

Lehen esan bezala, iraultza sozial eta ideologiko horrek hezkuntzan sortu duen asaldurak pendulu mugimenduak ekarri ditu: "Onkeria" pedagogikoak, ikasleei nahi dutena egiten utzi, haien plazer bilatzeari kontrarik ez egin, ahalegin falta pasatzen uzteko joerak... eta dotrina eta jarrera horiek inkoherentziaz tindatu zuten (eta tindatzen dute) hezkuntza jarduera. Inkoherentzia hori gatazkaren elikabidea da; ikasleak kontraesaneko informazioak hartzen ditu testuinguru bakoitzean zer egin eta nola portatu behar duen jakiteko eta, beraz, bere instintu, desira eta premia guztien berehalako asebidia bilatuz jokutzen du. Baina autoritatea eta arauak ez dira, izan, plazerrerako tresnak; gaitzetsi eta urratu daitezke, egia, eta tamalez askotan utzi ere egiten zaie ikasleei hala egiten eta, maizegi, arrakasta eta askotariko mesedeak etortzen dira hortik, portaera horien indargarri.

Bizikidetza ikastetxeetan arautzeko arauen premia hain zen bistakoa non azkenean hezkuntza legeetam ere sartu zen eta ikastetxeetako bizikidetza araudietan islatu. Administrazio goiko agintaritzatik bultzatutako araudi horiek tresna eraginkorrak izan dira gatazka eta arau-hausteei aurre egiterakoan, bide ematen baitute hezkuntza neurri koherente eta proportzionalak aplikatzeko. Hala ere, ez dute behar adina jorratu bizikidetza eremu parte-hartzaileak sortu beharra eta ez prebentzioa ere.

Esperientziak irakatsita dakigu arau bat ezaguna, adostua eta norberak egina denean, aukera gehiago daudela denek hura betetzeko. Horregatik gaur proposatzen dugun programa, ikastetxeko bizikidetza araudia onartuta hura abiapuntu harturik, bide eman nahi die ikasleei haren jabe bezala sentitu eta haren abian-jartzean eta gainbegiratzeko parte hartzeko.

IKASTETXEKO ARAUDIA “BERE” BIHURTZEKO PROGRAMA

1. IKASLEEI ARAUDIAREN BERRI EMAN

1. Elkarreraginak arautu beharren gaineko azalpena.

■ IRUZKINAK: *“Gizarte talde guztietan, futbol ekipoetan, familietan, kuadrilletan, armadetan eta abarretan araudi batzuek arautzen dute kideen portaera. Arau horiek batzuetan ez daude idatzita baina hor daude eta, betetzen ez direnean, beti ondorio txarrak etortzen zaizkio bete ez dituenari: Kuadrillatik bidaltzen dute, edo partidutik, telebistarik gabe uzten edo eskubideren bat galtzen. Dena denentzat askoz argiago egoten da arauak idatzita eta guztien bistan daudenean; hartara, bakoitzak jakin dezake zer den zilegi eta zer debeku, eta agintariak zuzenago izan daitezke, denentzat ondorio berak aplikatuz.”*

Egin ezazue 1. jarduera, **14. ERANSKINA**, “Gizarte egoeren aztertzea” (148-156. orrialdeak).

2. Ikasgelari aditzera ematen zaio aurki araudi bat ezarriko dela ikasgelan. Argitu zer arrazoi ditugun hori egiteko: Ikasgelako giroa eta zenbait emaitza eta portaera hobetzea.

■ IRUZKINAK: *“Gure gelan gauza bera gertatzen da. Hori aldatzeko, bizikidetza araudi bat eraikitzen saiatuko gara. Hartan, nahitaez bete beharreko arauak egonen dira eta bai betetzeak edo ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak ere. Hartara, dudarik gabe lortuko dugu gusturago egotea, elkarrekin harreman hobea izatea eta gogotsuago eta hobeki lan egitea”.*

3. Esplikatzea denek parte hartu beharko dutela araudia programatu eta abian jartzen.

■ IRUZKINAK: *“Geroko araudia baliagarria izanen bada, denen artean landu behar dugu. Denen artean ezarriko ditugu gure bizikidetza arauak, denek landuko ditugu pixkanaka. Zuen kolaborazioa eta laguntza ezinbestekoa da; nik neure burua lotzen dut zailtasun gehien dituenari laguntzeko, eta eskatzen dizuet zuek ere niri laguntzea behar dudanean eta, nire portaera zuen ustez egokia ez denean, esatea.”*

4. Ikasleen gaitasunaz espektatiba positiboak daudela azaltzea.

■ IRUZKINAK: *“Segur naiz denek zuen interes eta ahalegin osoa jarriko duzuela burutan hartzen ditugun helburuak iristeneta ikasgelako giroa eta harreman pertsonalak hobetzen. Lehendik ere beste batzuetan hagitz ongi jokatu duzue talde bezala, eta horregatik ez dut dudarik egiten lortuko dugula.”*

2. BIZIKIDETZA ARAUDIAREN ERAIKUNTZA

a. Bizikidetza egoerak zehaztea

“Nire ustez, honako bost egoera hauetan azaldu ohi dira harreman problema gehienak, bai zuen artean eta bai nirekin ere (aipatu eta argi idazten dira arbelean). Baina zuei bururatzen bazaizue beste gatazka momenturen bat, nere oharkabean pasatakoa, seigarren puntu bezala sartuko dugu hori ere.”

1. Gelara sartu eta saioa hasterakoan.
2. Irakaslea esplikatzen ari dela.
3. Bakarkako edo binakako lanetan.
4. Aterera, sarrera eta gela edo ikasgai aldatzeetan.
5. Gure harreman pertsonaletan.

b. Hautatu erregulatze arauak eta haiekin batera datozen ondorioak

b.1. Litezkeen arauak aztertu: Ikasleei 2. jarduera, **15. ERANSKINA** eskuratzen zaie, “Bizikidetzaren arauak hautatzen ditugu” (157-161. orrialdeak). Irakasle taldeak, lehendik diseinatu-ta, egoera bakoitzerako behar diren eta lehenetsi behar diren arauak edukiko ditu prest, eta ondoan, baita, beste batzuk, desegokiak edo neurrigabeak ere (ikasleek gaitzets ditzaten). Ondoren, eskatzen zaie fitxa osatuz joan daitezela garrantzi handienekoak iruditzen zaizkien bi-hiru arauetan ixa bat (X) jarriz eta gainerakoak markatu gabe utzi-rik, desegokiak edo gehiegizkoak direlako. Irakasleak ere fitxa bat osatzen du, ikasleek bezala, bere portaerari buruz erreferentzia eginez. .

b.2. Arau egokiak hautatzea: Behin fitxa guztiak bete ondoren jendaurreko kontaldi bat egin eta arbelean notatzen dira arau bakoitzak ateratako puntuak. Puntu gehien atera ditzuz-tenek (hemen irakaslearen iritzia ere kontatzen du) hautatutzat hartzen dira.

b.3. Hautatu arauok betetzeak ala ez betetzeak dakartzan ONURAK eta ONDORIOAK hautatzea.

Irakasleak, taldeko kidea den partez, bere iritzia emanez hasten du saioa: *“Nik, denon artean lortzen badugu hautatu ditugun arauok betetzea, lasaiago egonen naiz, denbora gehiago izanen dut klaseko lanetan zuei laguntzeko, denbora gutxiago galduko, hobeki sentituko naiz...”*

“Eta zuek, zer onura uste duzue aterako duzuela?” Ikasleek beren iritzia ematen dituzte. Eman ikasleei 3. jarduera, **16. ERANSKINA**, “Gure portaeren ondorioak hautatzen ditugu” (162-163. orrialdeak), bertan notatzeko hautatu arauak betetzeak ala ez betetzeak ekarriko dituen ondorioetatik zein iruditzen zaizkien zuzenenak eta egokienak (irakasleak ere fitxa beteko du, ikasleek bezala). Eskaini, adibidetzat, onura eta ondorio negatiboekiko zerrenda bat:

- Hobeki eta azkarrago ikasiko dugu.
- Ez da esplikazioak errepikatu beharrik izanen.
- Giro lasaiago eta ez han zaratatsuan lan egingen dugu.
- Inor ez da urdurituko, denak hobeki konponduko gara.
- Pertsonen arteko gatazkak sortzea galaraziko dugu.
- Ikasgelako giroa jatorragoa izanen da.
- Parte hartzeko txandak errespetatzen ikasiko dugu.
- Ordutegiaz kanpo ikasgelan gelditu.
- Goardia-gelara bidaltzea.
- Nota portzentaia batez jaistea.
- Jendaurreak barkazioa eskatu eta zuzentzeko jarrera erakutsi.
- Komunitatearen onurako lanak egin.
- Gehiagoko lan akademikoak egin.
- Ikastetxeko Araudiko beste hezkuntza neurriren batzuk...



3. KONPROMISO PERTSONALAREN ZIURTATZEA. JENDAURREKO TXALOA

- Ikasle guztiak prozedura onartuko dutela uste baldin bada, bakoitzak dokumentu formal bat osatuko du (**17. ERANSKINA** "Konpromiso Pertsonala", 164. orrialdea), zeinean araudia onartzen duela jasotzen den: **Nik, halakok eta halakok, gure araudia onartzen dut eta kon-promisoa hartzen hura betetzeko eta nire ikaskideei laguntzeko halaxe egin dezaten.** Uste bada ikasleren batek uko eginen diola dokumentua egiteari, prozesu guztia boikoteatzeko, besterik gabe jendaurreko txaloaldiz onartuko da araudia. Ordutik aurrera araudia bete beharrezkotzat joko da. (DBHko goiko kurtsoetan eta goragokoetan agian ez da halako dokumen-turik osatu beharrik izanen. Kasu horietan aski izanen da ahoz eta jendaurrean adostasuna azaltzea).
- Konpromiso eta sinadura indibidual guztiekin, guztien arteko dokumentu bat itxuratzen da eta, DBHko lehen kurtsoetan behintzat, ikasle bakoitzak bere etxera eramaten du gura-soak jakinarene gainean egon eta programan parte hartzeko aukera izan dezaten.

4. HAUTATU ARAUAK LANDU ETA PRAKTIKATZEA

a. Hautatu arauak lantzeko periodoak itxuratzea:

- Lehen astean; Ikasleak tutorearekin egoten diren klase saioetan, hautatu arauak begi-bistan egonen dira eta lantze periodo batzuk finkatuko dira aurreikusitako bost egoera horietako batean.
- Bigarren astetik aurrera, tutorea lan saio gehiagotara eta egoera gehiagotara zabalduko du arauen praktika, gainerako irakasleek ere arauen praktika sentiaraziko diote taldeari egoera horietakoren batean arrakastak aitortuz eta zailtasunak edo ez-betetzak seinalatuz.
- Hirugarren astetik, tutoreak ematen dituen saio guztietan hautatu arau guztien praktika egingen da, eta gainerako irakasleek saio gehiagotara zabalduko dute praktika. Ahaleginean taldeari parte harraraziko zaio zenbait ez betetzek berekin dakartzaten hezkuntza neurriak zehazteko.

b. Laguntzak programatu:

- Lantze periodo horien hasieran gogorarazi zein arau landuko diren.
- 2-3 ikasleko talde bat hautatu (helduenak eta egokienak) kontrolatzaile eta irakaslearen laguntzaile izateko, eta irakatsiko zaie nola abisuak eman eta nola bideratu arauaren urratzeak.
- Araua urratzen deneko egoerak aprobetxatu, gogoeta egin, zuzendu, eztabaidatu, ordezeko portaerak eskaintzeko...
- Txerazko arreta eman gauzak egoki eta esfortzuz egiten direnean.
- Egunero, klaseko azken bost minutuetan tutoreak, gela osoak izandako emaitzen berri emanen die ikasleei, eta aurrerapenak eta atzeman diren zailtasun nagusiak seinalatuko.
- Bakarkako informazio-saioak egingen dira arauak errespetatzeko zailtasun gehien dituzten ikasleekin. Tutoretza horietan, ikaslearen aurrerapenak azalduko dira (txikiak badira ere), eta zailtasunak aztertuko.

8. EGUNEZ EGUNEKO LANA. Gatazka arruntetan lan egiten

Pertsonen arteko harremanetan, alderdi bakoitzak askotan bizitza proiektu desberdinak, batzuetan helburu bateraezinak eta baliabide mugatuak izaten ditu, eta horrek elkarren arteko kontaktua korapilagozten du. Helburu, baldintza eta baliabideetako diferentzia hori dela medio, gatazka ekin ezinako osagaia izaten da giza harremanetan. Gatazka bi alde diferente izaten dituzte: Batean kostuak ageri dira (sentimentalak, emozionalak, erlaziozkoak...) eta bestean aukerak (sormena, estimuluak, garapen pertsonala...). Bestela esan: Gatazka, esan bezala giza talde orotako osagai kendu ezinak direlarik, komunikazio irekiago baterantz orientatu eta gidatu gaitzake, ebazpide dialogatua eta sortzaileago batzuetara eta, oro har, gure harreman pertsonalen hobekuntzara: Baina bai ta horiek gero eta makurragotzera ere eramán gaitzake, gatazkari nola aurre egiten zaion.

Iraila bukaeran ikasgela guztiak abaila osoan ari dira, ikasleek elkarren ezagutza egina dute eta harreman sare berezia sortu dute. Ordurako harrera prozesu egokia egiteko gauza izan bagara, araudi adostu bat abian jartzeko gure plana martxan jarri badugu, eta argi jakinarazi badiegu ikasleei zer proiektu dugun, nola iritsi nahi ditugun eta nori dagokion lan hori gauzatzeko ardurá, bizikidetza doítua bermatzeko oinarriak jarriak izanen ditugu. Hala eta guztiz ere, horiengatik guztiengatik ere, gure ikasgelan, beste edozein gizarte testuingurutan bezala, ezin izanen da gatazka azaltzea galarrá eta, laster ala berandu, azalduko dira. Hori gogoan, ez da alferrik izanen errepató bat ematea pertsonen arteko gatazketan ikusten diren erreakzio estilo desberdinei eta haiekin lan egiteko proposamen batzuk ematea.

8.1. Gatazkei aurre egiteko jarrerak eta erreakzio estiloak

Gatazka bati aurre egiterakoan gizabanako bakoitzak bere-bere jokaera izaten du; denak, hala ere, erraz sailka daitezke pertsonen arteko harreman motari eta portaerarekin iritsi nahi diren helburuei erreparatu.

Bi aldagai horien baturatik heldu diren portaera estiloak honako eskema honetan laburbiltzen dira:

		ZUK	
		Galtzen duzu	Irabazten duzu
NIK	Galtzen dut	Ebasioa	Egokitzea
	Irabazten dut	Lehiaketa	Elkarlana

Iturria: Cascón Soriano (2000)

■ LEHIAKETA:

Gatazkaren aurreko jokabideen eskema honetan, garrantzia duena da nik irabazi eta besteak edo besteak galtzea. Satisfazio pertsonala lortzea da helburua, eta, askotan, besteak lortu dezaten galarrá. Gehiagotasun jarrera dago pertsonen arteko harremanen oinarrian.

Horrela jokatzén duten ikasleei jakinarazi behar zaie ezen horrela jokatu:

- * Talka eta lehiaketa egoerak sortuko ditugula, irabazle ateratzea helburu.

- * Ahal den onurarik handiena atera nahiko dugula, besteak umiliatuz, haien interesak, iritziak, sentimenduak ezertako kontuan hartu gabe.
- * Besteekiko harremanak txartuko direla eta gaitzespen jarrerak sortuko.
- * Batzuen nahiz besteen autoestimua gutxitu egingen dela.

Portaera estilo hori duten ikasleak ezagutzen ditugunean haiekin elkarlaneko eta elkar laguntzako esperientziak eta jarduerak sustatuko ditugu (talde lanak egitea, talde ebaluazioarekin, ikaskide ez hain trebeei ikasten lagundu...).

■ EBASIOA:

Portaera estilo honek ihesa izaten du osagai, gatazkari muzin egin eta ezer ez egitea. Hemen, helburua ez da onurak lortzea, ez eta besteek lortzea ere. Jarrera hau erabat pasiboa da, denbora pasatzen utzi eta dena bere buruz konpondu arte itxarotea. Jarrera hauen atzean askotan beldurra egoten da (besteekiko konpromisoari, besteei, jendaurrean egoteari...).

Horrelako jokabidea duten ikasleei, aditzera eman behar zaie ezen horrela jokatzuz:

- * Beste pertsonak inposatzen dituzten exigentziak onartuko ditugula.
- * Beste pertsona edo taldea irabazle aterako dela.
- * Geure buruarekin gaizki sentituko garela. Larrimina eta estura sentituko ditugula.
- * Autoestimua gutxituko zaigula.

Gatazkei aurre egiteko horrelako jokabidea duten ikasleren bat baldin badugu, jokabide hori aldarazteko, zenbait esperientzia arrakastatsu proposatu behar dizkiegu kolaborazio rol jakin zenbait beren gain hartu eta gauzatzeko (idazkaria, arduraduna, gainbegiralea...). Lanbide horietan arrakasta izan eta pozik ateratzea oinarrizkoa da ihes egiteko duten joera aldarazteko.

■ EGOKITZAPENA:

Erreakzio eredu honen atzean dauden jarrerak sumisioarekin eta gutxiagotasun sentimenduekin izaten dute lotura, edo, baita, inmolazio eta martirioarekin ere. Aurkariaren ustezko nahiz benetako gehiagotasunaren aurrean norberak arrakasta izateko espektatiba gutxi izateak harreman osoa tindatzen du. Eredu honetan, ez dizkiegu besteei geure iritzi eta balioa adierazten. Ez ditugu geure eskubideak erabiltzen. Kasu batzuetan besteen desirari men egiten zaie dena egoki joateko; beste batzuetan, berriz, norbere burua inmolatzera iristen da, beste pertsona askotan idealizatuen onuran.

Horrelako jokabidea duten ikasleei, aditzera eman behar zaie horrela jokatzuz:

- * Besteen inposaketak jasanen ditugula.
- * Beren gustuen mende jartzen gaituzten pertsonak gero eta presio handiagoa egingen digutela.
- * Autoestimua izugarri gutxituko zaigula.
- * Besteengandik dependentzia handia garatuko dugula, ez dugula geure irizpiderik izanen.

Gure ikasgelan halako jokabide estiloa duten ikasleak baldin badaude, hura zuzentzeko, independentzia, autosatisfazioa (gizarte aitormena duten erantzunbehar indibidualak) eta besteen kontrolaren praktika (Bizikidetza Batzordean parte hartzea, Kirol Batzordea...) bultzatzen duten jarduerak proposatu beharko dizkiegu.

Gure ikasgeletan aurkitzen badugu hiru eredu horietako baten arabera (lehiaketa, ebasioa, eta egokitzapena) jokatzeko duten gizarte testuinguruak, bereziki erne eta adi egon beharko dugu portaera agresiboak (hitzeko nahiz fisikoei) antz emateko, edo menperatze/menpe egite jokoak edo jarrera baztertzailak edo eskluizanteak. Halakoetan, prebentzio neurriak ez ezik, eta erasotzailak edo biktimarekin ber-heziketa lana egin ez ezik, ikastetxeetako Bizikidetzaren Araudian eta Hezkuntza Administrazioak diseinatutako protokoloetan agintzen dena ezarri beharko da.

■ ELKARLANA:

Gatazkari aurre emateko modu honetan, denei beren balioa aitortzen zaie: Niri zein gainerako guztiei, erabateko berdintasunean. Prozesuan, kontuan hartzen da bai interes orokorreari eta bai norberarenei eman behar zaiela asebidea (ahal den neurrian). Alderdi guztien arrakasta eta satisfazioa da helburua. Formatu honek ematen du ikaspenik handiena, jarrerak, balio etikoak eta pertsonen arteko harremanak hobetzen ditu.

Horrelako jokabidea duten ikasleei aditzera eman behar zaie:

- * Parte hartzen dugun guztiok aterako dugula onura.
- * Ez da irabazle edo galtzailerik izanen, denek irabaziko.
- * Elkarren satisfazioak adiskidantza eta asertibitatea ekarriko ditu.
- * Norberaren autoestimua eta besteena ere hobetuko dira.

Gure ikasgelan horrelako jarrerak dituzten ikasleak ezagutzen baditugu, ahalegina egiten dugu beste aurrean kualitate horiek bistan uzten, haien jokamoldea indartzen eta ikasle gutxiago gaitz edo desfaboratuenekin hura erabiltzea bultzatzen.

Bistan da jarrera mota hori dela bilatu beharrekoa. Gure helburua izanen da gure ikasleen jarrera agresiboak, ebasiozkoak edo egokitzekoak aldatu eta horiek elkarlan-jarrera bihurtzea.

Arestian aipatu bezala, gatazkak bai eraiki bai suntsitzeko ahalmena du, nola egiten zaion aurre, eta beharrezko urratsa da norberaren ikaste prozesuan eta aldatze prozesuan (Schmuck eta Schmuck, 1983, 274. orr., in Ovejero, 1989). Gatazka, beraz, ikaspen iturria da: Ideiek, iritziek eta erreakzio estiloek elkar jotzean, lagun urkoa eta haren ikuspuntuak ezagutu eta bizitzen ditugu; gatazkari modu eraikitzailean aurre egiten bazaio, printzipio moral eta etikoak eta jarrera demokratikoak irakatsi eta ikasi egiten dira. Eredua (ikaspen bikarioa) gure arma hoberenetako bat da. Ikasgelan gatazka bat sortzen denean, modu lasai, tratatu oneko, berdinean eta denak errespetuz tratatuz egiten baditugu aurre, are aukera gehiago izanen dira gure ikasleak ere horrela jokatzeko.

Eskolako gatazkek ikasgelaren jarduna tratatzen dute eta horregatik, batzuetan, irakasleek haiek erreprimitzeko joera izaten dute, haien kausak eta ebazpideak finkatzen saiatu beharrean.

Irakasleen jarrera hori indartzen duten faktoreak gatazka horiek ikasgelan modu eraikitzailean maneiatzeko denbora eta baliabide falta dira. Irakasleek bakan bultzatzen ditu horren gaineko eztabaidak, beldur baita gatazka egoerak gainez egin eta hura atxiki ezinik gelditzeko. Hartara, ordea, gatazka konpondu gabe utzi ez ezik, ongietzak eta gaizki ulertuak metatu ere egiten dira, eta horrek pertsonen arteko harremanetarako ondorio suntsigarriak ditu. Eskolako lanen lehentasunak ere ez du justifikatzen gatazkari horrela ihes egitea.

8.2. Baldintza pertsonalak agerraraztea

Gatazka baten aurreko lehenbiziko esku-hartzea, haren parte-hartzaile aktibo eta pasiboak gatazkaren baldintza eta ezaugarriak agerraraztea da. Erreakzio estiloak (Lehiaketa, Ebasioa,

Egokitzapena edo Elkarlana) dela ikasgelarenak dela zenbait ikasle edo ikasle talde jakin batzuenak, asko baldintzatzen du nola hautematen den, nola komunikatzen den, zer jarrera hartzen den eta zer orientazio ematen zaion lanari:

- * **Pertzepzio okerrak** oso maiz izaten dira gatazketan, eta askotan hasierako sorreraren osagai izaten dira: “Besteren begian lastoa ikustea”, aurkariaren jarrerak eta motibazioak ez ezagutzea, “bitariko araua” erabiltzea (nigan bertutea dena bestearengan akatsa da...), bestearen irudi estereotipatu edo sobera sinplifikatuak itxuratzea...
- * Gatazkako alderdien arteko **komunikazioak** oso ezaugarri desberdinak ditu aipatu lau erreakzio estiloetan. Lehiaketa ereduari, adibidez, komunikazio prozesua eskasa izaten da, informazio distorsionatua trukutzen da, konpromiso faltsuak hartzen dira eta adostea oso zail bihurtzen da. Elkarlan ereduari, berriz, komunikazioa frankoa da, informazioa ardurakoa izaten da eta entzute aktiboa egiten da...
 Bai hitzezko nola hitzik gabeko komunikazioek ikasgelako harremanak markatzen dituzte. Gure ikasleen komunikazio trebetasunak landu behar ditugu; bai gureak ere, ordea, zeren haien mende dago, hein handi batean, ikasgelan lasaitasun edo asaldura giroa egotea. Behin gatazka garatu denean, orduan ere komunikazioa osagai klabea izan daiteke hari lasai aurre egiteko, gatazkako alderdien arteko elkarrizketa eta entzute aktiboa bultzatuz.
- * Ikasleen jarrerak asko aldatzen dira erreakzio estilo batetik edo beste batetik jokatzeko dugun. Jarrera agresiboak, arbuiozkoak, ihes-ekiditekoak, talka egitekoak edo errespetuzkoak, denetarik egonen da segur aski gure ikasleengan eta markatu eginen dute nola aurre egiten dieten gatazkei. Jarrerak aldatzea ez da erraza geure kode afektibo-emozionalean iraririk egoten baitira; hala ere, haiek agerraraztea eta besteen lekuan jartzera bultzatzea, lagungarri dira jarrera horiek pixkanaka modulatzeko, edo, gutxienez, haien adierazpide gogorrenak eztitzeko.
- * **Lanaren aurrean hartzen den orientazioak** ere oso eskema desberdinak hartzen ditu ikasleen erreakzio estiloa zein den. Ekidite eta ihes eskemen arabera jokatzeko dutenek ez diote arazoari aurre egin nahi izaten edo beste alternatiba batzuk aurkitzen dituzte, haiek ere aurre egin ezinak; lehiaketa zaleek, berriz inposaketara eta pertsonen arteko talkara jotzen dute, ebazpideak bilatzen saiatu beharrean; egokitze zaleek besteei asebidetako emateko joera izaten dute, esku artean dugunarekin zer ere gerta... Nork bere lanean zer orientazio hartzen duen, argi agertzen ditu hor zer jarrera eta zer esperientzia dituzten autolehiaketan. Horren gainean eginen dugun esku-hartzearen helburua izanen da arrakasta erraztea, hartarako helburu errealistak proposatuz eta haietara iristeko behar den laguntza emanaz.

8.3. Gatazkei modu eraikitzailean aurre egin. Bitartekotza

Maizenik izaten diren pertsonen arteko gatazkek gai hauen ingurukoak izaten dira:

- Berdinen arteko harremanak.
- Ezarritako arauak ez betetzea.
- Irakasleen autoritateari gogor egitea.

Gatazka bat sortu denean, ez dugu inoiz entzungogor egingo eta beste alde batera begiratuko. Gatazka bati aurre egin ezean, garabidean hasiko da eta luzera begira arazo gehiago ekarriko ditu hasietatik lantzen denean baino. Modu asko daude gatazka bati aurre egiteko. Hona ohikoenak:

→ **Ekiditea:** Gatazka ez da azaleratzen. Isildu egiten da edo menpeko jarrera batean gelditzen da.

- **Ezabatzea:** Alderdietako batek atzera egiten du edo utzi egiten du.
- **Zapaltzea:** Gutxiengo eta gehiengoaren arteko zatiketa sortzen da. Boterearen erabilera. Tentsioak.
- **Men egitea:** Gutxiengoak gehiengoaren edo boterearen desirari men egiten dio.
- **Ituntzea:** Gatazka izoztu egiten da, behin-behineko itun bat jarrita, helburu komun batzuen arabera.
- **Negoiazioa:** Bi alderdiek irabazle eta galtzaile ateratzen dira, % 50 batean.
- **Adostea:** Bi alderdiek %100ean irabazten dute; ebazpide berria bilatzea esan nahi du.
- **Arbitratzea:** Bi alderdiek arbitro baten menpe jartzen dira eta haren erabakia onartzen.
- **Bitartekotza:** Bitarteko batek gatazkak konpontzeko prozesua katalizatzen du.

Pentsatzekoa denez, negoziazioa, adostasuna, arbitratzea eta bitartekotza dira hezkuntzaren ikuspuntutik prozesu gomendagarrienak, haietan ikasleek beste alderdia baloratzen ikasten baitute eta haien ikuspuntuak kontuan hartzen. Joan den aspaldian hainbat autorek beren lan proposamenak egin izan dituzte eskolaren testuinguruko gatazkei aurre egiteko, denak ere txit xehetuak eta konplexuak; gure ustez, ordea, gatazkari, behar den denbora eman behar zaio, eta ez dago beharrik programa askok proposatzen dituzten kontzientzia-hartze, definitze, aztertze, baloratze eta halako jardueri ekiteko. Gatazka txikiei proportzioz eginen zaie aurre, arazo handi bihurtu gabe eta denbora eta lan gehiegi haiei dedikatu gabe; horretarako, honako protokoloa segitzea proposatzen dugu:

1. **Lasaitasuna:** Gatazkan diren pertsona edo taldeekin lan egin baino lehen, bi alderdiak lasai egotea lortu behar dugu. Eta zerbait denbora itxaron behar bada, hala beharko du. Jarduera erlaxagarriren batez distraitzea komeni bada (buelta bat eman, kafe bat hartu eta abar), hala eginen da.
2. **Inguruaren kokaera:** Kasuko gatazka bi edo hiru pertsonaren artekoa bada, toki lasai bat bilatuko dugu. Besteen begiradetatik bazter, eta elkarrengandik gertu eseriko ditugu pertsonak. Zu ere haiekin eseri. Gatazka ikasgela osoarena edo talde zabal batena bada, aulkiak borobilean jarri eta denok elkar ongi ikusteko moduan eser zaitezte, inor nabarmen gelditu gabe. Oinarrizko printzipioa da gatazka jendaurrean gertatu bada, jendaurrean egin behar zaiola aurre (ikasgela osoa, adibidez); arazoa pertsonen artean eta pribatuan gertatu bada, pribatuan eginen zaio aurre.
3. **Ataza eta arauak:** Arazo bat dugu (aipatu arazoa). Denen artean modu eraikitzailean aurre egiten saiatuko gara.
 - Denok hitz egin dezakegu eta denok entzun behar dugu.
 - Iritzi guztiak balio berekoak dira.
 - Oihuak eta irainak debeku dira.
 - Adostasun batera irristen bagara, idatziz jarriko dugu, baita sinatuko ere (hala behar izaten bada).
4. **Prozedura:** Bi pertsonaren arteko gatazketan, galdetu ea zu aurrean egotea nahi duten edo beste moderatzaile bat (ikaslea, edo irakaslea) nahiago duten. Talde gatazka bada, esaiezu zu (edo hartan trebe den ikasle bat) izanen zarela moderatzailea. Hitz egiteko denbora zuk arautuko duzu eta hitza bai emateko bai kentzeko ahalmena duzu. Arazoa zurekin izan bada... bila ezazu beste norbait moderatzaile papera emateko.

Azal ezazu zenbat saio aurreikusten duzun (gehienez hiru: Aurkezpena-ebazpena-ebaluzioa) eman beharko zaizkiola arazoari.

- 5. Arazoa zein den antz ematea:** Deskriba ezazue arazoa adiskide bati kontatuko bazeniot bezala.

Zein da arazoa?

Zer sentimendu dituzu?

Zure ustez zer sentimendu dituzte besteek?

Zer pentsatu zenuen momentu hartan?

Zure ustez, zer pentsatu zuten beste pertsonak?

- 6. Helburuak zehaztea:** Zer helburu iritsi nahi ditugun.

Zein litzateke gaur ahotan daukagun arazoarekin iritsi nahi zenuketen egoerarik hoberena?

- 7. Ebazpideak bilatzea:** Zer egin daitekeen arazoa konpontzen saiatzeko:

Zer egin dezakezu zuk? Zer ekarpen egin dezakezu arazoa konpontzeko?

Zer gomendatuko zenioke besteari (edo besteei) egiteko?

- 8. Ondorioei aurre hartzea:** Aurreikus, aztertu eta baloratu zure egintzetatik eta besteenetatik zer ondorio etor daitezkeen.

Egin dezakedala esan dudana eginez gero, zer gertatuko da?

Beste pertsonak edo taldeak esan dutena egiten badute, zer gerta daiteke?

Zuretzat aldaketa horiek zer on-gaitz izanen dituzte?

Zer on-gaitz izanen dituzte beste pertsona edo taldearentzat?

- 9. Erabaki bat hartu. Konpromiso batera iritsi.** Ebazpide guztiak baloratu ondoren erabaki bat hartu eta konpromiso batera iritsi behar duzue.

Ebazpide hori eragingarria izanen da?

Zure ustez arazoa konponduko du edo arazo berriak sortuko?

Ebazpide justua da?

Nola sentituko naiz?

Nola sentituko da beste pertsona edo taldea?

- 10. Konpromisoa gauzatu eta ebaluatzea.** Pausoz pauso, zer egingen den planifikatu, eta zer oztopo izan ote daitezkeen aurre hartu.

Nik honako hau egin behar dut:

Zuk (zuek) honako hau egin behar duzue:

Egingen dugun hurrengo bilera egunean izanen da,etan. Han baloratuko dugu gauzak nola doazen. Arazoren bat sortzen bada, esan ezazue eta lehenago egin dezakegu bilera.

BITARTEKOTZA: Gatazkei modu eraikitzailean aurre egiteko beste prozedura bat bitartekotza da. Ikastetxeetan (bereziki bigarren hezkuntzakoetan) Bide orri arrakasta handiz erabili izan da, batzuetan irakasleek erabiliz eta beste batzuetan hartarako prestakuntza hartutako ikasleek. Bitartekoek honako betekizunak bete daitezela bermatu behar dute:

- **Konfidentzialtasuna:** Bitartekoak konpromisoa hartzen du, lagundu nahi dien pertsonen aurrean, bileretan esan eta gertatzen dena erabateko sekretuan edukitzeko.

- **Intimitatea:** Gatazkako alderdiek ez dute ezer esan beharko beren intimitateko gauzak direla uste duten gauzen gainean. Konprometitu egiten dira, hala ere, egiatiak izatera eta zintzoki erantzutera beren mintzakideak beste edozer gauzaren gainean egiten dizkien galderei.
- **Adierazpen askatasuna:** Protagonistak konprometitzen dira esan nahi dutena askatasunez adieraztera. Dena esan daiteke eta dena norberaren bizipenetik adierazi behar da: “Nik sentitzen dut”, “Nik uste dut” edo “Pentsatu nuen”; inoiz ez, ordea: “zuk uste duzu”, “zuk sentitzen duzu” o “zuk uste duzu”.
- **Inpartzialtasuna:** Bitartekoa konprometitu egiten da ez alderdi baten ez eta bestearen alde ez egitera.
Sumatzen bada gatazka bat baino gehiago tratatu txar, jazarpen edo pertsonen arteko edozein indarkeria motaren aurrean gaudela, libre sentituko da horren berri emateko ikastetxeko agintariei, haiek ikus dezaten ea bitartekotza utzi eta beste esku-hartze estrategia bat proposatu behar den.
- **Elkarrizketa konpromisoa:** Protagonistak konprometitu egiten dira lan saioetan beren zailtasunez eta gatazkez mintzatzera, onartuz laguntza eskaintza hori denboran mugatua dela eta norberaren erantzukizuna dela nork bere aldetik ahaleginak egitea egoera konpontzeko.

Merkatuan badira Bigarren Hezkuntzako ikasleak bitartekotzan prestatzeko programak eta makina bat esperientzia arrakastatsu izan dira ikastetxe eta institutuetan. Gure ikastetxean prozedura hori ezarri nahi badugu, ona litzateke horiei begiratu bat ematea.

8.4. Gatazkak antzezten. “Linterna magikoa”

Gatazkei aurrea hartzeko modu bat eta bai gertatu ondoren ere haiei aurre emateko, gatazka ikasgelan antzezte da, ikasleek haren bizipen zuzenekoagoa izan dezaten. **18. ERANSKINEAN** “Linterna magikoa” (165-166. orrialdeak) proposamen bat egiten dugu ikusteko nola eraman daitezkeen ikasgeletara gaurko nerabe eta gazteen bizitzan gerta daitezkeen zenbait gatazka egoera.

Proposamen honetan ikasleak konprometitu egiten dira jarduera diseinatu eta gauzatzera; horrek, printzipioz, bereziki motibatu eta sentikortu behar lituzke ikasleak. Aurrera eramateko, aktore-casting bat egin behar da ikasleen artean eta bai eta teknikari casting bat ere (zuzendaria, klaketista, argitzailea, gidoigileak).

Teknikari eta aktore horiek, behin gaia aukeratu ondoren, obra bakoitza eta haren galdetegiak diseinatzeko ardura hartuko dute, eta entseguak, antzeztaldeak eta grabazioak egiteko. Adibidetzat, gerok egindako hiru eredu eskaintzen dira, honako tituluokin: “Zakurtaldea eta sagua” (167-170. orrialdeak), “Etsai mamiak” (171-174. orrialdeak) eta “Maitasuna airean dago” (175-178. orrialdeak).

Jarduerak hiru fase ditu:

LEHENBIZIKOA: Ikasgelan lehendik diseinatu den obra antzezte.

BIGARRENA: Hiru ikusleko taldeek galdetegi bati erantzutea.

HIRUGARRENA: Galdetegiak komunean jarri eta azken buruko ondorioak ateratzea.

LEHENBIZIKO PARTEKO ERANSKINEN ZERRENDA

Zk.	TRESNA-ERREGISTROA	ORRIALDEAK
1	Portaera disruptibo eta desegokituaren taldean aztertzea	115-116
2	Neure irakaslanaz gogoeta egiteko galdetegia	117-119
3	Norbere irakasle eginkizunen gaineko hautematea	120-121
4	Ikasgela kudeatu eta antolatzeko estrategien hautematea	122-123
5	Irakasteko estrategien hautematea	115-117
6	Egindako irakaslanaren gaineko ikasleendako galdetegia	127-128
7	Eskolako giroari buruzko galdetegia (1) Banakako erantzuna	129-132
	Eskola giroari buruzko galdetegia (2) Erantzunen laburpena	133-136
8	“Irakurketa dialogikoak”	137
9	Konfidentziasun konpromisoak	138
10	Dilemen gaineko talde lana	139-142
11	Taldeak eratzeko fasean erregistratu beharreko datuak	143-144
12	“Adiskideak egiten” proba soziometrikoa	
13	Lehen egunetako datuak hauteman eta erregistratzea	146-147
14	Ikasgelako arauak ezartzen. 1. jarduera	148-156
15	Ikasgelako arauak ezartzen. 2. jarduera	157-161
16	Ikasgelako arauak ezartzen. 3. jarduera	162-163
17	Konpromiso pertsonala	164
18	“Linterna magikoa”	165-166
	“Zakurtaldea eta sagua”	167-170
	“Etsai mamiak”	171-174
	“Maitasuna airean dago”	175-178

2. PARTIE

IKASGELAKO PORTAERA NOLA ARAUTU

"Gaurko gazteek luxua maite dute. Gaizki heziak dira, autoritatea mespretxatzen dute, ez dituzte bere nagusiak errespetatzen eta lan egin beharrea berrikerian aritzen dira. Gazteak ez dira jada zutitzen nagusiak gelara sartzen direnean. Kontra egiten diete gurasoei, harrokerian ibiltzen dira jendartearen, mahaian postreak zerriak bezala irensten dituzte, hankak gurutzatzen dituzte eta beren maisuak esklabotzen".

Sokrates (duela 24 mende baino gehiago)

1. ABIABURUKO OSAGIAK

Ezin oroitu ahala aspalditik gertatzen da, eta beti berdin... Lehenbiziko partean aipatu diren prebentzio neurri horietako asko praktikan jarrita ere, oraindik topatuko ditugu gure ikasgeletan, duda arrastorik gabe, portaera trakets, desegoki, gogaikarri eta disruptiboak dituzten ikasleak. Portaera horiek, bizikidetzaz izugarri trabatu ez ezik, hezkuntza komunitatearentzat estres iturririk handienetako bat ere izaten dira, irakasleei eragiten dietelako, ahalegin handia egin behar baitute haiek kontrolatzeko, eta bai beste ikasleei ere, haiek zuzenean sufritzen baititu ikasgeletan.

Portaera disruptiboekin esku hartzeko erabil daitezkeen estrategiak, portaerak eta tresnak jorrazten hasi baino lehen, azter ditzagun portaera horien zenbait osagai ezaugarritzko:

1.1. Portaera disruptiboaren jatorria


Aurrena, esan dezagun portaera disruptiboaren jatorria askotarikoa eta aldakorra izaten dela:

- * Azpian dagoen nahasmendu psikiatriko baten sintoma izan daiteke soilik edo/eta nahasmendu horren tratamenduarena.
- * Edo portaera-“fenotipo” baten agerraldia (AFN-H, EUN, Dibertsitate funtzionala...).
- * Edo gizarte eta komunikazio gaitasunen eskastasun batetik etor daiteke.
- * Edo ikasleak gizarte inguru desegoki, kontraesankor, kanpo-uztaile edo agresibo batean izandako esperientzien emaitza izan daiteke.
- * Edo, besterik gabe, nahiaren gainekoa izan daiteke, onuraren bat irabazi beharrez egina (aurrerago ikusiko dugun bezala) nahiz onura ez beti bistan egon.

Portaera disruptiboa duen ikaslearen inguruabar pertsonalak bereiztea ez da hutsaren hurrengo kontua; informazio horri esker, irizpide batzuk izanen ditugu modu doituagoan, ekitatiboagoan eta profesionalagoan jokatzeko; gauza oso jakina da portaera disruptiboa ageri duten ikasle guztiak portaera horren erantzule badira ere, denak dira, ordea, errudunak.

Imajina, ditzagun, adibidez, bi ikasle: Batak hiperaktibitate arazoa du, eta besteak ez. Biek motrizitate portaera gehiegizkoak eta gogaikarriak ageri dituzte ikasgelan (zutitzen dira, mugitzen, bolaluma-rekin endredatzen aritzen, gauzak erortzen zaizkie...). Lehenbiziko ikasleak ez du bere portaeraren errurik, ez baitu nahita hala jokatzeko, portaera hori bere burua kontrolatzeko jatorri neurologikoko zailtasunetatik baitator: Bigarrenak, berriz, nahiaren gainean jokatzeko du horrela. Gure esku-hartzea bat bera izanen ote da bi kasuetan? Gure ikuspuntuan, biei ala biei erakutsi behar zaie arauak hausten ari direla eta ikasgelaren garapen normala tratatzen (horretara, erantzunbeharra beren gain hartzea bultzatzen ditugu), biei laguntza eman behar diegu portaera hori aldarazteko, baina zigor neurriak, aldiz, bigarrenarekin bakarrik hartuko genituzke (zuzentzen ez bada). Gai honen inguruan ikasleek eta bai familiek ere batzuetan tratu berdintasunaren gaineko erreklamazioak egin ohi dituzte: Zergatik, portaera berdinen aurrean, esku-hartzea desberdina da? Erantzunaren gakoa abia-buruko egoera desberdinak dira, ikasgelara bakoitzak dakarren "bagaje" desberdina, alegia. Halako arazoak, pertsonalizatu beharrean, arrazoitu beharrekoak dira, eta kurtsoko lehen asteetatik argitu beharrekoak. Metaforatzat erabil daiteke nola proba atletikoetan ere ez zaien gauza bera eskatzen ezgaitasun fisikoa duten pertsonari, erraz ulertzeko moduko argudioa baita.

Gure ikasleen zerrendan haiek izan ditzaketen nahasmendu edo arazo pertsonal, sozial nahiz familiarikoen gaineko informazioa egon behar da. Datu horiek sekreturik handienez jaso eta gorde behar dira eta ikaslearen ezaugarrietan oinarritutako esku-hartzeak bermatzeko baizik ez dira erabiliko.




1.2. Portaera disruptiboaren testuingurua

Beste alde batetik, gure ustez, giza portaerak es dira hutsean gertatzen; aldiz, beti gizarte testuinguru batean gertatzen dira. Portaera gizarte egintza da, zeinak, behin gertatuz gero, ezinbestean eta halabeharrez erantzun bat pizten duen bestearengan edo besteengan. **EKINTZA-ERREAKZIOA** egitura da, gure analisisetan funtsezkotzat jotzen duguna..



Ildo beretik, ikuspuntu sistemiko batetik (ikus: *Ebazpideak ardatz dituen terapia eta Terapia Sistemiko laburra*) gertaerak eta haien protagonistak “berrelikatze prozesuetan” antolatuz egoten direla juzgatzen da (Keeney, 1983), halatan non sistemako osagaiaren batean aldaketa bat sartzen badugu, aldaketa horrek nahitaez beste guztiei eraginen dien (borobil itxurako kausalitatea).

Elkarreragin horrek berebiziko garrantzia du esku-hartze terapeutikorako edo hezkuntza esku-hartzerako, bide ematen baitigu esku-hartzearen ardatza osagai batean edo gehiagotan ezartzeko eta estrategia bat edo bat baino gehiago erabiltzeko: Arazoaren kondizioak aldarazten saiatzea edo ebazpideak indartuz lan egitea:



Portaera disruptiboa (EKINTZA) eta hura eragiten duen pertsona dira gure lanaren ardatzetako bat; horren gainean ekinen dugu hura bideratzen, eztatzen edo suntsitzen saiatuz (dotrina pedagogiko askok hartu dute aintzat, haietako batzuk modu eskusibo eta eskluente batean, ikus, adibidez, Portaeraren Aldaketa-tik egindako proposamenak). Beste ardatza, ordea, gizarte ingurunetik eta haien protagonistengandik jasotzen dituen ERANTZUNAK dira.

Ikuspuntu horretatik ez da zertan portaeraren arazoak edo hura moldatu duten lehenagoko gertaerak bilatzen ibili; orainean lan egiten da, sisteman erabilgai dauden baliabideek ahalbidetzen dizkiguten ebazpideak bilatuz.

Sistema bat, ordea, zertaz osaturik dago? Ikasgelan, ohartuki edo ohartu gabe, portaera desegokietuei erantzuna ematen dieten pertsonak. Bertan diren guztiak!: Txalo egiten duen ikaslea eta aurpegia aldaratzen duena, irri egiten duena eta beldurra ageri duena, beste aldera begiratzen duen irakaslea, eta sarkasmoz erantzuten duena, erasia egiten duena eta zigorra jartzen duena, partea pasa eta ezer esaten ez duten administrazio eta zerbitzuetako langileak eta arazoarekin konprometitzen direnak. Sistema bateko osagai bakoitzak eman ditzakeen erantzunak asko dira: Batzuk koherenteak, helduak eta hezitzaileak, beste batzuk desegokiak, desproporzionatuak, bidegabeak...

Maiz asko, portaera disruptibo baten aurrean inguruaren erreakzioa portaera bera baino askoz desegokiagoa, kaltegarria edo distorsionagarria da eta, beraz, hari eman beharko zaio lehentasuna gure esku-hartzean. Demagun ikasle batek, irakasleak zerbait galdetu ondoren erantzun desegokia eman duela besteei barre eragiteko asmoz; ikaskide batzuek irri egiten dute, ikasleak iseka egin eta irain egiten diote. Honetan eta antzeko kasuetan, ikasle “barre-eragilea”rekin esku-hartzea ahaztu gabe, arreta berezia emanen diogu modu agresiboan erantzun duten ikasleen portaera zuzentzeari.



Gogoan izan!

Gure esku-hartzearen ardatzak bai portaera disruptiboa izan duen pertsona eta bai hura ikusi, txalotu, arbuiatu edo jasaten dutenak ere hartu behar ditu.

1.3. Portaera motak. Helburuak

Hirugarrenik, aipatu behar dugu giza portaerak beti (oharraren gainean nahiz oharkabeen) asmo bat izaten duela: Abantaila edo onuraren bat ateratzeko egiten da; helburu asko bistakoak dira (boterea eskuratzea, besteen arreta deitzea, gauzak lortzea, mendeku hartzea...), baina beste batzuek oso hautemate fina behar izaten dute haiei erreparatzeko (frustrazioa gainditu, bultzadak deskargatu...).

Helburu horietako batzuk bidezkoak dira, baina haietara iristeko erabilitako portaera, berriz, desegokia (pentsa dezagun, adibidez, gazte bat etengabe jaikitzen dela bere irakaslearen arreta deitzea); kasu horretan, helburua mantendu beharrekoa da, eta gure lana izanen da beste portaera mota bat, eragingarriagoa, helduago eta egokiagoa eskaintzea eta, aldi berean, desegoki hori desageraraztea. Beste helburu batzuk, berriz, bidegabeak dira eta portaera desegoki edo disruptiboekin batera heldu dira (hala nola ikasle batek neska ikaskide bat iraintzen duenean hura beldurtu eta menpean edukitzeko); kasu horretan, portaera agresiboan ez ezik, haren atzean den helburuan ere esku hartu behar dugu, etikoki onartu ezina baita.

1. Taula. Portaera motak eta helburu pertsonalak. “Bagaje pertsonalak”

	PORTAERA EGOKIA	PORTAERA DESEGOKIA
HELBURU ZILEGIZKOA	Testuingururako egoki diren portaerak Portaera proportzionalak Bilakaera momentuari dagozkion portaerak	Testuinguru gabeko portaerak Portaera desproporzionatuak Portaera gogaikarriak Portaera heldugabeak
	Gizarte trebetasun finkatuak Biografia konpentsatuak Egonkortasun afektibo-emozionala	Gizarte trebetasun eskasak Biografia mamigabeak Hauskortasun afektibo-emozionala
HELBURU BIDEGABEA	Portaera sibilinoak Portaera hipokritak Portaera helduegiak	Portaera asaldagarriak Portaera disruptiboak Portaera antisozialak
	Gizarte trebetasun handiak Biografia distortsionatuak Gogortasun afektibo-emozionala	Gizarte trebetasun desegokituak Biografia patologikoak Disfuntzio afektibo-emozionala

Giza portaerak nola diharduen ezagutu eta ulertu nahi bada, ezin ahaztu daiteke pertsona guztiek gizarte trebetasunen “bagaje” bat eta garapen afektibo-emozional jakin bat daukatela, beren bizitzan barna bereganatua. Bagaje horrek markatzen du pertsona horrek zer erreakzio estilo izanen duen eta egoera edo gatazka berriei aurre egiteko zer zailtasun edo erraztasun izanen dituen. Portaera disruptiboa ageri duen ikaslearen bizitza eta trebetasun ikasiak sakonki ezagutzea ezinbestekoa da gure esku-hartzeak testuingururako egokiak, doituak eta eragingarriak izanen badira. Era berean, ikasle batek ageri dituen portaeren atzean zer helburu izkututzen den finkatzea funtsezkoa izaten da esku-hartze prozedurak hautatzeko: Arreta-deitzei aurre egiteko, ez zaie kasurik eginen eta beste modu helduago eta egokiago batzuk emanen zaizkie ordainez; gizarte arauen arbuatzea eta gaitzeste aktiboa, berriz, ondorioak aplikatuz eta gizarte trebetasunetan entrenatuz, errefortzu diferentzialaz, gainzuzenketaz, fitxen ekonomiazko prozedurez eta abarrez konponduko dira. Portaera baten helburua ezin badugu argiro zehaztu, kontraesanean eta kontra-eraginean esku-hartzeko arriskua izan daiteke (adibidez, gazte bati arreta gehiago emanaz haren portaera desegokiak eskatzen duen baino).

Zenbait egilek berariazko ahaleginak egin izan dituzte helburu horiek aztertzeke, zeinak, haien us-
tez, pertsonen oinarrizko premiei emandako erantzunak besterik ez diren eta beraz portaeraren
abiagarriak diren:

- **Rudolf Dreikursek** bere **“Ondorio logikoen eredua”** lanean, portaera eskema oharkabeak jasotzen ditu, sekuentzietan antolatutak, haiekin batera joaten diren portaerak aldean dituztela:
 1. **Arreta deitzea:** Goresmenak jaso, laguntza lortu, estatusari eutsi...
 2. **Boterea erabiltzea:** Autoritatea usurpatu edo atxikitzea, transgreditzea, kontra egitea...
 3. **Mendekatzea:** Zigortzea, indarkeriaz eta gorrotoz gogaitzea...
 4. **Ezgaitasuna erakustea:** Lana gaitzestea, laguntza eskaera neurrigabea...
- **William Glasserrek** (1998) bere **“Hautespeneren teoria”** lanean, baieztatzen du ikasleen premia lehenetsiak hauek direla:
 1. **Harremanak** ezartzea ikaskide eta irakasleekin.
 2. **Ikasketan arrakastan** izatea.
 3. Bizilekuko **testuinguruan eragina** izatea.
 4. Elkarlana eta kooperazioa behar dituzten **proiektu komunetan parte hartzea**.
- Beste zenbait egilek (**Topper...**) beste premia-taxonomia batzuk jasotzen dituzte:
 1. **Arreta pertsonala**.
 2. Egoera eta gertaera estresagarrietatik **ihes edo itzuri** egitea.
 3. Besteen gaineko **kontrola hartzea**.
 4. **Mendeku** gogoa ase eta **haserreari** bide ematea.
 5. **Norbere buruaren autonomia eta kontrola hartzea**.
 6. **Dibertitu** eta jostatzea.

Egile hauek diotenez, oinarrizko premia/eskema hauek nola edo hala asetzen ez badira, ikasleek gero eta gehiagoko portaera-eskalada bat sortuko dute haiek erdiesteko. Egoera horretan, ikasleek behar adinako heldutasuna ez badute edo behar bezalako eredurik ez badute edo pertsonen arteko harremanetarako berariazko trebetasunak ez badituzte, oso litekeena da portaera horiek agresiboak, desegokituak, disruptiboak edo, gutxienean, desegokiak izatea.

Ikasleen interes, motibazio eta premien gaineko informazioa eskuratzeko, gutxitan erabiltzen den baina oso baliagarria den prozedura bat da haiei beraiei galdetzea. Lan hori errazteko, **19. ERANSKI-NEAN** “**HPBen interesen eta espektatiben autopertzepzio galdetegia**” (181-182. orrialdea) tresna bat eskaintzen dugu datu horiek lan gutxierekin eskuratzeko aukera emanen diguna.



Gogoan izan!

Pertsona batek portaera disruptiboa zergatik duen jakiteko, komeni da haren “bagajea” erreparatu eta haren premia eta helburuak aztertzea.

2. PORTAERAN NOLA ESKU HARTU

2.1. Esku-hartzea arautzeko printzipioak

Portaera disruptiboak gertatzen direnean, ikasgelan inolako esku-hartzerik egin baino lehen, argi utzi behar dugu zer irizpidetan oinarrituko dugun esku-hartze hori. Oinarritzko printzipio horiek ETIKAREN, TEKNIKAREN eta ENPATIAREN arloei dagokie. Zein ere neurri edo programa jarriko baitugu abian, denak printzipio horien zetabetik pasatu beharko dira:

PRINTZIO ETIKOAK
<p>Etikak gure ekintza guzti-guztietan egon behar du; haren bidez errespetuzkoak, justuak eta tratu berdinezaleak izanen gara. Haren bidez gure ikasleei eredu imitagarriak eskainiko dizkiegu. Printzipio etikoak honako galdera hauek egitera eramanen gaitu:</p>
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gure ekintzek pertsonaren oinarritzko eskubideak bermatzen al dituzte? ■ Gure esku-hartzearekin gure ikasleen eta bai geronen ongizate emozional, material eta fisikoa bilatzen al dugu? ■ Pertsonen arteko harreman osasuntsu, heldu eta arrakastatsuak sustatzen ari gara? ■ Gure esku-hartzearekin garapen pertsonala, hazkuntza eta gizarte eta komunikazio trebetasunak bultzatzen ditugu? ■ Gure programen eta esku-hartzeen helburua gizarte inklusiorako eta autodeterminaziorako gaitasunak garatzea da?
PRINTZIO TEKNIKOAK
<p>Dugun bagaje profesionala ez da soilik eman behar dugun irakasgaiaren eta hura irakasteko gaitasunaren ezagutza ona; gehiago da: Zer trebetasun ditugun ikasleen arteko elkarreraginak arautzeko, lanetara moldatzeko eta gatazkei aurre egiteko. Trebetasun profesional eta teknikoiei dagokienez, honako galderak egingen dizkiogu gure buruari:</p>
<ul style="list-style-type: none"> ■ Ba al dugu geure proposamen teoriko propio bat eta hura erabiltzen al dugu programa psikopedagogikoak eta ikasgelako esku-hartzeak diseinatzeko? ■ Bultzatzen al dugu gure trebetasun profesionalen hobekuntza (didaktikoak eta sozialak), hartarako programa, tresna eta protokolo eragingarriak erabiliz eta horiek gure irakaskideekin erkatuz eta aldiari aldiari ebaluatuz? ■ Zenbateko erresilientzia dugu eta zenbateko gaitasuna ikasgelako aldaketak maneiatzeko?
ENPATIA PRINTZIOAK
<p>Gauzak lagun urkoaren ikuspuntutik begiratu eta horren arabera jokatzeko gaitasuna da norberaren eta gizartearen hazkuntza errazten duten motorretako bat. Printzipio honi dagokienez, honako galderak egingen ditugu:</p>
<ul style="list-style-type: none"> ■ Aintzat hartzen al dugu gure prestakuntza pertsonal eta profesionalean gizarte trebetasunak eta talde dinamikakoak ere garatu beharra? ■ Ba al dakigu zenbateko garrantzia duen ikasleen hazkuntza pertsonal eta sozialerako gu garapen eta erreferentzia tutore bihurtu eta hala jokatzeko? ■ Errespetuz, ekitatez, hurbiltasunez eta erraztu beharrez ari al gara?



Gogoan izan!

Etika, Teknika eta Enpatia dira gure esku-hartze eta programa guztiak kalibratzeko erabili beharreko zetabeak.

2.2. Oinarri teorikoak

Edozein arlotako profesional jantziak (kimika, ingeniariaritz, filosofia, hizkuntzalaritza...) hauxe du ezaugarri: Hasieratik bere ezagutza arloan dauden teoretiko bat hautatu duela. Teoria hautatze honi esker, eta hura oinarri, gai dira produktu edo ideiak iritsi, diseinatu eta sortzeko.

Eskola psikopedagogiko bakoitzak bere ikuspuntu bereziak ekartzen ditu portaera disruptiboaren kontrolari dagokionez, eta ikasgelako harremanak arautu beharri dagokionez. Hurbilketa teoriko horiek oso desberdinak eta askotan elkarren kontrakoak dira: Egile batzuek aldeztu dute irakasleek ikasleen gainean kontrol handia eta zorrotza eduki behar dutela; beste batzuek, berriz, ahal denik eta autonomiarik handiena eman behar zaiela, hartara beren burua erregulatzeko eta kudeatzeko gaitasunak garatu ditzaten. Gainbegira ditzagun, bada, teoria horietako batzuk (haietan sakontzea lan honen helburuez eta ahalmenez harantzago baitago; informazio gehiago nahi edo behar duenak merkatuan diren eskuliburueta jo behar du):

■ KONTROL TEORIAK:

Teoria horiek irakasleek esku-hartze zuzentzaile bat egin dezaten gomendatzen dute. Hona haie-tako ezagunenak:

1. Portaeraren aldaketa
2. Diziiplina Asertiboa (Lee Canter)
3. Eredu Estrategikoa (Fredric H. Jones)

ONAK	GAITZAK
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Denak aplikatzeko errazak dira eta arauak, rolak eta estrategiak argi uzten dituzte. ✓ Portaeraren aldaketan emaitzak berehala iristen dira eta edonorekin eta edonon aplika daiteke. ✓ Diziiplina Asertiboak eta Eredu Estrategikoak beste onura bat ere badute: Gurasoek eta Zuzendaritza Taldeak ere aplikatu daaketela. 	<ul style="list-style-type: none"> ✗ Kontrola ardatz duten teorioren gaitz nagusiak dira, aurrenik, denek portaeraren faktore azpikoak gutxiesten dituztela, eta, bigarrenik, ez dutela norberaren autonomia eta motibazioa bultzatzen. ✗ Portaeraren Aldaketa delakoak, bestalde, oso emaitza aldakorak izaten ditu eta errefortzu lan handia behar izaten du. ✗ Diziiplina Asertiboak, berriz, zigorrak ezartzetik eta zigorraren eta errefortzuaren proportzio zailtetik datozen zailtasunak ditu. ✗ Eredu Estrategikoak, bestalde, larderia sor dezake eta erreakzio bortitzak piztu ditzake, batez ere autokontrol txarra duten ikasleen kasuan.

■ **LIDERGO TEORIAK:**

Hurbilketa teoriko hauek aldezen dute ikasgelaren eta ikasgela barruko elkarreraginen kontrola pixkanaka ikasleei berei eskualdatu behar zaiela.

1. Diziplina Zentzuduna (Forrest Gathercoal)

2. Hautaeraren teoria (William Glasser)

3. Ondorio logikoak (R. Dreikurs)

ONAK	GAITZAK
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Prebentziorako estrategiak ekartzen dituzte. ✓ Portaeraren azpiko faktoreak aintzat hartzen dituzte. ✓ Autorregulazioa eta autonomia sustatzen dituzte. ✓ Diziplina zentzuduna egokia da ikastetxeetarako. ✓ Hautaeraren eta Ondorio Logikoen teoriak premia pertsonalak asetzen laguntzen dute. 	<ul style="list-style-type: none"> ✗ Teoria hauek guztiek ikasleen aldetik autokontzientzia, automugatze eta introspekzio maila zerbait behar izaten dute. ✗ Proposamen mota honetan, maiz gertatzen da irakasleei kosta egiten zaiela kontrola eskutik uztea. ✗ Emaitzak luzakorrak dira, epe luzera agertzen dira. ✗ Irakasleen aldetik estrategia hauen erabileran lehendikako prestakuntza maila ona behar izaten da.

■ **TEORIA HOLISTIKOAK:**

Teoriak hauen ustez, giza portaera harreman sistema baten barrenean agertzen da, sistema globala eta integratua, zeinean haren osagai batek sortzen dituen gertaerak edo aldaketek gainerako guztietan aldaketak eta mudapenak dakartzaten.


1. Konstruktibismoa.

2. Terapia Sistemikoa: Ebazpideak ardatz dituen terapia. Terapia Sistemiko laburra.

ONAK	GAITZAK
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Portaera, borobil itxurako kausalitatea duen sistema baten testuinguruan kokatzen dute. Aski izanen da, beraz, osagai bat aldatzea sistema osoa aldarazteko. ✓ Teoria honen ustez, bai ikasleak bai gainerako pertsonak (gurasoek, irakasleek...) badituzte behar adina baliabide ikaspenak eta hobekuntzak egiteko. ✓ Orainaldian jartzen dute ardatza eta ebazpide errealistak bilatzen dituzte sistemako osagaiak nola dauden oinarri harturik. ✓ Auto-arautzea eta autonomia bultzatzen dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> ✗ Estrategia pedagogiko edo/ta terapeutikoan prestakuntza maila handia behar dute. ✗ Zenbait tratamendu terapeutiko hezkuntzako profesionalen gaitasunez haratago daude eta kanpoko lantaldeak behar dituzte (berariazko ekipoak, kabineteak...) ✗ Zaila da inguruan nagusi den arau-zaletasunari ihes egitea (ikaslea arau batekin erkatu eta hartarantz hurbiltzea).

Ez da maiz gertatzen irakasleek proposamen psikopedagogiko eta terapeutiko desberdinen onurak eta efikazia ezagutzea eta are bakanago haien gainean taldean gogoeta egitea, baina gure ustez lan horrek kalitatea ematen dio irakaslanari. Irakasle talde batek, bere ikasgelan gatazka eta portaera disruptiboak agertzeari aurrea hartu nahi badio, hainbat estrategia eta prozedura diseinatu, adostu, trebatu eta prestik eduki beharko ditu, haien efikazia lehendik egiaztatuta. Lan honek honako faseak izan behar lituzke:

1. Proposamen teoriko desberdinetan sakontzea
2. Proposamen bakoitzak gure izaera eta jokaerarekin zer kointzidentzia dituen baloratzea.
3. Norberaren autonomia era erantzunbeharra zenbateraino bultzatzen duten juzgatzea.
4. Haien proposamenak, estrategiak eta prozedurak eragingarriak eta ikasteko zein aplikatzeko errazak ote diren baloratzea.
5. Gure lantokian ditugun pertsona motarekin aplikatzeko modukoak diren baloratzea (mailak, adina...).
6. Aztertzea haien prebentzio proposamenak zenbateraino diren funtsatuak.
7. Gehien gogobetetzen gaituzten alternatibak hautatzea.
8. Aprobetxatzeko modukoak iruditzen zaizkigun teknika eta estrategiak hautatzea.
9. Irakasle taldeari zein proposamen hautatu den adierazi, erabili eta baloratzea.



2.3. Ikasgeletako portaerarako ardurako diren kasuistikak

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek sei eta hamasei urte bitarteko biztanleria osoa hartzen dute, ikasgelan edo ikasgela berezietan eskolatzen direnak salbu. Biztanleria horretan oso baldintza familiar, sozial edo pertsonal banako ikasleak egoten dira. Ikasleen bizitza sozial, familiar eta akademikoa gehien trabatzen duten arazo pertsonalen artean, hauek ditugu: Sindromeak, gaitz eta nahasmendu neurologikoak eta hainbat esperientzia eta abusu. Gu orain ardurakoaren direla iruditzen zaigunetara mugatuko gara, haur eta gazteen artean prebalentzia handia dutelako, sintoma eta esku-hartze mota bereizgarriak ageri dituztelako edo ikasgelan distorsio handia sortzen dutelako. Honako hauek dira: Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak (PAN), Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmenduak (AEN), Espektru Autistaren Nahasmenduak (EAN) eta Piztaldi Psikotikoak. Oso esanguratsuak direlako, kapitulu honen bukaeran jorratuko ditugu, halaber, portaera agresiboak eta osasun fisiko zein psikikorako kaltegarri diren sustantzien kontsumoa ere.

2.3.1. Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak (PAN)

Portaera Asaldatzailearen Nahasmendua haur eta gazteen artean prebalentzia handienetakoa duten taxonomia psikiatrikoetako bat dira. Halako nahasmenduak dituzten pertsonak arreta-falta, jauzkortasuna, hiperaktibitatea, kontra-joera eta desobedientzia, probokazioa, agresibitatea eta arau-hauste aktiboa bezalako portaerak ageri dituzte.

Arlo diagnostiko honetan, honako motak bereizi ohi dira, larritasun hurrenkeran jarrita: Zehaztu gabeko Portaera Asaldatzailearen Nahasmendua (zgPAN), Arreta-faltaren nahasmendua (AFN), Arreta-faltaren nahasmendua Hiperaktibitatearekin (AFN-H), Erronka Ukakorren Nahasmendua (EUN) eta Nahasmendu Disoziala (ND).

PAN nagusien oinarritzko definizioak	
F90-91-92 (AFN, NDH, AFN-H)	Arreta faltaren edo Hiperaktibitate-Jauzkortasun patroia jarraikiak, prozeduraren jardunbidea edo garapena trabatzen dutenak.
F91.3 (EUN)	Portaera ukakorreko patroia, etsaia eta erronkazalea, gutxienez sei hilabetetan.
F91.8 (ND)	Portaera asozial, agresibo edo erronkazalearen patroia errepikatua.

PAN hauek, ikasleen artean prebalentzia handia edukitzeaz gaine, estres iturririk handienetakoa bat izaten dira hezkuntza komunitatearentzat, ikasgeletan gertatzen diren gatazka larri askotan osagai nagusia izaten baitira. Larritasun hurrenkeran jarri baditugu ere, ezin ezkutatu daiteke haietako bakoitza, según eta zenbat sintoma aurkezten dituen eta horiek zenbatero eta zeinen bortizki agertzen diren, noiz larriago noiz arinago agertu daitekeela eta, beraz, segur aski ez ditugula diagnostiko bereko bi kasu berdina aurkituko.

■ DIAGNOSTIKOAREN ARAZOA:

Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduen arloan diagnostikoa izaten da garrantzi handiko kontua. CIE-10 delakoak (Eritasunen Kalifikazio Nazioartekoa, 10. edizioa) eta DSM delakoak (*Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*) bere bertsio berrienean nahasmendu mota bakoitzaren oinarritzko sintomak eta diagnostiko irizpideak ezartzen dituzte.

Guk orain besterik gabe seinatu eginen dugu zein irizpide diren diagnostiko prozesuan oso ardurakoak eta ezinbestekoak, nahiz eta, askotan, bazter utzi ohi diren. Hurrengo taulan ageri denez, irizpide horien ezaugarria da PAN mota guztietarako komunak direla.

Nahitaez bete beharreko diagnostiko irizpideak Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak diagnostikatzeko	
1.	Portaera patroia iraunkorrek eta errepikatuak .
2.	Gutxieneko irizpide kopuru bat betetzea (portaera sintomatikoak) (3, 4, 6...)
3.	Sintomak adin jakin bat bete baino lehen agertzen dira (6 urte, 12 urte...)
4.	Denboran luzatzen dira (3, 6, 12 hilabete baino gehiago)
5.	Laneko, gizarteko, eskolako eta norberaren bizitzako jardunbidea trabatzen dute .
6.	Sintomeak pertsonaren jokabideko bi edo gehiago jokaera-arlotan agertzen dira.
7.	Sintomak ez dira beste nahasmendu psikiatriko batetik heldu edo haren bidez esplikatu.

Diagnostikoaren prozesuan zazpi irizpide hauek guzti-guztiak aintzat hartzearen garrantzia hainbestekoa da non haietako bat bete gabe utziz gero, ezin litzatekeen diagnostikoa eman. Irizpide hauetako batzuetarako, hautemate prozesu sistematikoak abiatu beharko dira (5, 6) eta beste batzuetan, diskriminazio diferentzialerako bide ematen duten protokolo eta tresnak erabili (7).

Diagnostikoaren prozesuko diskriminatzaile funtsezko bat da ikertzen ari garen pertsonaren portaera bere eite eta egoera bereko (sexuz, gizarte mailaz, arrazaz, familiaz...) diren ikaskideenarekin konparatu behar dela eta konparaburu bien arteko diferentziak esanguratsua izan behar duela bai maiztasunez, bai larritasunez eta bai iraupenez.

Horiek guztiak gogoan harturik, bada, honako faseak segitu behar genituzke diagnostiko prozesu bati ekiten diogunean:

1. Nahasmenduren bat ote dagoen susmatu orduko, dagokion pediarrarengana edo Lehen Laguntzako Unitatera (Ohiko Medikua) jo, 14 urtez goitikoen kasuan.
2. Haur eta Gazteen Adimen Osasuneko unitatera deribatzea.
3. Ikastetxearen eta kasuaren ardura hartu duen espezialistaren arteko elkarlana.
4. Familiaren eta kasuaren ardura hartu duen espezialistaren arteko elkarlana.
5. Diagnostikoa esandako irizpideak hertsiki betez eman.

3 eta 4 faseak oso garrantzitsuak dira diagnostikoaren prozesuan, are gehiago: Ezinbestekoak dira. Haietan, kasuko pertsonak eskolaren eta familiaren testuinguruan agertu duen portaera hauteman eta erregistratu behar da (gogora dezagun arestiko taulan aipatu 6. diagnostiko irizpidea: "Sintomak pertsonaren jokaerako **bi edo gehiago eremutan/testuingurutan agertu edo erasan** egiten dute"), portaera sintomatikoak erregistratzeko eskuragai dauden berariazko galdetegiak erabiliko dira (Connors...). Kontuan harturik diagnostikoa hautemate lan sistematiko hori oinarri egin behar dela, ez da batere gomendagarria (nahiz askotan gertatzen den) diagnostiko bat kasuko "espezialistari" ordu erdiko bisita bat egin ondoren eratzea.

AFN-H da eskola umeen artean prebalentziarik handiena duen nahasmendua eta, agian horregatik, halako "saski-naski" bat izaten da, zeinean bat egiten zuten portaera desadaptatuenak zituzten ikasle askok. Askotan ez gara ohartzen nola etiketak amuak bezalakoak diren, behin azalean ozka eginenez gero, oso zailak ateratzeko. AFN-Hren eremuko diagnostiko akatsak, bereziki, eta oro har PAN guztien eremukoak, aski maiz izaten dira, eta positibo faltsu asko izaten dira. Honako arrazoiengatik:

- * Osasun arazo batengatik deseroso eta artega sentitzen diren ikasle batzuei (dermatiti atopikoa, parasito infektazioa...) AFN-H diagnostikoa ematen zaie, antzeko sintomak izan ditzaketelako.
- * AFN-H etiketa hartzen duten beste ikasle batzuk besterik gabe denboraldi txar bat pasatzen ari ziren espezialistaren eskuetatik pasa zirenean (ikastetxe aldaketa, familiako galarak, jazarpen kasuak...). Praxi txar batek, ez zegokien kondizio bat esleitu zien.
- * Haur eta gazte denboran hasten diren nahasmendu psikiatriko batzuk (adimena gordetako espektru autista, nortasunaren nahasmenduak, askotariko sindromeak) hein handi batean AFN-Hezkuntza nahasmenduen sintomekin bat etortzen dira. Kontu gutxiko edo presa gehiegiko diagnostiko esku-hartzeek AFN-H positibo faltsuak sortzen dituzte batzuetan halako kasuetan.
- * Komorbiditate handia izaten dute Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduek beren artean eta bai haien eta beste sindrome batzuen artean. Diskriminazio gutxiko esku-hartze batzuetan, PAN sintomak beste nahasmendu sakonago edo/eta konplexuago batzuk ekliptzen dituzte.

Horiek guztiak direla medio, oso komeni da familiek, ikastetxeekin elkarlanean, profesional kualifikatuetatik Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak dituzten haur, gazte eta helduekin esperientziarik handiena dutenak aukeratzea (ikus "Familiekiko elkarlana..." eskuliburu honetan berean). Exigitu behar dugu uneoro ezarritako pautak eta prozedurak begira daitezen (familiek eta ikastetxeko profesionalak parte har dezaten portaera sintomak hautematen eta aztertzen) diagnostikoan agindutako irizpideak bete egin direla ziurtaturik egoteko moduan.

■ ARAZOA ULERTZEA:

Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak dituzten neska-mutilen gurasoek honelako gauzak esan ohi dituzte maiz: *"Semea/alaba normala baldin bada, zergatik du portaera hori?"* Normaltasun itxura, izan ere, gehientsuenetan egoten da; areago: Neska edo mutila alderdi askotan normala da, izan, (normalki arrazoitzen du, maitakorra da, eta abar). Baina zerbait makurtu zaio harremanak, autoritatea eta eguneroko gertaerak bizitzeko duen moduan. Ondoren hobekixeago ezagutzeko eginahala eginen dugu:

Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduak (PAN) dituzten ikasleekin tratatzerakoan maizenik egiten den bidegabeetako bat beren hutsen eta zailtasunen errua haiei berei egotzea da. Barkleyren ustez, haien arazoak ez datoz nahiaren eta oharraren gaineko ardura-falta batetik, norbere buruaren kontrol falta batetik baizik. Adibidez, AFN-H duten pertsonengan autokontrolaren eta borondatearen ardura duten garun sistemak ez dabilta eta, hortaz, oso zail egiten zaie bi trebetasun oinarriko horietan maila normalak mantentzea. Egile horrek dioenez, hiperaktibitate, jauzkortasun eta arreta faltaren sintomak, nahiz egia den AFN-H, definitzen dutela, bigarren mailakoak dira autokontrol faltaren aldean, zeinak denak bakartzen dituen eta haien jatorria den. Autokontrol falta horrek, hainbat disfuntzio sortzen dizkio sufritzen duenari, eta irakaskuntzako profesional batek horiek ezagutu behar ditu hezkuntza esku-hartze bati ekin baino lehen:

- 1. E1. Ikasle hauen portaera noragabeak eta haien ekoizpenen irregulartasunak** (noiz ona eta noiz oso eskasa) irudipena sor dezakete alferrak direla edo dena gaizki egin eta arauak hausteko asmoz ari direla. Baina egiaz **ez dira gai (laguntzarik gabe) lan eta ekoizpen patroi bati koherentziaz eusteko** (horretarako aurrez plan edo arauen bat osaturik eduki behar baituzu eta haiek ez izaki). Momentuak edo egoerak haien gain izaten duen eragina hainbestekoa da non edozer gertaera ustekabekok lanetik desbideratzen dituen.
- 2. AFN-H duten pertsonen egoerarekiko ageri duten dependentzia da ikaspenaren arloan diren disfuntzio kognitiborik larrienetako bat:** Halako ikasleei zeinen zaila egiten zaien barneko motibazioak ezarri edo sortzea. Portaeraren norabidea, ahaleginaren jarraikipena, anbizioa edo borondatea ia soilik kanpoko iturrietatik heldu zaie halako ikasleei; horregatik, iturri horiek denbora guztian aurrean ez badauzkate, ezinbestean ekoizpena gutxitu edo are desagertuko da. **Helburu falta eta planak ezarri eta haiei eusteko** zailtasunak dira ikasle hauen ezaugarri nagusiak.
- 3. AFN-Hdunek iraganaren eta etorkizunaren pertzepzio distortsionatua ageri izaten dute eta gaizki maneiatzen dituzte denbora eta aurreikuspenak zein ondorioak.** Zailtasun handiak dituzte beren portaeraren ondorioak aurreikusi eta atzemateko, eta geroko epe ertain edo luzera helburu batzuk iristeko asmoz moldatzeko; ildo horretatik, heldu baten berariazko gainbegiratze bat behar izaten dute (Bigarren Hezkuntzan ere) beren agenda maneiatzeko (tresna horrek laguntzen baitie atazak hurrenkatu eta ahaleginak denboran banatzen). Denboraren erabilera desegoki horrek berak asko handitzen dizkie egoneza eta deskontrola itxarote-tarteetan edo sari hartzea berandatzat denean; hori aintzat harturik, ahalegina egin behar da haien kasuan sariak berehalago iristeko, eta itxarote horrek sortzen dien estresa gaintzeko prestatu.
- 4. Defizit bat ageri dute beren erreakzio portaera, hitzezkoa, motorea edo soziala, inhibitu,** eta ekin edo erantzun baino lehen itxaroteko. Egintzen arteko zain-denboran pertsonen geure buruari

barne mezuak bidaltzen dizkiegu ondorengo jokaera erregulatu eta hots emateko; AFN-H duten pertsonak **beren buruekiko hizketa eskasia** ageri izaten dute (ez da besteengan bezain barrendua eta egoeraren eta berehalako satisfazioaren menpeago dago). Edozein akuilu arduragabekok aldaratzen ditu ikasleok aurreikusitako ekintza planetik eta hala ageri izaten da beren hitzaldietan, zeinean atazarako ardurarik ez duten alderdiak jasotzen diren.

Bigarren arazo bat norbere buruaganako mezu horien eskasiatik heldu da: **Beren portaera ezarritako arauetara moldatzeko zailtasuna**. Giza portaeraren zati handixko bat arauen, jarraibideen eta planen azpian egoten da (lan, gizarte eta eskola bizitza, problemak konpontzeko prozesua...). Arau horietara moldatu, konbinatu, aldatu edo berriak asmatu ezina daukana egoeraren mende gelditzen da eta portaera aldakor, noragabe eta gutxi fidagarria ageri du.

Auto-jarrabideen programa (norbere portaera kontrolatzeko, problemak konpontzeko, atazak fsekak burutzeko...) eta ikasgelako araudia ikasgai eta irakasgaitzat jotzea, etengabeko segimendu eta kontrola eginaz, dira problema horiek gainditzeko efikazia agertu duten estrategiak.

5. AFN-Hdun pertsonak **sentimenduak inhibitzeko zailtasuna** izaten dute eta gertaerak eta sentimenduak bereizteko. Horregatik, haien portaera afektibo-emozionala batzuetan heldugabea dirudi.

Halakoetan, maiz asko, itxuraz karga emozional handirik ez duten gertaeren aurrean ere, kasketak, negarraldiak, barreak edo erorialdiak agertzen dira. Eta alderantziz, batzuek maiz asko hoztasun edo literaltasun handiegia ageri dute beren portaera afektibo eta sozialean.

Desinhibizio afektibo-emozional honetatik eta gizarte arauetara moldatzeko dituen arazoetatik heldu zaizkio bere **gizarte zailtasunak**: Erraz galtzen dituzte adiskideak, gogaikarriak egiten zaizkie besteei, rol dependienteegiak hartzen dituzte (esklaboa, bufoia...), integrazio estrategia desegoki edo heldugabeak hartzen dituzte eta maiz bakarturik egoten dira eta bai bere ikaskideek jazarrita ere.

Gizarte trebetasun helduagoak ematea eta kontentzioan zein asertibitatean trebatzea neurri eragingarriak dira baldin eta horrekin batera gizarte balioetan zentratutako lan bat egiten bada haiekin: Errespetua, aniztasunaren onarpena eta beste ikasleekiko inklusioa.

■ PORTAERA:

PANdun ikasleek honako portaerak ageri izaten dituzte:

- Aktiboki kontra egiten diete gizarte arauetara eta helduen eskariei.
- Autoritateari etengabe gogor egiten diote
- Probokazio eta erronka ozarrak
- Nahita traba egiten die besteei. Elkarrizketa eta jardueretan inork gonbidatu gabe sartzen da.
- Ez du batere toleratzen frustrazioa: Bere egintzen kontrola galtzen du.
- Maiz haserretzen da eta kasketak izaten ditu.
- Besteei leporatzen dizkie bere hutsak eta portaerak
- Besteen portaerarekin sentikorra izaten da; benetako arrazoirik gabe mindurik sentitzen da.
- Nahasmendu disozialaren kasuan, objektuei eraso egiten die batzuetan (hautsi, su eman...), bai eta animaliei eta pertsoniei ere.


Portaera hauek ez dira denak beti eta non-nahi azaltzen eta ez dira beti larritasun maila berarekin agertzen, zorionez. Arreta Faltaren Nahasmendua duten ikasleen kasuan, portaera sintomak azalekoak dira edo ez daude; Disozialean, berriz, askoz handiagoak dira. Portaeran esku-hartzea ere horren araberakoa izanen da: Batzuetan laguntza txikiak beharko dira portaera doitzeko; beste nahasmendu larriagoetan, berriz, hala nola ukazio nahasmenduan edo disozialean, zeinetan delituak ere egiten diren batzuetan, prebentzio, prestakuntza eta ber-heziketazko esku-hartzeak beharko dira, askoz berariazkoagoak, sistematikoagoak eta jarraikiagoak. Eskola sisteman daukagun lekutik, guk ikasle hauen sentimenduak, erreakzio estiloak eta portaerak ikertu ditzakegu hainbat tresna erabiliz, adibidez: **20. ERANSKINA** "Portaera Antisozialen Autoebaluazioa" (183. orrialdea). Teknika hauek erabiltzeko, ordea, kasuko ikaslearen onespena behar da; hartarako:

- Gure konfidentzialtasuna bermatu behar diogu.
- Enpatia erakutsi behar diogu, epaitu gabe.
- Gure laguntza eskaini behar diogu.

Portaera Asaldatzailearen Nahasmenduen tratamendu terapeutiko eta pedagogikoan, Terapia Kognitibo-Konduktuala eta Terapia Sistemikoa dira gehien erabili ohi diren paradigma batzuk. Maiz asko, bestalde, beste proposamen batzuetatik datozen hainbat teknika eta tresna eklektikoki erabiltzen dira.

Nolanahi ere, esku-hartzeak lehentasun programak diseinatuz gauzatu ohi dira, dela ikasleentzat, dela guraso nahiz irakasleentzat pentsatuak, helburu hauetakoren batekin:

- Autokontrol trebetasunak handitzea bai ikaslearengan nola haien portaerari erantzuten dioten erreferentziako helduengan. Jauzkortasuna gutxitzea
- Berdinen arteko elkarreragin trebetasunak garatzea
- Erreferentziako helduengan hezkuntza eta kontrol trebetasunak garatzea.
- Portaera egokituak handitu eta desegokituak gutxitzea
- Eskolako, familiako eta gizarteko araudia barrendu eta norbereganatzea.
- Bere portaeraren esleipen egokituak garatzea (ondorioak eta erantzunbeharrak bere gain hartzea).
- Denbora kudeatzen ikastea, planak egiten, lanak antolatzen eta konpromisoak betetzen.
- Besteak eta norbere burua deserruduntzen ikastea.



Gogoan izan!
Pertsona batzuek ez dute modu berean eta maila berean informazioa prozesatzen ez eta ohiturak bereganatzen ere. Eragingarriak izateko laguntza, enpatia eta pazientzia gehiago behar izaten dute.

2.3.2. Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmendua (AEN)

Maiz asko, zenbait ikasleren portaera desegokitu edo disruptiboak guraso-seme-alaben arteko esperientzia traumatikoetatik datoz. Halakoetan, portaera horiek bereziki larriak izaten dira, irakasle zein ikaskideen kontrako errespetu faltak, agresibitatea, gezurrak eta errealitatearen defomazioa ekarri ohi baitituzte. Azter dezagun laburki atxikimenduaren nahasmendu hauek zer ezaugarri dituzten:

Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmendua (AEN) definitzen duten osagaiak (F94.1)
Zaindari helduenganako portaera-patroi inhibititu etengabea, emozionalki uzurtua
Alterazio sozial eta emozional jarraikia
Behar baino gutxiagoko zainketa patroi baten bizipen jarraikia

Jorge Barudyk Atximenduaz egiten duen analisia erreferentzia harturik, seinala dezagun hein handi batean hurbileneko giza inguruneak (familiak) adinik txikienean ekarri dizkion oinarrizko elikagaiak (material afektibo, moral eta hezitzaileak), haien barietateak, izaerak eta maiztasunak baldintzatzen dutela pertsonen heltze-garapena.

Giza testuinguruek garapenean duten eragina (Jorge Barudy)		
Tratu onak	Gizakien komunikazio ingurunearen ELIKAGAIK	Tratu txarrak
Errespetuzko eta baieztapen positiboko mezuak. Maitasunezko giro sozio-emozionala. Jarduera altruistak (eman eta konpartitzea). Segurtasuna, Ongizatea, Osasuna	MATERIALAK AFEKTIBOAK ETIKO-MORALAK HEZITZAILEAK KULTURALAK	Errespetu falta eta berrespen negatiboko mezuak. Giro sozio-emozional agresiboa. Jarduera negatiboak (jaso eta kendu). Segurantzia falta, ongi-eza, eritasuna

Hurrek erreferentziako helduengandik errespetuan, maitasunean eta altruismoan oinarritutako tratuak jasotzen dituztenean, haien osotarako pertzepzioa segurtasun, ongizate eta osasun (fisiko nahiz mental)arena izanen da. Egoera honi "Atxikimendu segurua" deitzen diogu. Atxikimendu segurua, beti, tratu onean, segurtasunean eta txeran oinarritutako estimulazio jarraiki eta behar adinako batetik dator.

Aitzitik, hurrek jasotzen dituzten tratuak begirune-ezean, ukazioan, indarkerian edo inkoherentzian oinarritutak direnean, haien osotarako pertzepzioa segurtasun falta, inprebisioa, premia eta ongi-ez (fisiko nahiz mental)arena izanen da. Tratu txarrak denboran luzatzen badira, azkenean haurren portaera eta bizitza soziala baldintzatuko dute, eta haurra arazoz beteko dute. Egoera honi "Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmendua" deitzen diogu.

Hurtzaroen tratu onik izan ez zuten pertsonak tratu txarrak jaso zituzten (gogoan izan axolagabezia afektiboa, haurrendako, tratu txar motarik kaltegarrienetako bat dela).

Pertsona batek tratu txarra hartzen duenean, segurtasuna, ongizatea eta osasuna emanen dizkioten oinarrizko elikagaiak bereganatzeko, egokitu beharrezko portaera baliabideak erabiliko ditu, beti arazobide izanen direnak:

- * Etengabe arreta eta afektua bilatuko ditu, koherentziarik eta irizpiderik gabe.
- * Portaera desantolatuak, kaotikoak eta itxuragabeak: Portaera disruptiboak eta agresiboak...
- * Besteak manipulatu beharrezko portaerak: Seduktoreak, gezurtiak...
- * Pertsonen arteko kontaktuei ihes egin eta ekiditeko portaerak
- * Isolamendu sozio-emozionala, hoztasuna, klaustratzea.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen urteak dira momenturik egokiena ikasle hauen kasua atzeman eta haietan esku-hartzeko. **21. ERANSKINEAN** “Arrisku psikosoziala duten ikasleei antz emateko protokoloa” (184-185. orrialdeak) tresna bat eta zenbait adierazle eskaintzen ditugu irakasleek eta Orientazio Departamentuak tankera emateko zein ikaslek izan ote dituzten halako hezkuntza esperientzia traumatikoak.

Gure ardurapean halako ikasle bat dugunean, gurasoekiko harremanean esperientzia traumatikoak edukita halako portaerak ageri dituen: lhes egitekoak, desantolatuak, irizpide gabeak, inhibitiboak... atxikimendu arazoaren seinale direnak, xehero ikertu behar dugu portaera hori, hor nahasmenduren bat ote dagoen ala ez finkatzeko. **22. ERANSKINEAN** “Atxikimendu arazotsuaren adierazleak” (186. orrialdea), nahasmendu horri tankera hartzeko tresna bat eskaintzen dugu.

Behin berretsi denean Atxikimendu Erreaktiboaren Nahasmendu batekin lotutako hezkuntza premia pertsonalak badirela, gure komunitateko Adingabeak Babesteko Zerbitzuetara jo behar genuke, halakorik bada, haiekin era koordinatuan lan egiteko. Hori egin ondoren, guk ikastetxean izanen dugun ardura izanen da kasuko ikasleari **elkarreragin esperientzia atseginak eskaintzea, bai helduekin eta bai beren ikaskideekin**. Har dezagun kontuan tratatu onak pertsonaren premia oinarritzeko bat direla eta neska-mutilaren garapena helduek horiek emateko duten gaitasunaren mende izanen dela. Ilde horretatik, ona da jakitea ezen nahiz eta esku-hartzea zenbat eta gehiago berandatzeko den, pronostikoa hainbat okerrago izanen den, hala ere inoiz ez dela beranduegi esku hartzeko.

Aisa pentsa daitekeenez, atxikimendu nahasmendua ez da bakarrik aurkitzen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan; aitzitik, Bigarren Hezkuntzako ikasle nerabeen artean ere izaten da, maiz ere bai, nahiz hor sintoma konplexuagoak ageri dituen. Garapenaren etapa horretan, ordu arte esku-hartze egokirik izan ez bada, portaera desegokitu, antisozial edo delituzkoek are gogorrago motak hartuko dituzte.

Nerabezaroak nortasunaren eta independentziaren bilaketa du ezaugarri, oso helburu bidezko eta naturalak, eta horrek “gazte ta txoro” portaerak dakartza (pasotismoa, helduengandik distantzia hartzea, zerumuga berriak eta esperientzia berriak bilatzea...); jarrera horiek, ordea, ez dira nahasi behar atxikimendu traumatikoa duten pertsonen kontra-egite aktiboarekin, arauak arbuizatzearekin eta portaera bortitz, manipulatzaila edo iheskorrekin.

Ikasle horiek askotan gatazkatsu, antisozial edo deserrotu etiketa daramate baina haien portaera, hala ere, heziera desegoki baten emaitza besterik ez da. Hori horrela den jakiteak bide emanen digu esku-hartzea hobeki doitu eta gure laguntza tentu gehiagoz zuzentzeko. R. Melerok eta M. J. Canterok (2014) galdetegi bat itxuratu dute (CAAr) atxikimendua helduengan baloratzeko; hartara jo dezakegu ikasleak adin nagusikoak direnean.

Haur eta nerabeengan bereizkuntza hori egin ahal izateko, guk elkarrizketa pertsonala erabili dugu (ikaslea hartarako prest badago, jakina) oso emaitza onekin. Hori bai, uneoro haren intimitatea errespetatuz eta prozesu guztian erabateko konfidentzialtasuna bermatuz. Hemen elkarrizketa zuzendu baten eredu bat ematen dugu: **23. ERANSKINA** “Haurtzaroaren gaineko elkarrizketa” (187-188. orr.).

Atxikimenduaren desegituratze eta desantolatzearen ondoriozko arazo afektibo-emozionalak eta portaerazkoak dituen ikasle batekin esku-hartu baino lehen, lehenbiziko eta ezinbesteko lana da

zer gertatzen zaion (kognitiboki eta afektiboki) jakitea eta, horren arabera, segur aski zer erreakzio izanen duen ere jakitea. Hemen: **24. ERANSKINA** “Atxikimendu traumatiko batek maizenik eragiten dituen arazoak” (189. orrialdea) zenbait adierazle aurkituko ditugu, bide emanen digutenak gure ikasleen zailtasun pertsonalen berri zehazkiago jakiteko; kontuan hartu, halere, adierazle horiek ez direla unibertsalak, kasuan kasuan profil desberdinak hartzen dituzte (zabaleraz, sakoneraz eta larritasunaz). Gure lehenbizi-lehenbiziko lana da, beraz, horiek gure ikasleari ezartzea, tankera emateko haren profila zein den.

Esku-hartze plan bat diseinatzerakoan dugun bigarren lan garrantzizkoa da ikastetxeko irakasle bat aurkitu eta hura ERREFERENTZIAKO HELDU bihurtzea, ikaslearentzat esangura afektibo-emozional handikoa. Erreferentziako helduaren papera duen profesional honen helburu nagusia izanen da ahal dituen elikagaiak (afektiboak, moralak, hezierakoak...) ikasleari ematea, beti tratu onen eskematik esku hartuz (ikus aurreko taula: “Giza testuinguruen eragina...”).

Hona zenbait ideia haien gainean lan egiteko irakasle bat erreferentziako heldu bihur dadin atxikimendu nahasmendua duen ikasle batentzat:

- Ez ezazu epaitu. Entzun egiozu.
- Txera erakutsi. Senti dezala zuretzat inportantea dela. Kalitateko denbora pasa ezazu harekin bai taldean eta bai bakarka.
- Lasaitasunez eta lagunkor agertuz zuzen iezaiozu portaera. Zerbait gaizki egiten badu, ez du nahita hala egiten, bestela badirudi ere.
- Zeure buruari bota errua hark zerbaitean huts egiten duenean eta eska zaiozu zuri laguntzeko hurrena hobeki egiten: “Ez dut jakin nola galarazi zu haserretzea... Laguntzen banauzu, hurrengoan agian lortuko dugu elkarrekin”...
- Erakuskiozu zeure sentimenduak. Esaiozu haren portaerak tristatzen zaituela eta ez zaizula gustatzen, baina segur zaudela hobera eginen duela eta harengan fedea duzula.
- Jakinarazi eta esan iezaiozu beti hor egonen zarela zutaz behartzen denean.
- Segurtasuna agertu; zuk duzu autoritatea. Besteei bezala eska iezaiozu baina ez hari ondorio berberak aplikatu, ondorio hezitzaileagoak ezarri hari, zigor bezala ez, laguntza bezala sentitzen dituenak.



Gogoan izan!

Maitasuna gehien behar duten pertsonak modurik desegokienetan eskatu ohi dute.

2.3.3. Espektru Autistaren Nahasmenduak (EAN)

EAN duten pertsonak funtzionalki askotarikoak dira. Batzuek ongi gorde dute adimena eta hizkuntza, bai eta gaitasun handiak ere batzuetan; beste batzuek, berriz, adimen atzeratua dute eta komunikazio murrizketa larriak. Ikastetxeetan maiz portaera arazotsuak izaten dituzte, irakaslearentzat maneiatzeko zailak. Modu eskematikoan, Espektru Autistaren Nahasmendua duten pertsonen honako ezaugarriak dituzte:

Espektru Autistaren Nahasmenduen oinarrizko sintomak (DSM-5)(F84.00)
Testuinguru askotan komunikazioaren eta elkarreragin sozialaren eskasia jarraikiak.
Portaeraren, jardueraren eta interesen patroia errepikakor eta mugatuak.
Sintomak haurtzaroaren hasieratik agertzea.
Eguneroko jardunbidea sintoma horiek asaldatua edo mugatua egoten da.

EANDun ikasleen non eskolatu erabakitzeko, kontuan hartzen da zer gaitasun gorde dituzten; hala, bada, laguntza premia handiko autistak hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatu behar dira edo berriazko ikasgeletan; halako premia gutxiago dituztenak, berriz, ikasgela arruntetan. Batean zein bestean, ikasle autista horiek segur aski portaera arazotsuak ageriko dituzte. Hona hemen maizenik izaten direnak:


- Bere buruari zauri egitera daramaten portaerak (buruko bat hartzea, harramaskak edo hozkak beren buruari, eskapismoa –arriskuari begiratu gabe ihes egitea-).
- Hurbiltze sozial desegokiak (gorputzez nahiz hitzez).
- Besteenganako hitzezko nahiz gorputzezko portaera agresiboak.
- Ondasun materialen suntsitze fisikoa.
- Helduen eskaerei behin eta berrizko ezetzak.
- Arauak haustea.
- Deskontrol emozionala, haserre-kortasuna, larrimina eta estresa gizarte egoera edo eskaera zail edo berrien aurrean.

EANDun pertsonen izaten dituzten portaerak ez dira besterik gabe gertatzen; nahasmendu horren oinarrizko sintomekin loturik datoz: Gizarte eta komunikazio zailtasunak (literaltasuna, bakartasuna...), portaera estereotipatuak (errutinak...), pentsamendu zurruna, interes murriztuak (mono-gaiak...) eta zentzumen alterazioak (hipersentikortasuna). Portaera agresibo asko, edo portaera agresibo, ukakor edo deskontrolatu asko, adibidez, horrela esplikatzeko dira: Oso zail egiten zaielako beste pertsonen asmoak eta pentsamenduak ulertu eta interpretatzea, ingurune premietara moldatzeko, edo beste pertsonen haien portaerak enpatia falta sortzen dielako edo ondorio emozionalak ulertzen ez dituztelako.

Beste alde batetik, esan behar da EAN horiek komorbiditate handia izaten dutela beste nahasmendu batzuekin (larrimina, depresioa, episodio psikotikoak, portaeraren nahasmenduak...): Adibidez, AFN-H-arekin %30eko komorbiditatea du. Faktore hori garrantzi handikoa da, zeren beste nahasmendu batzuk EANEkin loturik egoteak batere zein besteen larritasuna handiagotzen baitu, eta bai esku-hartzea bai diagnostikoa zailagotzen.

EANDun pertsonaren portaeraren gainean eta bere familia inguruneko baldintza ardurakoen gainean zuzenean esku-hartzeaz gain, gomendagarria izan daiteke, kasuak hala eskatzen badu, ber-heziketa psikosozialerako programa berariazkoak, izaera kognitibo-konduktualak, ezartzea:

- Portaera arazoak **aldaketak jasateko zurruntasunarekin eta zailtasunekin** loturik daudenean, hauek dira lehenetsi beharreko esku-hartzeak: Pixkanakako aldaketak, aurre-hartzearen erabilera, egiturapena eta ikustezko laguntzak.
- **Hiperreaktibilitatea eta deskontrol emozionala dauden kasuetan**, honela esku-hartu behar da: Ingurunea egokituz, hiper-asaldatze faktoreak gutxituz eta distraktoreak erabiliz, egoera emozional positiboago eta orekatuago batera eramateko modukoak.
- Portaera arazoak **ingurunea gaiki interpretatzen** heldu badira: Historia sozialek eta ikusteko laguntza eta oroikarriek lagun diezaiekete ingurune hori zehatzago ulertzen.
- **Portaera bera** denean **errefortzua**, hala nola auto zaurietan, errefortzu diferentzial bat erabil daiteke, jarduera bateraezinekin, ezabatu beharreko portaera murrizteko.
- Maiz asko, gure esku-hartzeak beste pertsonak ere barne hartu behar ditu (irakasleak, familia, ikaskideak), haiei informazioa emateko



Gogoan izan!

Zailtasun asko dituzten ikasleek arazo gehiago sortuko dizkizute eta bai satisfazio gehiago emanen ere.

Harekin pertsona hobea eta profesional hobea izanen zara.

2.3.4. Piztaldi psikotikoak

Piztaldi psikotikoek, zorionez, oso prebalentzia txikia dute haur eta gazteen artean; hala ere, ikastetxe edo institutu batean piztaldi psikotiko bat gertatzen denean, oso traumatikoa izaten da eskolako giroarentzat. Hortaz, puska batean egonen gara halako piztaldiak aztertzen.

Nahasmendu psikotikoak gogo eritasun larriak dira, zeinetan pertsonak errealitatearekiko kontaktua galtzen duen. Nahasmendu hauekin batera beste batzuk etorri ohi dira (adibidez, eskizofrenia, nahasmendu bipolarra eta aldartearen beste nahasmendu batzuk), zeinek tarteka nahiz etengabe, bere sintometako bat bezala barne hartzen dituzten.

Piztaldi psikotiko labur bat, kasu, errealitatea tarte batez hausten denean gertatzen da. Denbora tarte batez, dela ordu batzuk, dela hilabete bat, nahasmendua sufritu duen pertsonak ezin bereiz dezake zer den errealia eta zer fikzioa. Piztaldia desagertzen denean, dela esku-hartze farmakologiko bati esker edo haren abiagarrien efektua desagertu delako (sustantzia sorgarri edo aluzinogenoak, egoera emozional estresagarria...), portaera normaltasun egoera batera itzultzen da, batzuetan betiko.

■ PIZTALDI PSIKOTIKOAREN TRATAMENDUA

Piztaldi psikotikoa **farmakoz tratatu behar da eta lehenbailehen bilatu behar da laguntza psikologikoa**. Piztaldi psikotikoa sufritu duen pertsonak berehalako tratamendua behar du. Halako episodio larria delarik, gehienetan ospitaleratu behar izaten da eria, behar bezalako tratamendu farmakologiko eta psikologikoa eman ahal izateko. Ezinbestekoa da farmako antipsikotikoak ematea (adibidez, Haloperidol© edo Olanzapina©) eria egonkortzeko.

Gure ikastetxe edo institutuan ikasle batek piztaldi psikotiko bat sufritzen badu, lehenbiziko gauza jakin behar dugu oso gutxitan gertatzen dela pertsona horrek bat batean galtzea bere gogoaren, emozioen edo portaeraren kontrol osoa. Eskuarki haren familia, adiskideek edo irakasle hurbilekoek aurrez igar diezaiokete krisi bat iragartzen duten sintomei:

- * Bat batean eta bistako arrazoirik ez dela, utzi egiten dio lanera edo ikastetxera joateari: Mesfidantza agertzen du eta bakartze sozialeko portaerak ageri izaten ditu.
- * Janzkeran eta ohituretan aldaketak ageri ditu, eta bai bere itxuraz eta higieñez axolagabetzen ere.
- * Portaera desantolatua, ohi ez bezalako ageri du, zentzurik gabea, bitxia eta arraroa. Dedikazio errituala du zenbait jardueratarako, mugimendu deskontrola, arauen haustea, umore txarreko leherraldi ustekabeak
- * Ideia bitxi eta fantastikoak adierazten ditu, errealitatearekin inolako loturarik ez dutenak, antza: Begirada galdua du, edo gauza inkoherenteak esaten ditu, logika gabeak.
- * Halako pentsamenduak mundu guztiari kontatzen ez badizkio ere, zenbait pertsonari bai, esan ohi dizkie.

Hasierako fase hauetan, batzuetan posible da oraindik erabateko krisi bat galaraztea. Eria zenbat eta psikotikago bihurtu den, orduan eta aukera gutxiago daude guk laguntza espezializaturik gabe eginen ditugun ahaleginek emaitza ona izateko.

Neurri batzuk hartu daitezke: Eginahalean murriztu behar da sintoma psikotikoak berretzea, eta berehala laguntza eta babesa eman eriarri.

Maiz asko, eriak bere medikazioa hartu ez duelako edo sorgarriak hartzen edo alkohola edaten ibili delako sortzen dira krisiak. Hala bada, bultza egin behar zaio lehenbailehen medikuarengana berriz joateko.

KRISI PSIKOTIKOEN AURREKO EGINTZA PROTOKOLOA


Beti gogoan izan eria segur aski erabat ikaraturik dagoela kontrol mentala eta emozionala galdu dituelako.
Krisi aldietan eriak ahotsak entzuten ditu, objektu batzuek hitz egiten diotela sentitzen du, hots, aluzinazioak izaten ditu eta batzuetan aluzinazio horien arabera jokatu nahi du. Jokae- ra horrek batzuetan hitzezko bortizkeriatara eraman dezake (bai ta fisikora ere batzue- tan) objektu horien kontra eta egoera horretan gehien estresatzen duten pertsonen kontra (irakasleak, edo eutsi egin nahi dioten beste helduak).
Horregatik, piztaldia bortitzena den momentuan: <ul style="list-style-type: none"> ■ Lasaitasunari eutsi, ikasleari oihuka edo mehatxuka ibili gabe, esaldi errazak erabiliz, doinu ezti eta argian.



- Agresio bat izan bada, **ez inoiz saiatu erasotzaileari eusten**, (estres eta tentsio gehiago sortuko diogu); aitzitik, **babestu ezazu biktima**, geure gorputzarekin bilduz. Eta horrekin batera: *EZ! Ez duzu inor eraso behar!* Esanen dugu ahots sendoz baina bortizkeriarik gabe.
- **Gutxienean bi pertsona egon daitezela beti eriarekin**. Hala behar bada, pertsona horietako batek 112-ra deitu dezala edo behar den gogo osasuneko profesionalari, beste pertsona ikaslearekin dagoen bitartean
- **Ikaslea eserita badago, ez gara haren aurrean zutik egonen, gu ere eserita baizik, haren ondoan, baina zuzenean begietara begiratu gabe eta ukitu gabe** eta, eginahalean, eskatzen duen guztia emanen diogu, arriskutsua edo arrazoigabea ez baldin bada behintzat.
- Ikaslearen eta ateraeraren artean jarriko gara baina atearen irispidea tratatu gabe.
- **Seguruena ikaslea ospitaleratu beharrean egonen da. Nerabe bat edo adin nagusikoa bada, berak bere nahiz hala egin dezala konbentzitzen saiatuko gara**, doinu paternalista edo autoritariorik erabili gabe. Esplikatuko diogu ospitalean sintoma arinduko dizkiotela eta ez dela han ingresaturik geldituko tratamendua etxean edo ospitaletik kanpo segitu badaiteke, edo bestelako ingurune babestu batean.
- **Poliziarri deitu beharra badago, ongi esplikatu behar zaie ikasleak ebaluazio psikiatriko bat behar duela eta hartara laguntzeko deitu diezuela**. Poliziarri esanen diogu ikaslea lehen ere ospitaleratu beharra izan bada.
- Ahal dela, eta ikaslea ez badago sobera asaldaturik, jarduera lasaigarriekin baretzen saiatuko gara (kasko batzuk jarrita musika entzunarazi, ordenadorean jarri bere intereseko joko edo bideoen batekin...)

IKASLEA BERRIZ ESKOLARATZEAN IKASTETXEAK EGIN BEHARREKOAK

- Ikastetxeak, kasuaz arduratu zen osasun departamentuari informazioa eskatu eta jasoko du: Episodioa berriz gertatzeko zer aurreikuspen dauden, ikaslea nola tratatu behar den, zer aukera dauden ikaslea eskola bizitzan integratzeko eta zer baldintza psikiko dituen (arreta, kontzentrazioa, ahalegin kognitiboa...).
- Egunero, goizaren hasieran, ikaslea zer egoera psikikotan dagoen eta medikazioa hartu duen konprobatuko da. Baiezkoan, baimena emanen diogu ikasgelan sartzeko; ezezkoan (ikaslea asaldaturik ikusten badugu, edo uste badugu ez duela medikazioa hartu), Ikasketa Buruari eta Orientazioari jakinaraziko diegu, **familiari deitu eta etxera eramanda medikazioa hartu dezan**. Ikaslea, anartean, ikasgela kanpoan geldituko da edo, hala bada, Orientazioaren kontupean.
- Ikasleak jakin eta onartu behar du **gainerako ikasleek bezalako tratuera hartuko duela**; arauak hausten baditu, kontuan hartuko zaiola eta bai kasuko hezkuntza zehapenak ezarriko ere.
- **Portaera desegoki bat zuzendu beharra denean** (mobila erabiltzea, belarrikoak erabiltzea, gogai-karri izatea, aginduez bestelako jardueretan aritzea, baimenik gabe lekutzea...) **lasaitasunez** egingen da: Abisatu eta jakinarazi egingen zaio bizikidetzaren kontrako portaera baten berri eman beharrean gaudela.
- Ikasketa Burutzak portaera horien berri jakiten duenean, bera izanen da, Orientazioarekin batera, kasurako behar diren hezkuntza neurriak aplikatzeko arduraduna.
- **Ikaslea irakaslearen zuzenketarekin asaldatzen bada, hala jakinaraziko zaio Ikasketa Burutza edo Orientazioari** haiek esku-hartzeko, ikaslea ikasgelatik atera eta horren arabera jokatuz.
- Lanak eta atazak egiten ari garela, kontuan hartuko dugu taju honetako ikasleek **arazoak izaten dituztela oinarritzko exekuzio funtzioekin: Oroimena, arreta, kontzentrazioa, planifikazioa eta ordena**; beraz, laguntza beharko dute arlo horietan.



Gogoan izan!

Eroaldi guztiak segurtasuna bilatu nahirik egiten dira eta haien atzean beti gizakitzat tratatu eta barnehartu beharreko pertsona dago.

2.3.5. Haserrea, agresibitatea eta bortizkeria

Haserrea giza sentimendu bat da, besteen eta geroen zenbait portaeraren aurrean gutaz jabetzen dena. Norbaitek bere portaerarekin gogait eragin edo kalte egiten digunean (objektiboa edo subjektiboa izan), ordainak emateko desira sentitzen dugu. Zerbait guk nahi bezala ateratzen ez denean (espektatiba asegabeak), haserre sentitzen gara. Haserrea oinarrizko emozio bat da, erabat normala, garrantzi handiko funtzio bat egiten duena: Gure eskubideak defendarazten dizkigu, iruditzen zaigunean zerbaitek edo norbaitek horiek urratzen dituela. Giza sentimendu guztiak dira bidezkoak, nahiz eta horiek agertzeraz emateko modu batzuk, ordea, ez diren. Denok eskubidea dugu gauzak sentitzea (haserrea, gorrotoa, maitasuna, poza, beldurra...) baina hori adierazteko dugun portaerak etikoa behar du eta besteekin errespetuzkoa; hartarako gizakiok autokontrol trebetasunak garatu ditugu.

Bistan denez, haserre sentimendua present egoten da ikastetxeetan gertatzen diren elkarreraginean. Ikasleen arteko eta irakasleekiko harremanetan interes gatazkak, esperientzia traumatikoak edo gorrotozkoak eta gatazkak sor daitezke, zeinetan haserre sentimendua den eragile nagusia. Garrantzi handikoa da sentimendua sentitzen dutenek hura maneiatu eta eusten jakin dezaten eta gai izan daitezen modu helduan eta egokian portatzeko; hartarako, badira zenbait estrategia, irakasleek ongi erabiliz gero emaitza ona ematen dutenak. Hona hemen, laburki esanik.

HASERRE SENTIMENDUA KONTROLATZEN IKASI/IRAKASTEKO ESTRATEGIAK

LEHENBIZIKOA Zeure sentimenduen protagonismoa zeure gain hartu
Zeuren zara zure haserrea sortu eta kontrolatzeko gai den bakarra. Gogoeta egin eta ondorioak atera.
■ Ni naiz neure egoera emozionalen erantzulea, nahiz eta zerbaitek sorrarazten dituen.
■ Zer egoerak eta gertaerak pizten didate haserrea?
■ Nor izaten dira ene haserre boladen bitima?
■ Neure eginen erantzulea naiz, haserre egon ala ez egon.
BIGARRENA Haserre sentimendua garaiz gelditu, zerbait desegokia egitera eraman baino lehen
Segundo batzuk hartu haserrea kontrolatzeko. Haserrea hasten zaizula sentitzen duzunean, hamar arte kontatu eta...



HIRUGARRENA Erlaxazio ariketak egin
■ Sakon arnasa hartu diafragmarekin, eta sentitu airea nola sartu eta ateratzen zaizun sabeletik..
■ Harraldi luze bakoitzean, lasaitasuna sortzen dizun esaldi edo hitz bat errepikatu, hala nola «relax» edo «lasai».
■ Aldi berean, gogora ekartzu lasaitasuna sortzen dizun bizi izandako egoera bat.
■ Nahi baduzu, erlaxazio kanturen bat jar dezakezu atzean, bolumen gutxirekin.

LAUGARRENA Sentimenduak eta erreakzioak analizatu
Introspektzio lan bat egin, beste pertsonen egoera emozionalak eta zuregan pizten dituzten sentimenduak aztertuz:
■ Ohart zaitez zer jarrera, emozio eta portaera positibo ageri dituzten zure inguruko pertsonak eta paper batean notatu.
■ Pertsona batengan zerbait negatiboa eta gogaikarria atzematen duzunean, nota ezazu eta pentsa ea benetan gertaera horrek kritika eta haserrea merezi zituen.
■ Zerbait kritikatu behar baduzu, egin ezazu modu objektibo, berariazko era eraikitzailean.
■ Ez egin kritika haserre zauden bitartean, beste momenturen batean egin, lasaiago zaudela.

BOSGARRENA Pentsamendu negatiboak kendu
Askotan pentsamendu negatiboak izaten dira haserre sentimenduak sortu eta mantentzearen iturria; gure esku-hartzean ahalegina eginen dugu haserre sentimendua jabetu zaien ikasleak kontura daitezzen beren ohiko jardunbidean zer pentsamendu negatibo mota edukitzen dituzten, gero horiek aldatu edo beste batzuk jartzeko, funtzionalagoak eta positiboagoak.
■ Inferentzia arbitrarioak: Egoera batetik, gertaeretan oinarritu gabeko ondorioak ateratzea (besteengan asmo gaiztoak igarri edo bestearen pentsamenduak interpretatzea): Profezia bere buruz beteak, aurre-hartuzko pentsaera...
■ Hautaera negatiboa: Egoeratik xehetasun negatiboak hautatzea, gainerakoak ahaztuta.
■ Gain-orokortzea: Gertaera negatibo bakar batetik balio juzguak ateratzea.
■ Handizkatzea ala txikizkatzea: Erasaten diguten gertaerak exageratzea edo gutxiestea.
■ Pertsonalizazioa: Norbaiti egozte negatiboa den guztiaren kulpa edo erantzunbeharra.
■ “Dena/ezer ez” gisako pentsaera: Gure gehieneko eta neurri gabeko espektatiben arabera gertatu ez dena porrotzat hartzea.
■ Etiketatzea: Gertaerak esplikatzeko, ni definitzen nauten faktore negatibo berezkoak, neure buruari jarri dizkiodan etiketa negatiboak erabiltzea.
■ Alderdi positiboak sistematikoki deskalifikatzea: Norbere arrakastei edo ezaugarri positiboak garrantzia kendu eta “normal”tzat jotzea.
■ Gaiztakeria leporatzea: Beste pertsonak berez gaiztoak eta asmo txarrekoak direla pentsatzea.

SEIGARRENA Adierazi zeure sentimenduak
Haserrea edo kolera sentitzen duzunean...
■ Orrialde bat hartu eta bertan sentitzen eta pentsatzen duzuna idatzi.
■ Bukatu ondoren, irakurri, eta gero urratu.
■ Beldurrik gabe azal itzazu zeure sentimenduak besteen aurrean.
■ Diren bezala adieraz itzazu edo/eta hitzetan jarri.

ZAZPIGARRENA Modu asertiboan komunikatzen ikasi
■ Ahots doinu apala eta hitz etorri geldia erabil itzazu.
■ Zeure sentimenduez hitz egin, haserrea piztu dizun pertsonaren gainean pentsatzen duzuna esan beharrean.
■ Eskatu beste pertsonari hark ere gauza bera egin dezala, bera nola sentitzen den konturatzeko.
■ Gorputz jarrera erlaxatua hartu.

ZORTZIGARRENA Autokontrola garatu
■ Seinale baliagarri eta atseginetan jarri zure arreta, ahaztu zure pertzepzioa distorsionatu dezaketen xehetasun negatibo txikiak.
■ Antz emaiozu haserre sentimenduari eta ohar zaitez zerorren onerako hura gutxitu behar duzula.
■ Gogoan hartu zure kontrol galtzeak zer ondorio negatibo izaten dituen.
■ Zeure buruari galdetu zein den zure haserrearen benetako arrazoia.
■ “Ni gisako” mezuak eman (komunikazio modu asertiboa) beste pertsonarekiko arazoa konpontzeko.

Haserrearen ondorioetako bat agresibitatea da. Agresibitatea bai aldarte egoera bat eta bai portaera bat da, eta kausa askoko jatorria izaten du, hainbat abiagarrirekin, barnekoak batzuk (frustrazioa, beldurra, gorrotoa, satisfazioa bilatzea...) eta kanpokoak besteak (familiako nahiz gizarteko giroa, esperientzia traumatiko eta bortitzak...). Agresibitatea pasiboa izan daiteke (pertsona bere barnean ekintza bortitzak hausnartzen ditu) edo aktiboa (egin egiten dira portaera bortitzak pertsona, animalia edo gauzen kontra) eta hainbat intentsitate maila eta gertamodu izan ditzake:

Hitzezko agresibitatea:

- Beste norbaiten kontrako irain eta mehatxuak, hura aurrean dela.
- Barneko sentimendu agresiboak hitzataratzea.

Agresibitate fisikoa:

- Pertsona, animalia edo gauzen kontrako egintza bortitzak, kaltea eta mina egiteko asmoan.

Jestu bidezko agresibitatea:

- Aurpegikera mehatxuzkoa eta haserretua.
- Mehatxuzko jestuak, lizunak edo probokatzaileak.

Agresibitate kognitiboa:

- Pentsamendu negatiboen elaborazioa.
- Ekintza bortitzak planifikatzea (mehatxua...).

Gure ikastetxean portaera agresiboa duten ikasleak badirela ikusten dugunean, gure esku-hartzea planifikatu behar dugu, honako helburu hauek ardatz harturik:

- Bortizkeria zuzenesten duten jarrera eta sinesmenak aldaraztea.
- Emozio agresiboek antz ematen ikasteko lan egitea.
- Estrategiak eratzea ikasleak gai izan daitezen portaera agresibo eta bortitzen erantzunbehar pertsonala barrentzeko.
- Portaera agresiboaren sorrera aldaraztea: Sentimendu–pentsamendu–ekintza, ohitura agresiboak aldaraziz.
- Biktimarekiko edo biktimekiko enpatia erraztea.
- Positiboagoko harreman portaerak ikasi/irakastea.

IKASGELAN PORTAERA AGRESIBOAK DAUDENERAKO EGINTZA PROTOKOLOAK

Ekintza bortitz edo agresiboak ez dira sekulan oharkabean pasatzen utzi behar ez eta zigortu gabe gelditu ere. Beti agertu behar ditugu, eta ikastetxeko Bizikidetzara Araudiak hartarako agintzen dituen hezkuntza neurriak hartu. Ikastetxean Portaera agresibo bat gertatu denean, honako ekintzak egin beharko ditugu:





LAUGARREN FASEA
Gaitu eta trebatzea

Ikasle protagonistari **ordezko beste portaera** batzuk ematea agresioa ordezkatzeko, etikoagoak eta helduagoak. Momentu honetan, ondoren datorren 3.2 atalean jasotzen direnak bezalako prestakuntza programak abiatu behar dira.



BOSGARREN FASEA
Egindako kaltea lehengoratu

Ikasleak pertsona erasotuari edo erasotuei erakutsi behar die egindakoa damutu zaiola eta zuzendu nahi duela. Portaera agresiboa jendaurrean izan bada, barkamen eskaera ere jendaurrean egingen da, eta bestela, pribatuan.



SEIGARREN FASEA
Hobekuntzak indartu

Ikasleak portaera egokia duen bakoitzean, hura indartu.



ZAZPIGARREAN FASEA
Hezkuntza neurriak hartu

Ez damutzerik ez zuzentzerik izan ez bada, zorrozki aplikatuko da Ikastetxeko Bizikidetzaraudiak agintzen duena, bai hezkuntza neurriak hautatzeko (proportzionalak eta funtzionalak), eta bai guraso edo legezko tutoreei aditzera emateko edo/eta, hala behartzen bada, dagokion diziplina espedientea irekitzeko.

ONDORIOAK APLIKATZEA. HEZKUNTZA NEURRIAK

Neurriak aplikatzea ezinbesteko prozesua da portaera disruptiboaren zuzentze eta hobetze lanean. Neurri horiek, ordea, doituak, ekitatiboak eta sistematikoak izateak baldintzatuko du hein handian gure esku-hartzeak arrakasta izanen duen ala ez. Horregatik, irakasle taldeari proposatzen diogu astiro gogoeta egin dezala gai honen gainean.

Gure ikuspuntutik, Portaera desagoki, ukakor, disruptibo edo gogaikarri baten aurrean, irakasleak **bi aukera eskaini behar dizkio ikasleari**: Bere portaera arauen arabera molda dezala, edo bestela, aurreikusita dauden ondorioak aplikatuko zaizkiola.

Ekintza batek arauak borondatez, ohartuki eta luzaro hautsi izana suposatzen badu, beti izanen du dagokion hezkuntza ondorioa, kasu guztietan aplikatu beharrekoa.

Izandako portaeraren arabera litezkeen ondorioen zerrenda:

■ Agindutako lanak ez egitea:

1. Ikastetxean gelditu lanak egin arte.
2. Atsedendian lanean gelditu lanak egin arte.
3. Besteek beste zerbait egiten duten artean bera lanean gelditzea.
4. Ez da komeni egin gabeko lan horiek etxean egin ditzan bidaltzea (hori gure eginbeharra familiari pasatzea litzateke).

- Nahiaren gainean gogaikarri izatea; ikas eta irakats prozesuen garapen normala tratatzea:
 5. Ikasgelatik aterarazi eta Kanpo Denbora-rako ezarri den tokira joatea behar bezala portatzea agindu arte.
- Ikaskideei edo irakasleei hitzez edo gorputzez erasotzea
 6. Agresioa egin zen tokitik aldaratu eta “Kanpo Denbora”ko tokian “bahiturik” gelditzea. Behin lasaitu ondoren, gogoeta ereduak emanen zaizkio zer sentimendu izan ote zituen eta besteengan zein piztu ote zituen konturazteko (Ikus **25. ERANSKINA**)
 7. Erasotako pertsonari barkamena eskatzea (hitzez nahiz idatziz) jendaurrean (erasoa jendaurrean izan bada), edo pribatuan.
 8. Nolabait, egindako kaltearen ordaina ematea ahal den kasuan (ikasle erasotzaileak berak pentsa dezala hori nola egin).

EUSTE FISIKOA

Ikaslearen portaerak ikasgelaren jardunbidean disrupzio latza sortu duenean, pertsonen segurtasunerako arriskua denean, edo ikasle zein irakasleei kalte fisikoa egin dienean, aurrena ikaslea aldaratuko dugu portaera hori izandako tokitik, hiru helbururekin: Gainerako ikasleek beren ikaslanean segi dezaten, ikasleari autoritatea irakasleek daukatela ikusarazi eta lasaitu, eta bere portaeraz gogoeta egin dezan.

Erasoa pertsonen kontrakoa izan bada, pertsona horiek babestea lehenetsi behar dugu, gure gorputzaz babestuz eta erasotzailearen aurretik eramanez.

Ikasle erasotzaileek halako portaerak ikasgelan dituztenean eta guk arreata deituagatik ere ez badituzte zuzentzen, aurrena ikasgelatik aterako ditugu, kalte handiagoak galarazteko. Gehienetan ikaslea bere buruz aterako da ikasgelatik, guk hala eskatuta; hala ez bada, eta ikasgelatik atera nahi ez badu, bere portaeran tematuta, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan piztaldi psikotikoetarako ezarritako protokoloa segitu beharko da (ikus 2.3.4 atalak) eta 112ra deitu, poliziak edo/eta zerbitzu medikoek esku hartu dezaten.

Bere portaeran tematzen dena Lehen Hezkuntzako ikaslea bada, eta gorputzez maneiatzeko modukoa bada, euste prozedurak aplikatu beharko dira tokitik aldaratzeko, ikastetxeko araudian aurrez ezarrita eta hezkuntza agintariei adierazita egonen direnak.

Prozedura horiek betebeharrak izan behar dituzte:

1. Erabilitako indarra, ikasleak egiten dien erresistentziaren araberakoa beharko du izan. Sendoa baina ez agresiboa izanen da.
2. Indarra erabiltzean ez da harekin batera haserrea edo agresibitatea erakusten duen jesterik edo jarrerarik eginen.
3. Euste fisikoa ikasleak erresistentziari utzi orduko desagertuko da.
4. Beti bi aukerak eskaini behar zaizkio: *“Portaera hori hartzen baduzu, eutsi eta aldaratuko zaitut; hobeki portatzen bazara, eusteari utzi eta berriz ikasgelara sartuko zara”*.

Erasotzaileari beti atzetik helduko zaio atxikitzeko, besoak eusten zaizkiola, handik lurrik ukitu gabe eramateko (kasu ostikoei eta burukoei!). Ikasleak eskatzen badigu ez horrela eusteko, eta onartzen badu eskutik helduta handik eramanez, baimena ematen zaio.

Euste fisikoa erabiltzen dugunean ez dugu maitakor eta arrazoizko agertu behar, hori tranpa bat baita; irmo eta zorrotz agertu behar dugu. Elkarreragina eta arrazoibidea gerorako utziko dira,


Kanpo Denboraren azken momentuetan, ikaslea lasaitu denean eta jarreraz aldatzeko prest dagoenerako.

KANPO DENBORAN IKASLEA NOLA KONTROLATU

Behin adingabe erasotzailea Kanpo Denborarako Tokira eraman dugunean, askotan ikaslea oso haserre egoten da eta irakaslearen kontra zuzentzen du bere amorrua eta bai hango gauzen kontra. Ikasleak, irakasleak edo inguruko gauzek kalte hartzeko arriskua galarazteko, honela jokatu dugu:

- Ikasgelatik kenduko ditugu, edo irakaslearen eskumenetik erretiratuko, haren eraso hartzeko moduko gauza eta material guztiak (ordenagailua, maginak, kaxak, beirazko atedun armarioak...). Ikasgelan ikaslea han egoteko eta lan egiteko behar diren ezinbesteko osagaiak baizik ez ditugu utziko (moketa edo alfonbra, mahai eta aulkiak eta banakako eskola materiala).
- Jarraibideak emanen dizkiogu zer egin behar duen argitzeko eta hala egitera bultzatzen (hala behar izaten bada): "Eser zaitez eta segi egiten ikasgelan egiten ari zinen fitxa".
- Ikasleak zapatekin atea edo beirazko zerbait jota zarata handia sortu edo ebaki arriskuaren bat egiteko arriskua badago, zapatak erantziarazi eta oinutsik utzi dezakegu ikaslea lasaitzen den arte. Neurri hori (eta beste edozein euste neurri) halaxe jasota beharko du ikastetxearen araudian eta arrazoituta esplikatu zaie gurasoei.
- Ikaslea behar den adina denboran egonen da Kanpo Denboran baina ahaleginean ez dardila egonaldia batere atsegina izan (nahiago izan dezan ikasgelan egon). Denbora hartan guztian inork ez dezala burua agertu edo harekin elkarreraginik izan
- Ahal den neurrian, ikaslea Kanpo Denboran dagoen bitartean, bere ohiko ikasgelan beste ikasleek jarduera bereziki atsegin eta dibertigarriren bat egiten dute edo sari bereziren bat jasoko, jakiten duenean gehiago damutu dakion hori guztia galdu izana.

Eskuarki, honelako euste fisikoko eta urrundu beharrezko neurriak behar izaten dituzten ikasleek, mugak ezartzeko prozesuan manipulazio eta egoeraren deformazio estrategiak erabili ohi dituzte; horrek pazientzia eta segurtasun handia eskatuko dio irakasleari, eta egintza koherenteak ere bai, noski.



2.3.6. Droga kontsumoa

Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan maiz asko aurkitzen dira gehiago ala gutxiago eskola jarduerarekin bateraezinak diren sustantziak kontsumitzen dituzten ikasleak. Kontsumo horrek, gainera, kaltegarria izanen da epe labur nahiz luzera haien osasun fisiko nahiz mentalerako. Sustantzia horiek, oro har, droga izena hartzen dute, eta honela sailka ditzakegu, pertsonaren nerbio sistemaren gainean duten eraginaren arabera:

Nerbio sistemaren behertzaileak
Alkohola
Hipnotikoak (lo egiteko pastillak eta barbiturikoak)
Antsiolitikoak (Benzodiazepinak: Diazepam, Lorazepam, Bentazepam...)
Opioideak (Heroina, Morfina, Kodeina eta Metadona)
Lasaigarriak
Inhalanteak

Nerbio sistemaren bizkorgarriak
Tabakoa (Nikotina...)
Anfetaminak, Metanfetaminak, Speed
Kokaina eta haren eratorriak
Xantinak (kafeina, Teobromina)

Sustantzia psikodeliko edo asaldagarriak
Aluzinogenoak (LSD, Meskalina...)
Kannabinoideak (Hatxisa, Marihuana...)
Extasia, Ketamina

Bistan denez, sustantzia horiek guztiek ez diote nerbio sistemari modu berean eta intentsitate berean eragiten; haietako batzuen eragina batzuetan oharkabean pasa daiteke eskarmentu gutxiko ikusle baten begian (bereziki hartutako dosia txikia denean), baina beste batzuek, hura kontsumitu duen pertsonari eragiten dioten egoera psikikoa bateraezina da eguneroko bizitzaren funtzio eta eginkizunekin eta, bereziki, eskolako eginbeharrekin, horiek funtzio kognitibo asko eta korapilatsuak abian jartzea eskatzen baitute (arreta, oroimena, gogoeta, lotura, analisia...).

“DROGARIK GABEKO EREMUAK”

Legeak aginduta, ikastetxeak drogarik gabeko eremuak dira; beste gizarte instituzio guztiek bezala, ikastetxeek ere prebentzio estrategiak eta programak diseinatu behar dituzte, hainbat helbururekin: Hasierako kontsumoa nekeztetik hasi, harik eta droga kontsumoak osasunerako, gizarterako eta eskola lanerako dituen ondorio kaltegarriak murrizteraino. Hartarako, informazio, aholku, sentikortze eta ber-hezte programak abiatu beharko dituzte eta bai instituzio espezializatuarekin koordinazio eragingarriak ezarri ere goizdanikako esku-hartzea, tratamendua, errehabilitazioa, prebentzioa, tratamendu-ondoa, berrerortzeen prebentzioa eta bergizarteratzea segurtatzeko. Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batek arlo honetan iritsi beharreko helburuak, gehienbat, honako hauek dira:

- Irakasleak sentikortzea, ohartu daitezen zer prebentzio eginkizun duten osasunaren eragile gisa.

- Hezkuntza komunitate osoak oinarrizko osasun ohiturak beregana ditzan erraztea.
- Ikasleen artean elkarreragin eta maneiamendu sozialeko trebetasunak eta gaitasunak gararaztea.
- Ikasleen artean identitate sentimenduak eta norbere independentziako gaitasunak gararaztea.
- Testuinguru fisiko nahiz sozial osasuntsua eta beraz drogarik gabea, diseinatzea.

Helburu horiei aurre emateko, ikastetxe batek, aurren-aurrena, bere-bere definizioa eraiki behar du **“droga gabeko eremuak”** zer diren zehazteko. Definizio horrek bi printzipio oinarrizko izanen ditu:

1. ESKOLA BARRUTIAN ERABAT DEBEKU DA INORK AIPATU SUSTANTZIA HORIEK KONTSUMITU, ERAKUTSI EDO ERABILTZEA.
2. ERABAT DEBEKU DA INOR IKASGELARA HALAKORIK KONTSUMITU ONDOREN ETA HAIEN ERAGINPEAN DAGOELA SARTZEA.

Ez da erraz izanen gure ikastetxeak benetan drogarik gabeko eremu izan daitezten lortzea; a legea hain deblaukoa bada ere, esperientziak irakatsita dakigu ikastetxe askotan oso gauza arrunta dela drogak erabili, erakutsi eta bai saltzea ere; horregatik, ikastetxe bakoitza, bere ezaugarriak eta kasu egiten dion biztanleriaren ezaugarriak aintza harturik, berariazko programa eraiki beharko du arazoari aurrea hartu nahiz esku hartzeko. Prozesu horretarako guk honako faseak segitzea gomendatzen dugu:

LEHENBIZIKOA	Prestakuntza proposamen eta jarduerak diseinatzea irakasle taldearentzat, fami- lientzat eta Administrazio eta zerbitzuetako langileentzat. Espezialistek aholku emanez parte hartzeak eta beste ikastetxeetako irakasleek ere laguntzea oso prozedura egokiak dira hartarako.
BIGARRENA	a) Ikasleek droga kontsumoaren gainean zer ezagutza eta esperientzia ditzu- ten aztertzea. Hartarako bakarkako galdetegiak erabiliko ditugu, honako hau, adibidez: 26. ERANSKINA “Sustantzien erabileraren gaineko galdetegia” (193-195. orr.) . Handik ateratako datuak (konfidentzialtasunik handienarekin tratatu beha- rrekoak), baliaigarri izanen zaizkigu prestakuntza programa doitu eta zehazteko. b) Prestakuntza jarduerak egitea ikasleekin gizarte eta autokontrol trebetasuna handiagoak haiei emateko (Ikus 3.2. Atala “Prestakuntza esku-hartzea”, hurren- go kapituluari) eta sustantzien erabilerak eta abusuak osasun fisiko, psikiko eta emozionalaren gainean izaten dituen ondorioen gainean.
HIRUGARRENA	Ikastetxeko Bizikidetzaren Araudia berrikusi eta aldatzea, bertan hezkuntza komu- nitateko kideek sustantziak kontsumitzearen gaineko arauak sartzeko, eta bai arau horiek ez betetzeak izanen dituen ondorio eta neurriak ere.
LAUGARRENA	Hezkuntza komunitateko kide guztiei (ikasleak, familiak, irakasleak eta admi- nistrazio eta zerbitzuetako langileak) araudi berriaren berri ematea, halan nola ezarritako neurrien eta gainbegiratze eta kontrol prozeduren berri ere.
BOSGARRENA	“Drogarik gabeko Ikastetxea” delako arauzko egoera berria orotara zabaltzea. Kartelak, horma-irudiak, debeku seinaleak... Ikasleen obra plastikoaren erakusketa. Bai eta teatro antzeztaldiak, hemen jasotzen den bezala: 18. ERANSKINA “Linter- na magikoa” (ikasleek egindako gidoiak).
SEIGARRENA	Hezkuntza komunitate osoak zorrozki begiratzea araua nola funtzionatzen ari den eta, hausten den kasuetan, sistematikoki Bizikidetzaren Araudian jasotzen diren ondorio eta neurriak aplikatzea.

KONTSUMOAK GORPUTZEAN NAHIZ PORTAERAN AGERI DITUEN SEINALEAK. NERBIO SISTEMAREN GAINKO ERAGINAK

Irakasleek izaten dituzten problema handienetako bat izaten da jakitea nola esku hartu behar duten ikaslea bat ikasgelara lehendik kontsumitutako sustantzia baten eraginpean azaltzen bada. Irakasleek, maiz aski, beste aldera begiratu nahiago izaten dute (lo egitera utzi, ahal den traba txikiena egin dezan saiatu...); beste batzuetan ikaslearen portaeretan zentratzen du bere esku-hartzea (sintometan); arreta deituz, egiten duen trabari ondorioak aplikatuz... Egokiena, ordea, esku-hartzea kontsumoan zentratzea izanen litzateke, eta hori agerian uztea ikasleari berari eta bai bere ikas-kideei ere. Halakoetan oso maiz ikasleak ukatu egiten du ezer kontsumitu izana; seinaleak, ordea, fisikoa, psikikoak edo emozionalak, osoa argiak izaten dira:

Portaera seinaleak
Gehiegizko barreak, deskontrolatuak eta testuinguru gabeak
Zakarraldiak, testuinguruz kanpoko mezuak
Hizkera trabatu eta nekeza
Logura eutsiezina
Portaera aldaketak: Nagialdiak, apatia nahiz hiperaktibitatea
Adiskidez aldatzea
Familiarekiko bakartzea
Eskolara huts egitea eskola emaitzak asko txartzea
Gezurra esan eta ohostea
Aldarte aldaketak: Haserrekortzea edo depresioa

Gorputz seinaleak
Begi gorrituak
Begi-niniak dilatatu edo txikitzea eta argiaren aurreko erreakzio gutxi
Begizuloak
Itxura zakarra eta higiene pertsonaleko utzikeria
Dardarak
Mugimendu deskoordinatuak

Portaera seinale hauetako askok (portaeraz, adiskidez eta ohituraz aldatzea...) bide emanen digute jakiteko gure ikaslea ohiko kontsumitzailea den; beste batzuek berriki kontsumitu duen utziko digute ikusten (begi gorrituak, begi-nini dilatatuak, logura, barreak...).

Ikasle batek sustantziak kontsumitu baditu, problema ez da bakarrik ikastetxearena, familiarena eta gizartearena ere baizik; hortaz komeni da eskolak edo institutuak familientzako prebentzio eta pres-takuntza saioak eratu ditzan, honako gai hauek jorratzeko:

Ikaslea eta gazteek maizenik kontsumitzen dituzten sustantziak
Zer adinetan hasten diren
Kontsumoak zer seinale dituen (gorputzean eta portaeran)
Ikastetxek zer araudi duen droga kontsumoari buruz
Bizikidetzaren Araudiak zer Hezkuntza neurri aurreikusten dituen



Ikastetxe eta familien arteko koordinazio prozedurak
Kontrol estrategiak (zainketa, elkarrizketa-errespetua-laguntza)
Inguruan erabilgai dauden baliabide espezializatuak

KONTSUMOEN AURREKO ESKU-HARTZEA

- Gure ikaslea bat sustantzia sorgarrien eraginpean sartu bada ikasgelara, aurreko tauletako seinale bat edo batzuk ageri baititu, saioaren ardura duen irakaslek Bizikidetza Araudian jasotzen diren prozeduren arabera jokatu behar du. Funtsean honako hauek dira:

Ikastetxeko arduradun bat deitzea (zuzendaritza taldeko kide bat, edo orientaziokoa) denen artean:

- Ikaslea nola dagoen baloratu eta egoera sustantziak kontsumitu izanak eragin dion juzgatzea.
 - Baiezkoan, ikaslea ikasgelatik atera eta eremu pribatu batera eraman.
 - Familia abisatzea (ikaslea adingabea denean).
 - Bizikidetza Araudia n jasotako neurriak hartzea.
- Susmoa baldin badago ikastetxearen inguruan droga kontsumitu edo salerosi egiten dela, komeni da segurtasun indarren departamendu espezializatuei deitzea (Guardia Zibila, Udaltzainak, foruzainak edo polizia nazionala) aldiari aldiko kontrolak egin ditzaten trafikoa uxatu edo zigortzeko.
 - Irakasle batek susmoa hartzen badu bere ikasle batek eskolaren barrutian lehen aipatu sustantzia ilegal horietako bat eraman edo halakorik erakutsi edo salerosi duela, delako sustantzia entregatzeko eskatuko dio ikasleari, gero suntsitzeko; hark ezetz esaten badio, segurtasun indarrei deituko die, haiek sustantzia kendu eta kasurako behar diren neurriak hartu ditzaten (prozedura hori Bizikidetza Araudian aurreikusia behar du eta hezkuntza komunitateko kide guztiek jakin behar dute haren berri).
 - Tabakoa droga legala da eta ez du nerbio sistemako alteraziorik sortzen ikasgeletan eskatzen den bezalako jardunbide kognitibo nekeztu edo galarazteko modukorik. Ikasleek eskubidea dute hura edukitzeko, baina debeku da eskolaren barrutian hura manipulatu, erakutsi edo kontsumitzea. Arau hori hezkuntza komunitateko edozein kidek hausten badu, Bizikidetza Araudiak ezartzen dituen ondorioak izanen ditu.
 - Eskola barrutia zabala izan eta eremu eta zoko asko dituenean, egoera hori aprobetxatzen da haietan ezkutuan eta zigor beldurrik gabe tabakoa edo beste sustantziak kontsumitzeko. Hori galarazteko, irakasle taldeak eremu horiei begia edukitzeko txandak ezarri beharko ditu, hori gertatzea galarazi edo kontrolatzeko.

HEZKUNTZA NEURRIAK KONTSUMOEN AURREAN

“**Drogarik gabeko eremua**” kontzeptua eraikitzen duten bi printzipio oinarritzako edozein hausten badira hartu beharreko hezkuntza neurriak:

- ESKOLA BARRUTIAN DEBEKU DA INORK DROGAK KONTSUMITU, ERAKUTSI EDO MANIPULATZEA.
- DEBEKU DA INOR IKASGELARA DROGAK KONTSUMITU ONDOREN ETA HAIEN ERAGINPEAN DAGEN BITARTEAN.


Hezkuntza neurria horiek zehatzak eta hautatuak izanen dira, ekitatea, proportzionaltasuna, etika eta hezkuntza bezalako irizpideak aintzat harturik, halatan non ikasleek ez dituzte neurriak zigor hutsekotzat ikusten, prestakuntza emaitzat eta zuzentzat baizik. Ildo horretatik, ezin izanen dizkiegu neurri berak ezarri kondizio pertsonal, familiar edo sozial banako ikasleei, zeren agian kondizio horiek berak baitira beren dependentzia, beren kontrol ezaren oinarria, eta bai hobekuntza helburuak ezarri eta haiek iristeko egintzak gauzatzeko duten gaitasunaren oinarri ere. Halako ikasleak arrisku handiko taldeetan jaioak izaten dira eta horrexegatik, laguntza pertsonal espezializatu gehiago behar izaten dute eta bai sentikortasun berezia ere hezkuntza neurriak hartzerakoan, zeren haietako batzuek, nahi gabe, lehendik ere berez eta beren kondizioengatik sufritzen duten eskusioa eta bazterkeria handitu baitezakete.

Arrisku taldeak haur eta gazteen artean
Eskolatzeko maila gutxiko edo batere gabeko haurrak eta gazteak.
Ongizate instituzioek kasu egiten dieten haur eta gazteak.
Ettxerik ez duten haur eta gazteak, "kalekumeak".
Gatazka egoeran edo gatazka ondokoan dauden haur eta gazteak.
Lan merkatuan dauden haur eta gazteak.
Droga abusuen maila handiko inguruetan bizi diren haur eta gazteak.
Haur eta gazte delinkuenteak.

Guk proposatzen ditugun hezkuntza neurriak honelakoak dira:

- Zuzentze konpromiso bat egitea, araua hautsi duen ikasleak sinatua bere tutorea, ikaske-taburua eta guraso nahiz legezko tutoreak aurrean direla (adingabeak badira).
- Ber-heziketa eta terapia programetan parte hartzea, erakunde espezializatuek antolatutako (SUSPERTU, Gizakia Helburu...).
- Ekintzak egitea hezkuntza komunitatearen alde: Ikastetxea eta haren ingurua garbitzea (hondakinak eta zigarro kondarrak biltzea) edo laguntza lanak altxari eta instalazioak mantentzeko (konponketak eta berritzeak).
- Gizartearen aldeko ekintzak egitea: Pertsona dependentziadun edo ezgaitasundunei laguntzea: Beren tokialdatzeetan, lanetan eta aisia jardueretan... Halako lanak aurrez ezarritako egonen dira, aurrez eskolak eta pertsona dependentziadun edo ezgaitasundunen arduraren erakundeak hitzarmena eginik, eta alderdi inplikatuak onartuak izanen dira eta etengabe gainbegiraturik.
- Eskola lan osagarriak egitea, edo errehabilitazioak, epe jakinetan aurkitu beharrekoak.
- Beheragoko mailako ikasleei beren eskola zailtasunak gainditzeko laguntzea (zuzenean gainbegiraturik).
- Behin eta berrizko hutsak egin dituzten ikasleen kasuan, eta haren portaera larria bada eta arriskutan jartzen baditu bai egilea bera eta bai bere ikaskideak eta gainerako hezkuntza komunitatea, irakasle taldeak zilegi izanen du, salbuespenez, bestelako hezkuntza neurriak hautatu eta ezartzea, Bizikidetzako Araudiak aurreikusitakoak, hala nola:

- Ikastetxera gainerako ikasleak baino ordu laurden bat lehenago etorri beharra eta ordu laurden bat beranduago atera beharra.
- Jarduera osagarriak egiteko eskubidea galtzea. Beste guztiekin jolas orduan parte hartzeko eskubidea galtzea.
- Ikasgelatik denbora tarte jakin batez bidaltzea, baina ikastetxera etorri eta beste eremu batean bakarka lan egiteko obligazioarekin.
- Ikasgelatik denbora tarte jakin batez bidaltzea, baina eskola lanak egin eta haiek berri eskolara sartzeko datan aurkeztu eta programa terapeutiko espezializatuetan parte hartzeko obligazioarekin.
- Ikastetxetik bidaltzea. Matrikula ezeztatzea. Beste ikastetxe batera lekualdatu beharra...



3. PORTAERAKO ESKU-HARTZE MAILAK

3.1. Prebentziozko esku-hartzea

Prebentziozko esku-hartzearen helburu da behar diren oinarriak ezartzea erakundearen helburuen araberrako bizikidetzaz giro bat eraiki ahal izateko; lan honen lehenbiziko parteaz ia osorik horretara eskainita dago. Ingurune fisikoa jakinaren gainean eta modu ordenatuan manipulatzeko (eremuak, altxariak, argitasuna, baliabide materialak...), edo ingurune soziala (ikasleak nola banatu, nola egin taldeak, rola, arauak...) eta ikastetxean zein ikasgelan pertsonen premia oinarritzkoak ase egingen direla bermatzea dira erakundearen giro soziala eraikitzeke erabiltzen ditugun hiru zutabeak. Prebentziozko esku-hartzea beti ikastetxeko profesionalen ardurapean gelditzen da, ikastetxean, eta gurasoen ardurapean ikaslearen etxean, eta huraxe da, hain zuzen esku-hartzerik naturalena eta ekologikoa bizikidetzaren ohiko testuinguruetan mamitzen baita, litezkeen portaera disrupzioak gertatuko diren eremu berberetan, alegia.

Abian jarri diren prebentzio neurriek nahi bezalako emaitzak izan ote dituzten baloratzeko, berrikusi behar genuke, aurrena, gure ikastetxe/ikasgelan zenbait printzipio psikosozial oinarritzko bete diren, hala nola: Errespetua, harrera, segurtasuna, eta erosotasuna, erraztea, empatia, konfiantza, identitatea, funtzionalitatea, esperientzia eta erantzunbeharra. Hemen: **27. ERANSKINA "Gure ikastetxean/ikasgelan ebaluatu beharreko printzipio psikosozial oinarritzkoak"** (196. orrialdea), tresna bat eskaintzen dugu eginkizun horretan laguntzeko. Galdera horiei baiezka ala ezezka erantzuteak esanen digu zer alderditan sakondu behar dugun, zuzentzeko, eta zeinetan ahaleginari eutsi behar diogun, mantentzeko,

3.2. Prestakuntza esku-hartzea

Gizarte taldeetan izaten diren gatazka askoren jatorria eta luzagarria, haien protagonista diren pertsonen ezgaitasunean edo trakeskerian egoten da. Heldutasun falta, introspektzio gaitasun eskasa izatea, harreman osasuntsuak ezartzeko baliabide falta, esperientzia traumatiko edo hezkuntza-kontrakoak, pertzepzio akatsak, gogoeta falta, deskontrol emozionala eta beste disfunkzio psikosozial posible askok esplikatzen dute askotan, ikusle eskarmentu gabearen begiari ihes egiten badio ere, nondik datozen portaera desegokituak eta zergatik lokazten diren gatazkak.

Halako kasuetan problemak prestakuntza faltan du sustraia: Jakin behar dugu zer ezagutza, eta zer gaitasun (arazoei arrakastaz aurre egiteko beharrezkoak) falta dituzten gatazkan diren pertsonen, prestakuntza-ekintzen bidez haiek eskuratzen laguntzeko.

3.2.1. Komunikazio trebetasunak

Maiz asko komunikazio trebetasunik ez izatea dago portaera desegokituen jatorrian. Norbaitek bere ideiak, sentimenduak, premiak edo interesak ohiko bide hitzezko nahiz hitzik gabekoen bidez adierazten ez dakienean edo gai ez denean, beste adierazpide gutxiago helduak eta desegokiak erabiltzen ditu (portaera instrumental-manipulatzaila). Halako kasuetan, gure lehentasuna izanen da ez soilik portaera disruptiboak desagerraraztea, baizik eta, eta bereziki, kasuko ikasleari falta dituen komunikazio trebetasunak ematea. Gai hau oso ardu handikoa gertatzen da zenbait nahasmendu psikiatrikoren kasuan, hala nola Espektru Autistaren Nahasmenduan, zeinetan pertsonen arteko komunikazioa eskasa, zurruna edo gutxi nabartua izaten den.

Halakorik ez duten pertsonekin (irakasleak, familia, ikaskideak, ikaslea) landu behar ditugun komunikazio trebetasun nagusiak honako hauek dira:

■ ENTZUMEN AKTIBOA

Besteak zer esaten digun hautemateko gaitasuna ez ezik, entzuteak zera ere esan nahi du: Pentsamendua abian jartzea haren mezua ulertu, interpretatu eta baloratzeko, haren deformazio posibleaz edo nahiaren gaineko manipulazioaz ohartu garena. Entzuten jakitea oso garrantzi handiko gauza da komunikazioan, maiz, besteari entzun beharrenean, denbora asko pasatzen baitugu geurok pentsatzen dugunari eta geurok esaten dugunari adi. Entzumen aktiboak esan nahi du beste pertsona zuzenean esaten ari dena entzuteko gai izan ez ezik, esaten saiatzen denaren azpian dauden sentimendu, ideia eta pentsamenduak ere entzuten jakitea.

Hona hemen elkarreragin aktiboan present egon behar duten jarrerak:

- **Prestasun psikologikoa:** Orainaldian egon, arreta etengabea eman eta besteari begira egon: Esaten duenaren edukiari, helburuei eta sentimenduei erreparatu.
- **Entzumena konfirmatzea:** Hizkuntzaren funtzio faktikoa deitu ohi zaio (*ikusten dut bai, umm, uh, eta abar*), besteak esaten duena parafraseatzea, laburbiltzea, galderak egitea... eta bai hitzik gabeko hizkera ere (begi kontaktua, jestuak, gorputzaren makurdura, irribarre arina...).

Entzumen aktiboa bakarka eta norbere buruarekin entrenatu daiteke (irakasleak eta gurasoak) eta aski erraz ikasgeletara lekualdatu; aski da besterik gabe eskolako elkarrizketa eta eztabaidak honako jarraibideen arabera antolatzea:

- * Eginahalean ez naiz beste norbait hizketan ari den artean distrahituko. Aurpegira begiratu diot.
- * Ezin dut hizketan ari dena eten.
- * Ez dut hura juzgatuko eta neure ideiak inposatuko, harenak entzungo baizik.
- * Ez diot muga baino lehen eta informazioa oraino izan gabe laguntza eskainiko.
- * Ezin dut bestea sentitzen ari dena arbuiatu eta balidatu gabe utzi.
- * Nire iritzia ematean ez dut bestea deskalifikatuko.
- * Ez naiz saiatuko haren iritzia entzun beharrenean nereak kontatzen.

Behin jarraibide hauek erraz asko erabiltzen direnean, entrenamenduko bigarren fase batean galderak egiteko modua garatzera pasatuko gara, parafraseatzea eta laburbiltzea erabiltzera, ikasleek helduagoko eta eragingarriagoko entzumen ohiturak garatu ditzaten.

■ BALIDAZIOA EMOZIONALA

Balidazioa emozionala da zeure mintzakideari aditzera ematea kasu egin zaiola eta abiapuntu duen jarrera emozionala ulertu eta baloratzen zaiola. Prozedura honek komunikazioa hobetu eta eragin positiboa izaten du harremanerako, konfiantzazko giroa sortzen baitu. Beste pertsonari esatea ulertu diozula, adi egon zarela erakustea eta haren iritzia errespetatzen duzula argi uztea aski izaten da komunikazio ingurune lagungarria sortzeko. Komunikazio sozialeko eta masa maneiamenduko adituek abilezia berezia izaten dute gaitasun honetan.

■ HITZIK GABEKO HIZKERA

Gorputzaren jarrera, begien kontaktua edo jestuak, adibidez, hitzezko mezua bera bezain garrantzizkoak izaten dira komunikazioan. Hitzezko osagaia informazioa helarazteko erabiltzen da; hitzik gabeko osagaia, berriz, egoera emozionalak eta jarrera pertsonalak helarazteko. Hitzik gabeko mezuak, askotan ohartu gabe bidaliak eta ohartu gabe jasoak, oso erreakzio eragingarriak izaten dira, halere, eta hein handian itxuratzen eta baldintzatzen dute mezuaren esangura; ahalmen horri esker, irakasleek eta gurasoek haien berri jakin behar lukete, beren mesedetan erabiltzeko.

Hitzezko nahiz hitzik gabeko komunikazio mezuen erabilera ezin daiteke ikasgelan trebatu. Hona hemen zein alderditan aukera dugun geurok geure burua arlo honetan trebatzeko:

- **Elkarrizketaren plangintza:** Guk gure ikasleekin edo haiek beren artean gai baten gaineko elkarrizketa hasi baino lehen, beharrezkoa da parte-hartzaile bakoitzak gaiaren gainean dituen ideiak erreparatzea, antolatzea eta besteek izanen dituzketen ideiak aurreikustea.
- **Garen bezala geure burua erakusten ikasi:** Histan ibiltzetik eta jarrera faltsu edo “politikoki zuzenak” hartzetik ihes egitea. Normalean garen bezala adierazi gauzak.
- **Besteak hauteman:** Ohartuki beta hartuko dugu hizketan ari denari eta entzuten daudenei erreparatzeko, zein emozio ageri dituzten antz ematen saiatuz
- **Protagonismotik ihes egin:** Beti buruan eduki besteak eta haien ideiak direla garrantzizkoak. “Ni beste ekarle bat baizik ez naiz”.
- **Entzumen aktiboa:** Nahiz ideia ederrak edo erantzun oso aproposak bururatu, zain geldituko gara besteek esaten dutenari adi.
- **Hitzik gabeko hizkera:** Geure gorputzaren jarreraz ohart izanen gara. Hitzik gabeko baliabideak erabiliko ditugu besteak jakin dezan entzumen eta ulermen jarreran gaudela (irribarrea, gorputza agondurik, burua mintzakideagana makurturik, buruaz baiezkak...)
- **Ez kritikatu:** Ez dugu inoiz besteek esan dutena kritikatu; besterik gabe geure ideiak aurkeztuko baizik.



Gogoan izan!

Hitz egiten baduzu, agian entzunen zaituzte.

Entzuten baduzu, seguru ulertuko duzula.

3.2.2. Gizarte trebetasunak

Portaera desegokitasunen parte baten jatorria, halakoak dituzten pertsonak ageri dituzten gizarte integrazio, parte-hartze eta ekintzarako dituzten zailtasunetan dago. Portaera ez da alferrik, beti, gizarte ekintza bat, bide ematen diguna besteen gainean eragin, gauzak erdietsi edo sentimenduei eta emozioei aterabidea emateko. Ekin egiten duen pertsonak ekimen hori desegoki egiten badu, edo testuinguruz kanpo, edo proportziorik gabe, besteek arazo-emangarritzat edo gogaikarritzat ikusten dute haren portaera. Ikuspuntu horretatik, egokiena litzateke zuzenean portaeraren gainean eragitea, portaera baita kaltegarri agertzen dena. Hala ere, esku-hartze horrek ez luke galaraziko laster ala berandu gauza bera modu berean errepikatzea, delako pertsonak ez baitu modu helduago eta egokituagoan jokatzeko tresnarik.

Gizarte elkarreragineko trebetasunak garatzea da hezkuntza sistemaren helburu nagusietako bat. Gure ikasleek, gure ahalegin guztiengatik ere, ez badute behar adinako maila iritsi gizarte testuinguru desberdinetan eta mintzakide desberdinekin eragingarri eta egoki jokatu ahal izateko, beraiazko laguntza beharko dute hori lortzeko.

Nola irakats ditzakegu, ordea, gizarte trebetasunak ikasgelan baldin gainerako ikasleek dagoeneko beretu badituzte, ezarritako programari traba egin gabe? Hona hemen hartarako zenbait aukera:

■ IKASKETA BIKARIOA

Beste pertsonak elkarreragin-egoera batean nola jokatzeko duten ikusiz ikasten da gizartean jokatzeko. Imitatzeko ikaspen hori ikasbide ahaltsua dela bistan gelditu da, gizarte portaera pixkanaka moldatuz joaten dena. Egoera eta esperientzia aproposak eduki behar ditugu, beraz, jokaera osasuntsuak eta gizarterako egokituak iarakasteko modukoak. Eguneroko gertaera eta gatazkak imitazio ereduak eskaintzeko erabil daitezke, bada. Eredu horiek, irakasleak, ikaskideak edo komunikazio bideak eskain ditzakete (aurrez edukia hautatuta). Kasuren batean, beharrezkoa izan daiteke ikasleari bistan uztea zein trebetasun jarri diren abian eta zeinen eragingarri izan diren: *“Hona zer egin zenezakeen zuk ere antzeko egoera edo gatazkei aurre egiterakoan”*.

■ BERRELKADURA ETA ERREFORTZUA

Gizarte trebetasunak norberegantzea indartzeko, gizarte berrelikadura baliagarria da (mintzaki-deek emandako *feedback* positiboa). Errefortzu horrekin lortzen da agertutako gizarte portaerari iraunaraztea edo kalitatez hobetu eta handitzea. Ikasgelan bereziki abilak izan beharko dugu gure ikasleei berrelikadura emateko beren pertsona arteko harremanetan trebetasun berria erakusten duenean: *“Ederki egin duzu! Izugarri gustatu zait nola jokatu duzun honetan!”*.

■ ESPEKTATIBA KOGNITIBOAK

Egoera jakin bati arrakastaz aurre egiteko aukeren aurreikuspenak dira. Norbere esperientzia pertsonalaren arabera, bakoitzak onerako nahiz txarrerako espektatibak garatzen ditu gizarte erronka edo gatazka bati aurre egitean espero dituen emaitzen gainean. Onerako espektatibak, esperientzia arrakastatsuen ondorioz lortzen dira eta txarrerakoak, berriz, bizi izandako porroten ondorioz.

Ildo horretatik, komeni da behar diren laguntza guztiak ematea gure ikasleek ematen dizkiegun esperientziak arrakastaz konpondu ditzaten. Haietako batzuei espreski hitzetan jarri beharko diegu gerok haien ekintzaren gainean zer espektatiba ditugun. *“Momenturen batean, halako arazoei buru egin beharrean egonen zara zu ere, badakizu lehengoetan nola egin diegun aurre... segur naiz erabat ongi eginen duzula”*.

■ JARRAIBIDEAK SEGITZEA

Esplikazio argiak, laburrak eta prestakuntzaren helburu diren trebetasunetan zentratuak. Ikasleari adierazten diote nola egin behar duen; informazio gida bat dira ikasleak jakin dezan nola jokatu behar duen, zer esan eta nola egin: *“Zure ikaskideei hitz egiten diezunean, begietara begiratu behar diezu, burua pixka bat jaso eta argiro esan zer adierazi nahi diezun... hasi baino lehen idatzirik eramanen dugu eta irakurtzea entseiatuko dugu, ondoren dena segidan esanen duzu...”*.

■ ROLE PLAYING

Rol edo paperak antzeztea da. Prozedura honen bidez pertsonen arteko gatazka egoera jakin batendako erantzunik gomendagarrienak trebatzen dira. Oso maiz erabiltzen da prozedura hau gizarte trebetasunak entrenatzeko. Teknika hauen bidez subjektuak behar adina aldiz praktikatzen ditu portaera egokiak. Hona hemen *role playing* sekuentzia posible bat:

- * Egoera edo arazo baten deskripzioa.
- * Subjektuak halako egoeretan egin ohi duena antzeztea.
- * Litezkeen kognizio negatiboak antz ematea.
- * Subjektuarendako helburu egokiei antz ematea.
- * Irakasleak edo ikaskideek portaerak modulatzeko.
- * Trebetasuna praktikatzeko.
- * Eragingarritasuna ebaluatzea.

■ JOKO SOZIALAK

Joko sozialak (merkatuan halako asko daude) emaitza onarekin erabili izan dira ikasleengan gizarte trebetasunak garatzeko. Helburua da harreman ohitura osasuntsu eta helduak gararaztea, joko esperientzia atsegingarrietan parte hartuz.

■ GIZARTE TREBETASUNAK GARARAZTEKO BERARIAZKO PROGRAMAK

Elkarreragin sozialeko trebetasunak garatzea ezinbestekoa da gizabideratze prozesuan, ez baika-ra alferrik izaki sozialak, geure izaera eta nortasuna besteekiko harremanari esker itxuratzen dugunak. Hezkuntza sistemak bultzatu eta sustatu behar ditu gizarte esperientzia arrakastatsuak eta pixkanaka gero eta helduago eta konplexuagoak. Gure ikasleek beretu dituzten gizarte trebetasunen ebaluazioa, eta bai oraindik ikaskizun dituztenena ere, berariazko programa eta proposamenak itxuratzeko abiapuntua.

Gure ikasleen gizarte portaerari erreparatzea gure tresnetako bat da, baina gure ikasleak behar bezain helduak direnean, zuzenean galdetzen ere ahal diegu zeinen trebeak sentitzen diren alderdi horretan; hartarako, hemen eskaintzen duguna bezalako tresnak erabiltzea daukagu: **28. ERANSKINA** “Elkarreragin sozialeko trebetasunetan nor bere burua ebaluatzeko galdetegia ” (190-191. orrialdeak).


Behin antz eman diogunean ikasleek beren gizarte trebetasunei dagokienez zer premia dituzten, momentu egokia izanen da prestakuntza ekintzekin hasteko. Hartarako, merkatuan eskuragai dauden programa ugariak (ikus: Inés Monjas, Maite Garaigordobil, besteak beste) gaia erabat ahitu artekoak izaten dira eta denbora eta lan asko eskatu ohi dute; askotan, ordea, oso eragingarriak direla ikusi izan da. Haietara bidaltzen dugu irakurlea, horiek gauzatu beharra izatekotan.

3.2.3. Funtzio exekutiboak

Funtzio exekutiboak trebetasun kognitibo konplexuak dira norbere portaera kontrolatu eta erregulatzeko. Funtzio horiek behar bezala garatzeak bide ematen digu eguneroko eginkizun asko zuzen eta eragingarri egiteko. Funtzio exekutiborik garrantzitsuen eta onarpen gehien dutenen artean honako hauek daude:

LAN OROIMENA	Informazioa eta haren prozesatzea aldi jakin baterako altxatzea (manipulazioa eta eraldatzea).
PLANIFIKAZIOA	Helburuak sortu, ekintzarako planak garatu eta, ondorioak aurreikusiz haien artean egokiena hautatzeko gaitasuna.
ARRAZOIBIDEA	Gaitasun honek bide ematen digu askotariko arazoak oharraren gainean konpontzeko, haien arteko loturak ezarriz.
MALGUTASUNA	Gaitasun honek bide ematen digu lehendik planifikatutako zerbitu aldatzeko, inguruko zirkunstantzia aldakorren arabera moldatuz.
INHIBIZIOA	Gaitasun honek bide ematen digu lan bat egiten ari garenean bulkoak edo arduragabeko informazioa, barnekoa nahiz kanpoko, bazter uzteko.
ERABAKIAK HARTZEA	Zenbait aukeraren artean gure premien arabera hautatzea, guztien on-gaitzak eta ondorioak aintzat harturik.
DENBORA ESTIMATZEA	Gaitasun honek bide ematen digu gertaera edo jardura baten iraupena eta denbora tartea gutxi gora behera kalkulatzeko.
BITARIKO ERANSKINA	Bi eginkizun desberdin aldi berean gauzatzeko gaitasuna, biei ala biei etengabe arreta emanaz.
<i>BRANCHING</i> (MULTIATAZA)	Gaitasun honek bide ematen digu atazak aldi berean ongi antolatu eta egiteko, atazak tartekatuz eta uneoro bakoitza zertan den dakigula.

Beste egile batzuek (Anderson 2002) uste dute funtzio exekutiboak elkarrekin sakon eta hertsiki loturik daudela, nahiz eta bakoitza beregain ere gauzatzen diren. Lau arlo elkar-lotutan sailkatzen dituzte:



2.3. Atalean aipatu ditugun nahasmenduen parte handixko batek (bai eta aipatu gabeko askok ere), funtzio hauen garapenerako eskostasun bat agertzen dute beren sintoma oinarritzkoen artean. Neurologikoki, funtzio exekutiboak garuneko egitura prefrontalekin loturik daude (azal prefrontala, dorso-laterala, bentromediala, orbitofrontala eta zingulatu aurrekoa). Zorionez, garunaren plastizitateari esker, funtzio exekutiboak errehabilitatu eta trebatu egin daitezke haien emaitzak hobetzeko. Funtzio exekutiboetan eskas dabiltzan ikasleek beharrezkoa dute ikastetxeak arlo horretan lehentasunez esku-hartzeko programak diseinatu eta abian jar ditzan.

Horri dagokionez, hemen: **29. ERANSKINA** “Zentzumen askotako ariketak arreta eta funtzio exekutiboak trebatzeko” (199-204. orrialdeak) hainbat lan fitxa eskaintzen ditugu Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako lehen mailetako ikasleentzat eratuak; fitxa horiek itxuratzeko, José Antonio Portellano Pérezek “Cómo desarrollar la inteligencia. Entrenamiento neuropsicológico de la Atención y las Funciones Ejecutivas” eskuliburuan egindako proposamenak hartu dira oinarri.

Interneten, bestalde, hainbat proposamen daude funtzio exekutiboak trebatzeko; haien artean **CogniFit**-ekoak gomendagarriak iruditzen zaizkigu (dohaineakoak. Oso atseginak eta on-linekoak).

www.cognifit.com/aplicaciones/html5/index/assessment/ASSESSMENT_AmPOr

ikusmen funtzioak, oroimena eta arreta ardatz dituzten errehabilitazio programa hauek aplikatu bidenabar, komeni litzateke ikasleengan **antolamendu, plangintza eta ordena trebetasunak** garatzeko lanari ere ekitea: Eskolako agendari jarraitzea, zakutoaren, ikasmahaiaren eta eskola materialaren ordena eta garbitasuna, helburu jakin batzuk iristeko behar diren material eta ekintzak aurreikustea, egindako lanak eta eginkizun daudenak maiz berrikustea... Gaitasun horiek garatzeak handitu egiten ditu ikasleak arrakasta pertsonala, soziala eta ikasketakoa izateko aukerak, eta beraz ikas/irakats prozesuen osagai izan behar dute (ikasle guztiek on izanen dute trebetasun horiek hartzea baina disfuntzio exekutiboak dituzten ikasleentzat berehala lehenetsi beharrekoak dira).

3.2.4. Jauzkortasuna-Deskontrola

Jauzkortasuna eta autokontrol falta, B atalean aipatu diren nahasmenduen oinarriko sintomen parte dira, baina halakorik ez duten ikasle askorengan ere aurkitzen dira. Presakako erantzunak, ekin aurreko gogoeta falta, erreakzio burugabeak, besteren kontuetan ta solasetan tarte sartzea... horra zenbait portaera gurasoek etxean eta irakasleek ikasgelan topatu ohi dituztenak eta autokontrolaren nahasmendu bat iradoki dezaketenak. Kasurako diren diagnostiko teknikak erabiliz berretsi edo gezurtatu behar dira.

Erantzun estilo jauzkor eta gogoeta-gabearen osagai tipikoak hauek dira:

- Irakaslearen edo beste helduen galderei aurrea hartuz erantzuten du.
- Ez ditu esku-hartze txandak begiratzeko, aurrea hartzen die ikaskideen esanbearrei, ez ditu hitza eskatzeko ezarrita dauden arauak betetzen.
- Edukirik gabeko erantzunak ematen ditu, edo arduragabeak eta presakakoak, irakasleak taldeari zerbait galdetzen dionean.
- Besteen solasetan inork gonbidatu gabe sartzen da.
- Kasuko gaiarekin zerikusirik ez duten gauzak esaten ditu... Solasaldia bere gaietara eramaten du.

BER-HEZIKETA PROZEDURAK

Jauzkortasuna eta autokontrol falta, zorionez, ber-hezi daitezke, partez behintzat. Ez da lan erraza, bi kondizio horiek pertsonaren erreakzio estiloan hasieratik grabatuta daudelako eta bere jardunbide pertsonal, sozial, eta eskolakoaren ohitura sustraituenen osagai direlako. Esperientziak irakatsita dakigu halako kasuetan ez dela aski izaten arreta deitzea, gomendioak ematea eta zigorrak ezartzea (nahiz eta horiek ere erabili behar diren, komeni denean); aldiz, berariazko trebatze eta praktika programak aplikatu behar izaten dira. Guk honako hauek gomendatzen ditugu:

1. Komunikazio trukeak eta hitz txandak erregulatzen dituzten arauak ezarri eta haietan trebatzea

Irakasleak eta gurasoek ikasgelan nahiz etxean hitzaldiak erregulatzeko prozedura bat diseinatu eta abian jarriko dute, ezarritako arau eta prozedurak maiz trebatuz, adibidez: Eskua jasotzea, erantzuteko zutitzea, hizketan ari denari begiratu eta kasu egitea, hitz txandak errespetatzea, eta abar.

Hona zein diren arau nagusiak:

- * Besteak hizketan ari direnean, entzutea.
- * Ez besteen lekuan mintzatu. Zure txanda denean bakarrik.
- * Ez besteen hitza eten.

2. Zenbait irakaste estrategia erabiltzea

■ “Erantzuna berandatu” ohituretan trebatzea

- * Zerbait denbora itxaron, erantzun baino lehen (adibidez, bostera arte kontatu erantzun baino lehen).
- * Irakasleak abisu seinalea eman arte ez erantzutea.
- * Galderetarako eta erantzunetarako aulki bana izatea eta batetik bestera aldatzea.
- * Erantzun berandatu: Hurrengo lagunari hurrengo galdera egin ondoren erantzutea.

■ **Hitz egiteko txandak errespetatzen trebatzea** hitzezko joko ezagunak egiten direnean: “Pasa-palabra”, “Ikusi-makusi”, “Hitz kateatuak”, eta abar.

■ **Objektu jakin bat daukan pertsonak baizik ezin hitz egin/erantzun dezakeen jarduerak** proposatzea; jokalariek eskuz esku pasatzen dute hura hitza hartzeko.

■ **Txandak hartzea behar duten jarduerak egitea:**

- * Teleberri bat antzeztea, zeinean ikasleek txandak hartzen dituzten berriak emateko.
- * Txiste gurpilak.
- * Mezu kateatuak.

■ **Eguneroko hizketa egoerak antzeztea:**

- * Elkarrizketak antzeztea.
- * Antzezpenez errazak (irakurriz nahiz irakurri gabe).
- * Eguneroko egoeren, dilemen eta gatazken role-playing bat egitea.

■ **Berandatzeari adierazten duten ikusizko eta entzunezko seinaleak erabiltzea.** Honelako seinaleak erabil ditzakegu:

- * STOP hitza daukan seinale bat, trebatu beharreko ikaslearen edo taldearen aurrean jarria, zain denbora bukatzen denean buelta ematen zaiona.
- * Esku ahurra altxaturik eta horrela edukirik, zain denbora guztian.
- * Kronometro bat goratu eta nabarmenki sakatu egiten dugu adierazteko orain erantzuteko momentua dela.
- * Prozesua gertatu ahal izateko aurre baldintzak ezartzen dituzten seinaleak: Adierazten dute zer portaera bete behar diren dauden lanak egin ahal izateko (jarraibideak entzutea, lana hasteko seinalea, arreta erakartzea, zuzenketa edo esplikazioak eskatzea, erantzuna berandatzeari, eta abar). Seinale hauen helburua da jardueraren arretazko eta formatuzko aurre-portaerak ezartzea.

3. Portaera teknikak

Zenbait portaera teknikak, ongi aplikatuz gero, esku-hartzea eragingarriagotuko dute. Lehendik aipatu diren estrategia eta errutinez gain erabiliko dira. Gehien erabiltzen direnen artean, eragingarritasun frogatua dutelako, hauek daude:

- * **Iraungipena:** Gauzak ongi ez dabiltzanean eta ikasleak behin eta berriz hitzezko portaera intrusiboak egiten dituztenean, irakaslearen nahiz ikasleen arreta erakarri beharrez, portaera horiei entzungor egin behar diegu eta, aitzitik, kalitatezko arreta eskaini hitz txandak errespetatzen dituzten ikasleei. Hartarako, beharrezkoa da jarduera egiten hasi baino lehen argi uztea zer espero dugun haiengandik: *“Erantzuna, galdetzen zaizuenean edo txanda tokatzen zaizuenean bakarrik emanen duzue. Zuen erantzuna ez da kontuan hartuko arau hori errespetatzen ez baduzue”*. Koherentzia eta sistema beharko dira araua aplikatzen, inolako erantzun desegokirik ez kontuan hartzeko.
- * **Errefortzu positiboa/diferentziala:** Gauzak ongi doazenean eta ikaslea ahalegintzen ari bada ezarritako arauak errespetatu eta bere erantzunak berandatzeko, errefortzua eman beharko diegu. Gehienbat trebatze ariketaren hasieran eman behar zaie errefortzua txanda errespetatu eta erantzuna berandatzaren bakoitzean. Errefortzu horrek agerian jarri behar du zer portaera ari garen gozesten. Horrela, adibidez, goraipatu behar baditugu, honela esanen diegu: *“Ederki... (izena), behar zen tartean itxaron duzu erantzun baino lehen, poz handia eman didazu!”*.

- * **Fitxen ekonomia:** Erregistro baten jarraipena eginen da, non ikasleek trebatze denboran izan dituzten arrakasta eta porrotak notatuko diren. Erregistro horiek askotarikoak izan daitezke eta maiz aldatu daitezke interesa eta erakargarritasuna ez galtzeko. Erregistroetatik haiendako sari jakin batzuk eskuratzea etor daiteke. Erregistroak denbora pasa ahala gero eta gutxiago baliagarriak dira (horregatik komeni da haien formatua maiz aldatzea) eta ez dira hain eragingarriak hamar urtez gorako ikasleekin.

4. Maila kognitiboko erregularizazio proposamenak

■ Auto-jarraibideetan trebatzen

Pertsona guztiok erabiltzen dugu hizkuntza geure portaera erregulatzeko. Arreta falta eta jauzkortasun arazoak dituztenek ere hala egiten dute baina ez modu berean eta ez hain eragingarri: Zailtasunak izaten dituzte informazioa prozesatzeko, oso geldo, antolatu gabe eta koloka egiten baitute eta, beraz, gai bat konpontzerakoan, prozesuko fase asko saltatu eta gogoeta egin gabe erantzuten dute, eta ondorioz lanean porrot egiten eta emaitzarekin frustratzen.

Lanaren eginbidea gidatzeko **auto-jarraibideak erabiltzearen** helburua arlo honetan arazoak dituen ikasle/semi-alabaren pentsamendua balaztatu, antolatu eta sekuentziaztea da, horrela, jartzen zaizkion arazoak konpontzen eragingarriagoa izan dadin. Auto-jarraibideak, azken finean, gauzak pentsatuz eta prozesuko faserik batere saltatu gabe jokatzeko laguntzeko gida bat dira. Auto-jarraibideetan trebatzeko prozesua pixkanakakoa eta sekuentziala da; hona zein fase segitu behar diren:

- * Eredu-ematea: Heldua ikaslearendako eredu bihurtzen da; lanak egiterakoan ez du ahaztuko pauso bakoitza aipatzea, informazio guztia eta egintzak aztertuz, erabaki egokiak hartuz, eta abar.
- * Praktika gidatua: Ikasleak lana egiten duen bitartean, helduak ozenki esaten du urrats bakoitza.
- * Imitatuzko praktika: Ikasleak bakarka aipatzen du urrats bakoitza, antzeko lan bat egiten duen bitartean.
- * Norbere kasako praktika:
Ikasleak jarraibideak murmuriatzen ditu antzeko lan bat bukatu duenean.
Ikasleak jarraibideak pentsatzen ditu lana egiten duen bitartean (isilpeko auto-jarraibideak).
- * Orokortzea: Auto-jarraibideak beste lan mota batzuetarako era orokortuko dira.

Auto-jarraibideetan trebatzea teknika geldia eta lantsua izan daiteke, baina jauzkortasuna tratatzerakoan oso eragingarria dela frogatu da. Helburu askotarako erabil daiteke baina gure helburua baldin bada ikasleak/semi-alabak bere lanak egiterakoan ageri duen jauzkortasuna kontrolatzea (ahal den neurrian), gure ahaleginaren ardatza izanen da erantzunen hasiera beranda dezala lortzea eta lan ohitura egokiak har ditzala, lan horiek beregainago egiteko gauza izateko moduan.

Hartarako:

- Zehaztu beharko dugu zein fasetan gauzatu beharko diren proposatzen ditugun lanak.
- Eredu-ematetik orokortzerainoko trebatze prozesu osoa aplikatu beharko dugu.

Lan desberdinek fase desberdinak gauzatu beharra ekar dezakete. Hala ere, haietako askotarako, honako hau izan liteke sekuentzia:

1. ZER EGIN BEHAR DA?

“Zer egin behar dut?”

2. NOLA EGIN BEHAR DA?

“Nola egin behar dut?”

3. ZER BEHAR DUT EGITEKO?

“Zer material dauzkat eskura eta non daude?”

4. ATAZA EGITEA.

“Ataza egin behar dut. Egitez bukatu arte eserita egonen naiz!”

“Lehenbiziko urratsa da.... Bigarren urratsa da.... Azken urratsa da...”

5. ZUZENKETA ESKATZEA.

“Irakasleari eskatuko diot ariketa zuzentzeko. Eskua jasoko dut”.

6. EBALUAZIOA.

7. EGINDAKO LANARENGATIK ERREFORTZUA ETA AITORMENA.

“Ongi atera zait. Ederki lan egin dut!”

8. ZUZENKETA.

“Ez zait ongi atera. Huts egindako tokitik hasiko naiz berriz!”

Ezin aipatu gabe utzi daiteke trebatze lan honek arreta handia eskatzen ahal diola ikasle/semi-ala-bari eta aski konplikatu gertatzen ahal zaiola. Ikaspena errazteko, hasierako alderdi batzuk kontrolatu behar dizkiogu, adibidez:

- Lanaren zailtasuna: Atazak haren gaitasun mailarentzat egokiak izanen dira.
- Zenbat fase behar diren: Atazek fase gutxi izanen dituzte eta hasieran haietako batzuk bakarrik landuko dira, ez denak batera.
- Haien ezagutza maila: Hasieran atazak ezagunak izanen dira.
- Etengabeko errefortzua: Errefortzua etengabe aplikatuko da, gainditu duten jarduera bakoitzean; faseak gainditu ahala, errefortzua gero eta berantagotuko dugu.

Hemen: **30. ERANSKINA** “Autokontrolen trebatzen” (205-207. orrialdeak), joko gisako zenbait ariketa eskaintzen ditugu ikasgelan erantzuna berandatzera eta autokontrola lantzeko.

3.3. Zuzeneko edo zuzenketazko esku-hartzea

Orain arte aurkeztu ditugun esku-hartze proposamen guztiak, “prebentziozkoak” edo “prestakuntzazkoak” iritzi badiugu ere, zuzeneko esku-hartzeak ere badira, duda batere gabe, zeren haien helburu lehenetsia baita portaera desegokitu edo disruptiboak zuzentzea eta, beraz, zuzen onez atal honetan ere kokaturik egon litezke. Atalean aurrera eginen dugu eta, hasteko, portaera asaldatzailearen eta hura egiten duen pertsonaren gainean zuzenean esku-hartzeko erabilitako teknika, estrategia eta prozedurak errepasatuko dugu.

Ezer baino lehen, jakin behar dugu zer portaera ditugun ahotan, zein diren zehaztu, eta zeinen maiz eta nork ageri dituen finkatu. Hartarako, Tresna-Erregistro bat eskaintzen dugu hemen: **31. ERANSKINA** “Klaseen garapen normala nekezten edo trabatzen duten portaeren aurkitegia” (208-209. orrialdeak). Halaberean, eta kontuan harturik oso ardua handikoa dela jakitea irakasleak zer erantzun mota ematen dizkien halako portaerei eta ea erantzun horiek zenbateko arrakasta duten, hemen: **32. ERANSKINA** “Erregistro gurutzatua, ikasleen portaerak- irakasleen esku-hartzeak” (210-211. orrialdeak), eta hemen: **33. ERANSKINA** “Etxeko portaera eta erantzunak erregistratzeko taula” (212-213. orrialdeak), bi tresna eskaintzen ditugu irakasleei zein gurasoei lan horiek errazteko.

Behin arazoa zehaztu ondoren (portaera eta erantzunak), eta protagonistak zein diren eta zein tesuingurutan agertzen diren ere, ordua da portaera asaldatzailearen arloko teoria psikopedagogiko nagusiak astiro azter ditzagun, eragingarrienak direla frogatu duten proposamen, teknika eta estrategia aprobetxatzeko.

3.3.1. Paradigma sistemikoa

Ebazpideak Ardatz Dituen Terapia Laburra (EADTL) gaur egun gehien erabiltzen diren proposamen terapeutikoetako bat da portaera arazoak tratatzeko eta harreman pertsonaletan. Portaera disruptiboan, portaera antisozial edo delinkuentean erabili izan da arrakastaz.

EADTL esku-hartze laburra da (saio gutxi) eta fokalizatua; haren helburua da norberak bere buruaz, besteez, egoera jakin batez edo munduaz duen pertzepzioa berregituratzea. Gizabanakoa eta haren arazoa ez da bakarturik tratatzen; aldiz, bere gaurko tesuinguruan eta bere harremanetan antz ematen zaio.

Terapia Sistemikoen batzuetan ebazpideak hartzen dituzte ardatz (oraina eta geroa) eta lehengo kausak eta porrotak (lehena), berriz, bazter uzten (Beyebach, 1995); baina batzuetan arazoa ere hartzen dute ardatz. Eskatutako gaia (gure kasuan ikasgelako eta etxeko portaera arazo bat) berezko sistema bat bezala tratatzeak bide emanen digu edozein osagai nahiz protagonistaren gainean esku hartzeko, zeren teoria sistemikoen premisen arabera, sistemako osagai baten aldaketak ezinbestean gainerako guztietan ere aldaketa ekarriko baitu. EADTLak, aplikatu ahal izateko, haren teknika eta estrategietan trebatutako espezialista batek parte hartzea behar izaten da eta, beraz, ezin daiteke ikasgelan nahiz etxean haren gainbegiratzerik gabe erabili; gainera, oso komeni da halako terapietan parte hartzen dutenek beren gogoz eta nahiz hala egitea, ahal den neurrian, bertan egiten diren esku-hartze eta proposamenei ez gehiegi gogor egiteko.

Funtsean terapia hauen muina da gatazkan diren pertsonak honelako tesuinguru batean jartzea:

- * Sistemak arazoa konpontzeko dituen baliabideak abian jartzea.
- * Antz ematea arazoa zein egoeratan ez den sortzen, hartarako baldintzak badaude ere, edo zeinetan arrakastaz aurre egin zaion: *Trabajo con excepciones* (S. Shazer, 1988):

1. Arrakasta izandako kasuak aipatu.

2. Salbuespena markatu.
 3. Zabaldu eta aztertu: Deskribatu zer gertatu zen, nola sentitu ziren, zer pentsatu zuten, noiz, non...
 4. Atzera begira, kontrola esleitzea: Pertsonak beren aurrerabidea barneko kausei egotzi diezaietela (zer egin, sentitu, pentsatu zuten) eta ahal den neurriak kausa egonkorrei (ikasi dituzten gauzak, dituzten kalitateak).
 5. Aurrera egiten segitzea.
- * Parte hartzaileentzat ardurako diren helburuak ezartzea: Zehatzak (hautemateko moduko portaeretan gauzatuak), iristeko modukoak, positiboan formulatuak eta elkarreraginezko moduan deskribatuak (tarte diren alderdi guztiendako eraginarekin).
 - * Diferentziak bilatuz deseraikitzea: Dena gaizki badabil edo hobetzerik ageri ez bada, bitartean dira momentu jakinen batean zerbait ongi doalako seinale txikiak (egunak, tokiak, ikuspuntu pertsonalak, bizitzaren arloak). Lanaren mamia izanen da haiei aukera ematea dagoeneko zer ari diren ongi egiten antz emateko.
 - * Arazoaren gainean lan egiten:
 1. Esangurak deseraikitzen: Pertsonak arazoari zein esangura egozten dizkieten aztertu eta esangura horiek berrinterpretatzen lagundu.
 2. Kexaren sekuentzian lan egiten: Portaera aldaketa txikiak sarrarazi (ordu aldaketak, toki aldaketak, gertaeren hurrenkera...).
 3. Saiatutako ebazpideak tratatzen: Ordu arte ezarritako ebazpide arrakastagabeak agerian utzi.
 - * Laudorioen bidez konpromisoa lortu: Parte-hartzaileen edozein ekarpenen gaineko iruzkin positiboak edo asmotan diren helburuekin lotutako edozein kalitaterekin gainekoak
 - * Atazak: Norberaren edo besteren portaerak dira, gauzek hobera egin dezaten laguntzen dutenak. Aurrera egiteko ekintzak abian jartzea: Saioarekin koherenteak, egin-errazak, ximpleak.
 - * Lan saioetan erabili beharreko beste teknika eta estrategia batzuk:
 1. Harreman enpatiko, neutro eta errespetuzkoak ezarri.
 2. Elkarrizketak egituratzea: Helburuak ardatz, protagonistak ardatz...
 3. Berdefinitzea: Arazo historiari eta haren esangurei antz ematea eta haien ordezkotzat batzuk eskaini.
 4. Ustekizun hizkera: Jakintzat eman eta argi utzi aldaketak izan izanen direla.
 5. Borobil gisako galderak (Tomm, 1987, 1988): Teknika honen helburua da harremanezko errealitate terapeutikoak eraikitzea.
 6. Eskala subjektiboak: Arazoaren hainbat alderdiren balorazioak egiteko: Ikuspuntua zabaltzea (nor ohartu den, zein beste gauza aldatu litezkeen...) edo kontrola esleitzea (nola lortu duzun... Zer egin zenezakeen besterik...)
 7. Metaforak erabiltzea informazio bat edo egoeraren deskripzioa modu ikusgarriagoan eta eragingarriagoan helarazteko.
 8. Kanporatzea: Arazo jakin batzuk barne esleipenetatik askatu eta kanpoan kokatzea.

Ikuspuntu sistemiko honetatik etxeko nahiz ikasgelako portaera arazoetan esku-hartzeko prozesuak honako urratsak segitu litzake:

1. Ikasleak maizenik sortzen dituen portaera arazotsuak zein diren antz eman eta definitzea.
2. Inguruneak (gurasoak, irakasleak, ikaskideak...) ikaslearen portaeren aurrean izaten dituzten erantzunak zein diren antz ematea.
3. Parte-hartzaileek sortu duten kontaera arazotsuari antz eman eta esangura berriak hari ematea.
4. Salbuespenak bereizi eta aztertzea (zein momentutan edo egoeratan ez den arazoa agertzen edo noiz arrakastaz konpondu den). Begi-bistan uztea.
5. Zehaztea zein osagaien gainean lan egin behar dugun (ikaslea, gurasoak, irakasleak... portaera, erantzunak).
6. Hobetzeko helburuak ezartzea.
7. Helburuekin lotutako atazak diseinatu eta proposatzea (ordezko portaerak edo lehendik daudenak eta lehendik erabili diren kontrol gaitasunak).
8. Zenbait alderdi jakin tratatzeko (ustekizun hizkera, balorazio eskalak, borobil gisako galderak, metaforak...) eragiteko teknika eta estrategia berariazkoak erabiltzea.
9. Ebaluatu... Proba egin... Aldatu.

3.3.2. Paradigma kognitibo-konduktuala

Paradigma kognitibo-konduktualaren arabera portaera disruptiboaren gainean esku hartzeko modutu diren teknika eta estrategiak oso maiz erabili izan dira ikastetxeetan, familietan eta haur eta nerabeei erreparatzeko erakunde sozialetan, joan deneko hamarkadetan. Haren arrakastaren froga zientifikoak ezin ukatu daitezke eta beraz hainbat egoeratan eta arazo mota askotarako lehentasunez erabili beharrekotzat jo izan dira.

Teknika horietako batzuk, hala nola iraungipena, errefortzua (positiboa eta diferentziala), Eredu-ematea, Fitxen ekonomia, Orokortzea, Ondorioak ezartzea (zigorra) eta Autojarraibideak segitzea, aski eta sobra ezagunak dira eta lehendik ere aipatu izan ditugu, ez gara beraz haietan geldituko. Hona hemen beste halako batzuk:

■ BERREGITURATZE KOGNITIBOA

LBerregituratze kognitiboa nahasmendu psikiko gehienen tratamendurako teknika oinarritzako bat da. Teknika honek pertsonaren pentsamendu eskemak aldaraztea izaten du ardatz, hartarako hainbat metodo erabiliz, norberaren pentsamendu eskemei eta bizitzaren gainean duten eraginari antz emanda eta haren ondoan alternatiba kognitibo adaptatiboagoak eta eragingarriagoak sortuz.

Sinesmenak, jarrerak eta ikuspuntuak aldarazten dira, helburua delarik pertsona gauzak beste modu batera interpretatzen hastea eta bestelako helburu eta espektatibak bereganatzea.

Aldaketa horiei esker aukera dago ohitura berriak ere agerrarazi eta probetxu gutxiko eta larrimin sortzaile diren errutinak aienarazteko. Hartara, bada, bultza egiten zaio pertsonari bera sartu dadin ahalmen terapeutikoa duten testuinguru, ekimen eta atazetan, zeinetara ez zen sartuko lehengo sinesmen sistema zaharrari eutsi balio.

Berregituratze kognitiborako, beharrezkoa da terapeuta espezializatua bertan egotea, eta beraz ezin dute irakasleek ikasgeletan aplikatu, eta beste profesional batzuei pasatu behar zaie kasua.

■ ARAZOAK KONPONTZEN TREBATZEA

Arazoak konpontzen trebatzea tratamendu kognitibo-konduktual mota bat da, zeinaren bidez subjektuei lagundu nahi zaien beren buruz konpontzeko gai ez diren zenbait egoerari aurre egiten. Bereziki gomendagarria da larrimin eta beldur arazoa duten ikasleen kasuan, erabakiak hartzeko eta arazoei aurre egiteko zailtasunekin.

Teknika mota honetan hainbat alderdi lantzen dira: kasuko arazorako zer orientazio hartzen den, nola formulatzen den arazoa, nola orokortu litezkeen alternatibak hura konpontzeko, nola erabaki alternatibarik egokiena zein den eta nola neurtu emaitzak. Labur esanik: kontua da nola hurbildu egoera konplikatuetera ahal den modurik eraikitzaileenean, beldurra eta larrimina nagusitzen utzi gabe.

■ ERLAXAZIO ETA ARNAS HARTZE TEKNIKAK

Aktibazio fisiko eta psikikoa oso garrantzi handiko osagaia da zenbait portaera arazo esplikatzeko. Jauzkortasuna, agresibitatea eta erreaktibitate deskontrolatua dira erlaxazio eta arnas hartze kontrolatuko zenbat teknika erabiliz kontrola daitezkeenetako batzuk, horiek abiaburu, gorputz eta gogo sentazioak kudeatzen ikasteko.

Talde honen barnean Jacobsonen erlaxazio progresiboa, Schultzen trebatze autogenoa edo arnas hartze teknikak topatzen ditugu.

■ NOLA KUDEATU PORTAERA “JARDUERA GUSTUKOENEN DENBORA” (JGD) DELAKO ESTRATEGIAREN BIDEZ

Errefortzu teknika hau erabilgarria da kasketa, arreta falta, nahiaren gaineko gogaikarritasuna, lan-hutsegitea eta halakoetarako... Eraitza ona izaten du ikasle adingabeekin, portaera arazo berriazkorik ez dutenean. Ukazio erronkazalea ageri duten ikasleekin lan egiten dugunean edo arauak arbuiatu eta autoritate irudiei gogor egiten dieten halako beste nahasmenduekin, oso aldian behin erabiliko da teknika hau, bestelako estrategia konplexuago baten osagarri beti. Ikasleak adin nagusikoak direnean, ez da teknika gomendagarria haren mekanika oso haur girokoa baita. Hona teknika honen nondik norakoa:

1. Galdetzen zaie ikasleei zein jarduera egingen luketen gustorenik, ahal balute.
2. Argi uzten dira, berriazko programa baten bidez bada, hainbat hobe, zein diren nahitaez bete beharreko arauak eta ahalegin berezia egin beharreko arau lehenetsiak (Ikus Arauak Ezartzeko Programa. Lehenbiziko parteko 7. atala).
3. Ikasleei Jarduera Gustukoaren Denbora bat ematen zaie. Adibidez, Matematika kenduta, ostiral arratsaldean Eskulan eta Plastikako ordu bat ematen zaie.
4. Ikasleek portaera egokia baldin badute, emandako JGD hori gordeko dute; portaera txarra badute, berriz, galduko.
5. Ikasle bat ezarritako arauen kontra portatzen bada, kronometroa sakatu egiten da harik eta portaera txar hori uzten duen arte. Pasa den denbora JGDtik kenduko zaio.
6. Ikasleak berriazko trebatze saioetan egoki portatzen direnean, gehigarriko JGD hartu dezakete sari.
7. Eraitza erregistro publikoko orrialde batean notatzen dira.

3.3.3. Diziiplina positiboa. Ondorio logikoak

Paradigma hauek, zeinen ordezkari nagusia **Rudolf Dreikurs** den, oso estrategia zehatzak eskaintzen dizkigute eta praktikan oso baliagarriak ikasle erronkazale, ukakor edo portaera disruptiboa ageri dutenei kasu egiteko:

1. Ikaslea irakaslearen hurbileko toki batean jartzea ikasgelan. Ikasle lasaiago eta helduagoak jartzea haren inguruan.

2. Halako portaeren aurrean EZ DUGU HONELA JOKATUKO:

- ✗ Ez entzunarena edo ez ikusiarena egin; denbora ezer egin gabe pasatzen utzi.
- ✗ Ikasleari portaera agertzen ari den momentuan bere portaeraz gogoeta eginarazi; esplikazioak eskatu.
- ✗ Gatazkaren arrazoieta aztarka hasteko tranpan erori (“Bera hasi da aurrena” edo “Nik ez dut errurik” eta antzeko aitzakietan hasiz gero).
- ✗ Tentsoak eta asaldatuak agertu; haren portaerari hitzez nahiz gorputzez bortizkeriarekin erantzun.
- ✗ Ikaslearen gaineko balorazio negatiboak egin; besteekin erkatu.
- ✗ Hartuko ez ditugun neurriekin mehatxatu.
- ✗ Gaizki portatzen denean kasu egin (haren ondora etorritz, hitz eginez, ukituz...).
- ✗ Sariak eman ongi portatzen bada (haien zain egonen da geroztik).
- ✗ Herraz bete eta herra hori agertu.

3. Halako portaeren aurrean OSO GOMENDAGARRIA DA:

- ✓ Lehendik informazioa eta jarraibideak ematea (zehatz eta argi) jakiteko zer egin behar den eta nola egin behar den (**Arauk eta Mugak**).
- ✓ Ahalik eta azkarren erantzutea, ez **inolako portaerarik erantzun gabe pasatzen utzi**. Ikasleari erakutsi behar diogu egiten duen guztia kontrolatzen dugula eta autoritatea (eta bosterea) geure esku daukagula.
- ✓ **Gaurko portaeran** zentratzea eta lehengo guztiak ahaztea, haien aipurik egin gabe batere.
- ✓ Portaera bakoitzetik zer ondorio etorriko diren argi ezartzea; ikasleari haien berri ematea; sistematikoki **aplikatzea**.
- ✓ Ikasleari aukera ematea **bere portaera doitu** ala ikasgelatik atera eta tokatzen diren ondorio negatiboak aplikatzeko.
- ✓ Ikasleak ez badu portaera doitzen; **aurreikusitako ondorioak aplikatzea** (ikasgelatik bidaltzea, zigortzea, atazak jartzea...) berehala eta inolako aitzakia edo esplikaziotarako biderik eman gabe.
- ✓ Ondorioak ahal den lasaitasunik handienarekin **aplikatu**, gure jarrerak tentsiorik salatu gabe. Maitekor baina irmo agertu. Ikasleak ikusi behar du estimua diogula baina haren portaera eza zaigula gustatzen.
- ✓ Ikasgelara itzultzean, ikasleari **aukera eman portaera egokitzeko** (egindako kaltea konpondu edo agertu dituen arazoek kontrako portaera positiboak berretu).

- ✓ **Arreta berriazkoa eta kalitatekoa agertu harengana portaera egokia eta eragingarria duen momentuetan.** Ez oraingo portaera lehengo portaera negatiboarekin konparatu edo aipatu.
- ✓ **Ikaslearekin bere portaeraz mintzatu**, behin hura pasatu denean, **“hotzean”**; hartarako, ongi portatu den momentu bat aprobetxatu, pribatuan, klasea bukatu ondoren... erakutsi, gerora begira, bere portaera egokitzeko gai dela eta uste osoa dugula arrakasta izanen duela.

F. H. Jones-ek, bestalde, honako faseak proposatzen ditu diziplina egokia ezartzeko:

1. Irakaslea bakarka esplikatzeko ari dela (momentu horietan izaten baita kasu egin gabeko ikasleen disrupzioa) honako sekuentzia erabili behar da: **goretsi – akuilatu** (zer egin behar den adierazi) – **erretiratu**.

2. Mugak ezarri:

Irakasleak oro-begi jokatu behar du: Ikasgelan gertatzen den guztiari erreparatu eta denari be-rehalakoan erantzun. Bizikidetzeta eta haren kontrola lehentasuna da hezkuntza ekimenean. Beti esku-hartu behar da:

1. Jiratu, ikasle disruptiboari peto begiratu, haren izena esan... funtzionatzen ez badu ...
2. Ikasleari ikasmahaira ondoratu eta hark bere jarrera utzi arte zain egon, ezer esan gabe.
3. Lortzen bada, erretiratu, eskerrak eman eta lanera itzuli dela seguratu ondoren, gelditu aldendu.

Ikasle gatazkatsuek, mugak ezartzeko fase honetan, manipulazio estrategiak erabili ohi dituzte, irakasleen jarrera koherenteak eskatzen dituztenak. Ondorengo taulan irakasleek halako manipulazio jarrerari eman beharreko erantzunak ematen ditugu:

Ikasleen jarrerak	Irakasleen erantzun koherenteak
Ezjakinarena egin eta laguntza eskatzea irakasten ari den gaitik arreta desbideratuz	Laguntza berandatzeta (ez erortzea haren tranpan)
Horretan duen erantzunbeharra ukatzea	Ez haiekin eztabaidan hasi. Ondorioak aplikatu.
Besten gain bota errua	Ez kasurik egin; ez hasi ikertzen
Irakasleari bere ikasgaiari jantzigabea dela leporatu.	Ez utzi asaldatzen; hori ez da gaizki portatzeko arrazoia
Irakasleari “bakean uzteko” eskatzea	Ez erreakzionatu. Ondorioak aplikatu.
Irakaslea edo ikaskideak iraindu	Irmo iraun eta autokontrola erakutsi
Irakaslea eta ikasgelako besteak laidotu	Erlaxatu; isilik iraun eta zain gelditu. Hala behar bada, klasea bukatzean ikasleari deitzea harekin mintzatu eta ondorioak aplikatzeko

Horrek ez badu emaitzarik ekartzen... haserrea ahaztu eta...

4. Esku-ahurrak ikaslearen ikasmahaian bermatu, peto begiratu ikasleari eta jarraibideak argiro eman. Ez badu emaitzarik ekartzen... ez asaldaturik edo gaitziturik agertu eta...
5. Burua ikaslearenaren parera jaitsi eta, lasai asko, berriz eman jarraibideak. Zain egon jarraibideak bete arte. Ez badu emaitzarik ekartzen... ahalik eta lasaien...
6. Ondorioak aplikatu: Portaera disruptibo, agresibo eta errespetu faltakoaren aurrean hautatzen ditugun ondorioak ondorio logikoak izanen dira, hau da, ondorioa, izandako portaeraren arlo topografiko berekoa izanen da, baina alderantziz: ikasleak zerbait hautsi badu, hura konpondu, garbitu, ordenatu edo pagatu beharko du; ikasleak ikasgelako ikaskideak gogaitu baditu, bukaeran ikasgela txukundu beharko du edo denbora gehiago gelditu beharko du ikasgelan galdutako denbora errekuperatzeko... Hona hemen ikaslearen portaerari modu hezigarrian erantzuteko hautatzen ahal ditugun zenbait ondorio:
 - * Pribatua hitzez abisu ematea.
 - * Atazaren bat eginarazi hezkuntza komunitatearen mesedetan (barrutia garbitzea, mantentzea...).
 - * Dependentsia edo dibertsitate funtzionala duten pertsonei laguntzea.
 - * Agendan gurasoentzako edo legezko tutoreentzako informazioa notatzea.
 - * Ikastetxeko egonaldia luzatzea.
 - * Pribilegioak galtzea (kirola, jokoak, ateraldiak...)
 - * Gurasoekin bilera egitea denak baterako neurriak hartzeko
 - * Bizikidetza Batzordeko saioa
 - * Barne bidalketa (beste ikasgela batera). Kanpo Denbora
 - * Kanpora aldi bateko bidaltzea (eskolak kontrolatuz eta eskola lana eginaraziz). Neurri hau oso bakan ezarriko da, bizikidetzarako kalte larria duten portaeren aurrean baizik ez.
 - * Ikastetxearen Bizikidetza Araudiak agintzen dituen beste neurri ohi-gaineko batzuk
 - * Sare terapeutiko espezializatuekin baterako esku-hartzea (Suspertu, CSM, Adingabearen edo Emakumearen babesa...).

Kontuan hartu beharreko gai larria!

Ikasgelan eta etxean maiz asko gertatzen da ikasle baten portaera desegokiaren gainean esku-hartze bat hasten denean, hasieran portaera horiek gora egiten dutela, gehiago, bortitzago eta maizago agertzen direla. Horren arrazoia da ikasleak lehendik ikasita daukela bere portaeran tematuz gero arrakasta izaten duela, horregatik eusten dio. Guk ere etsi egiten ez badugu, eta koherente eta jarraiki jokatzen badugu arauak eta neurriak aplikatzen, orduan bakarrik ikasleak edo seme-alabak ikusiko du bide horretatik ez duela ezer aterako eta pixkanaka hasiko da bere portaera zuzentzen.

Juan Carlos Torregok eta Isabel Fernandezek *“Proyecto Atlántida. Protocolos de convivencia democrática”* lanean azaltzen dituzte guk gure testu honetan orain arte aurkeztuz joan garen prebentzio eta kontrol proposamenetako asko. Ondoren eskeman bilduta aurkezten ditugu:

SAIOAREN GARAPENA
<p>Saioa programatu (Oso antolatua baina malgua)</p> <p>Saioaren gidoia</p> <p>Planaren berri eman eta alternatibak negoziatu</p> <p>Behar bezalako tokia eta taldeak</p> <p>Erritmoa: Presioa/erakarpeta/pausak</p> <p>Parte-hartzea: Txandak/entzumena</p> <p>Jarduera aldaketak aurreikusi</p> <p>Errefortzu positiboak (hitzezkotak nahiz hitzik gabekoak)</p> <p>Pertsonen arteko harreman onak</p>

ADOSTASUN METODOLOGIKOAK
<p>Konpromiso orokorrak</p> <p>Irakaslearen arreta handia: Litezkeen desdoritzeak gainbegiratu eta kontrolatzea</p> <p>Arauek eta ondorioak denek parte hartuz itxuratzea</p> <p>Arrakasta bultzatzea: Errefortzua eta laguntza</p> <p>Harreman onak sustatzea</p> <p>Adostasun metodologikoak</p> <p>Talde banatze desberdinak</p> <p>Metodologia desberdinak</p> <p>Elkarlaneko eta berdinen arteko ikaspena</p> <p>Ebaluazio estrategia desberdinak</p>

KOMUNIKAZIO PROZESUA
<p>Hitzik gabekoa</p> <p>Portaera adierazten duten jestuak/begiradak</p> <p>Gorputza: Ikaslearen espazioa inbaditzea</p> <p>Ez arretarik eman (disrupzio arina)</p> <p>Barreiadura orokortuak bideratzeko zain isilaldiak</p> <p>Estiloa eta doinua</p> <p>Hurbiltasuna eta umorea (ez sarkasmoa) azalpenetan</p> <p>Arreta dei serio eta laburrak</p> <p>Ondorioak azaldu eta alternatibak proposatu</p> <p>Edukiak eta teknikak</p> <p>Ataza ardatz duten jarraibideak</p> <p>NI gisako mezuak. Sentimenduak adieraztea</p> <p>Idea bonbaketa</p> <p>Gertatuaz taldean gogoeta egitea</p>

PIXKANAKAKO NEURRIAK
<p>(Ikasgelako nahiz ikastetxeko arauekin loturik)</p> <p>Aldi batez tokiz eta kidez aldatzea</p> <p>“Kanpo Denbora”</p> <p>Klasea bukatzean elkarrizketa laburra</p> <p>Arauek eta konpromisoak gogoraraztea</p> <p>Jolas ordua galtzea</p> <p>Klaseak bukatzean bertan gelditzea</p> <p>Adostasun/konpromiso kontratua</p> <p>Tutorearekiko elkarrizketa</p> <p>Familiarendako oharra</p> <p>Familiarekin telefonoz mintzatzea</p> <p>Norberaren gogoeta eta autozuzenketa</p> <p>Zuzendaritza taldera bidaltzea</p> <p>Partea idaztea. Espedientea irekitzea</p> <p>Aldi bateko nahiz behin-betiko bidaltzea</p>

3. PARTIE


FAMILIEKIKO HARREMANA, ELKARLANA ALA GATAZKA

Ezin ahaztu dezakegu astegunez gure ikasgeletan egunean sei ordu egoten diren eta portaera nahasmenduak edo zailtasunak ageri dituzten ikasle horiek denbora osoan zein bere etxean seme-alabak direla; ikasgelan arazoak sortzen badituzte eta eskolako giroa zailtzen, erraz da imajinatzen zer eta zenbateko gatazkak sortuko dituzten etxean. Ikasle horien gurasoak ez dira haien portaeren errudun (nahiz eta kasu bakan batzuetan haiek ere arazoaren parte bat diren), eta ezin eskatzen ahal zaie haiek izatea erantzule bakarrak beren seme-alabek ikastetxean duten portaera desegokia konpondu eta atxikitzeko. Horren lanak, eragingarria izanzen bada, denek batera eta elkarren berri jakinda eginga behar du. Esperientziak irakatsita dakigu askoz hobea dela familia gure ondoan aliatutzat edukitzea, ezen ez aurrean etsaitzat. Aliantzak bilatzea eta koordinazio eragingarriak, zehatzak eta barne-hartzaileak ezartzea da familia-ikastetxea harremanaren gakoa. Jakin dezagun hobeki zer gertatzen den familietan halako arazoa ageri duen seme edo alaba bat daukatela atzematen dutenean:

Aurrena: DUDAK



Zalantza momentu honetan ez da harrizkoa gurasoek ikastetxeko profesionalengana jotzea laguntza eta aholku eske. Gure disposizioa eta jarrerak honako tasunak izan behar ditu oinarri:



a) Harrera:

Gogo onez harrera eginen zaie, tratuan hurbilak eta atseginak izanez. Interes hartuko dugu haien arazoan, informazio xehetua eskatuz haien eskaera zehazteko.

b) Entzumena:

Entzumen aktiboaren, balidazio emozionalaren eta hitzik gabeko hizkeraren adierazpen baliabideak erabiliko ditugu haien eskaeraren eta ematen dituzten datuen alderako interes positiboa agertzeko.

c) Enpatia:

Haien arazoaren eta haien ikuspuntuen alderako ulermena erakutsi. Egoera haien testuinguru berezitik interpretatu. Haien kezka ulertu. Haien sentimenduak ageriratu eta legezatu.

d) Aholkua:

Ikaslearen arazoaz dakigun guztia esanen diegu. Espezialistengana edo familia elkarteetara bidali (hala behar balitz). Jarraibideak eta orientabideak eman (egokia bada).

e) Konpromisoa:

Kasua geure gain hartu. Gurasoei adierazi zer esperientzia dugun antzeko kasuetan eta zer laguntza jarrera dugun. Adierazi ikastetxean zer egin behar den.


f) Denak baterako plana:

Familiaren eta ikastetxearen ekintza plan baten zirriborroa egin. Koordinatzeko eta informazioa helarazteko prozedurak ezarri.

GURASO/SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANEN DEGRADAZIO PROZESUA:

Ikaslearen nahasmendua jadaneko maiz agertu denean, guraso eta seme-alabaren arteko harremana maiz asko gero eta gehiagoko degradazio prozesu batean sartzen da. Prozesu hori bideratzen ez bada, beste osagai negatibo ta frustragarri bat gaineratuko dio lehendik zegoen arazoari. Familia askotan prozesu horrek izaten duen eskalada honako faseetan gauzatzen da:

GURASO/SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANEN DEGRADAZIO PROZESUA




Saio hauetako bakoitzak porrota edukitzen du ondoan. Seme-alabarekin hitz egiteak, haregandik zer espero dugun esplikatzeko, bere jarrera eta portaera aldatu dezan, ez du emaitzarik izaten (nahiz eta egin-egin behar den, halere) haren autokontrol gaitasuna eskastua edo ezeztatua dagoelako eta, dudarik gabe, bere egoera neurologikoak baldintzatua. Abisuak eta mehatxuak, besteekin eragingarriak, ez dute efekturik kasu haietan edo oso behin-behineko moduan eta kasuan kasu.

Zigorak, bestalde, sentimendu negatiboak eta arbuioa handitzen ditu eta agresibitatea enkistaturik herra bihurtu eta azkenean autoritatea galarazi eta gure kontra itzultzen da.

Portaera kontrolatzeko eta familiako jardunbidea normaltzeko saioetan porrot eskalada honek ondorio emozional asko dakartza, ezin oharkabeen pasa direnak eta ikasle horien gurasoekiko kontaktuetan beti kontuan hartu behar direnak:

FAMILIEN ERANTZUN EMOZIONALAK



A) Desorientazioa:

Gurasoek ez dakite zer gertatzen ari den, ez eta nola jokatu ere... Egiten dutenak ez du balio eta ez dakite beste estrategiarik.

B) Nahiaren gaineko ebasioa:

Behin eta berriz porrota bizi izan ondoren sortzen da. Beste aldera begiratu, egiten utzi, arreta beste gai batzuetara desbideratu, erantzunbehar pertsonaletatik ihes egin, besteen esku-hartzea bilatzea... Horra erantzun emozional honen atzean dauden zenbait jarrera.

C) Erantzun kili-koloak:

Egoera batean portaera batzuen aurrean ekitea eta beste momentu edo testuinguru batzuetan, berriz, portaera berberen aurrean ezer ez egitea. Erantzun eta esku-hartze kontraesanekoak izatea, arduraduna zer aldartetan den edo seme-alabaren portaeraren aurrean aitaren eta amaren aldetik jarrera kontrajarriak hartzea, horra seme-alabak gehien desorientatzen dituzten gurasoen jokaera batzuk, zuzendu beharreko portaerak handitu egin ditzaketenak.

D) Ukazioa:

Arazoari garrantzia kendu, seme-alabaren portaera normalduz. Arazoa konpontzeko modua, hartara, arazoa badenik ere ukatzea da. Erreakzio emozional hau gehiago izaten da kanpo aldekoa barne aldeko baino (ezer egiten ez bada ere, isilik sufritu egiten da eta kezka maila handiari eusten zaio, nahiz eta azaleratu gabe).

E) Arrazionalizazioa:

Arazoaren kausa eta jatorria norbere buruari esplikatzeke saio bat egiten da. Maiz asko, auto-esplikazioaren ondotik (adibidez: "gure aita berdin-berdina zen") pasibitate eta ebasio jarrerak etortzen dira.

F) Erruduntzea – Depresioa:

"Baloiak kanpora bota" eta seme-alabaren portaeraren errua besteari botatzea. Erreakzio modu hau da familia girorako kaltegarrienetakoa eta suntsigarrienetakoa da. Egoera horretan seme-alabak gurasoetako batek zilegiturik ikusten du bere portaera, besteari arazoaren kausa eta erantzunbeharra botatzen baitio.


Ezgaitasun eta porrot sentimendua eta familia giroa, oro har, gero eta gehiago degradatzeak batzuetan larrimin eta depresio larrien egoerak sortu ditzake aita, ama edo biengan.

G) Agresibitatea:

Talka emozionala, seme-alabaren edo bikotearen kontra hitzez nahiz gorputzez idarkeria erabiliz eginga. Salakuntzak eta konfrontazioak.

IKASTETXEKO PROFESIONALEK FAMILIEKIN ESKU-HARTZEA:

Etxean portaera nahasmendudun seme-alabak dituzten familia askok zalantzen eta sufrimenduaren gorakada hau bizi izaten dute, baina egoera hori gehienbat ohiko hezkuntza profesionalen eskumenetatik kanpo egoten da (hartarako beste baliabide batzuk egoten dira Komunitate edo Udal bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetan); hala ere, ez zaigu hura oharkabean pasatzen ahal; aldiz, oso kontuan hartu behar dugu familia horiekin ditugun harremanetan. Gure kokaleku eta gure kondiziotik honela jokatu behar dugu:




a) Arazoa zehazten:

Familiak aholkua eta esku-hartzea eskatu ohi dizkiete profesionalei beren seme-alaben portaera hobetzeko. Eskaera honek ikaslearengan soilik jartzen du arreta; hala ere, izan daitezke beste faktore batzuk, gurasoek hauteman gabeak eta portaera modulatu eta baldintzatu eta ikuspuntu sistemiko batetik ebazpideak bilatzeko erabakigarri direnak. Gure lana faktore horiek xehatu, aztertu eta esku-hartzerako kontuan hartzea izanen da:

- * Familiaren osaera. Ardurako kideak. Zer rol dituzten.
- * Familiako giroa. Familiaren gizarte ohiturak. Komunikazioa estiloa.
- * Ikasleak bere familian, gizartean edo eskolan bizi izandako esperientzia traumatikoak.
- * Familiaren eta haren kide bakoitzaren erreakzio estiloa. Gurasoek zer iritzi duten kontrolaren eta ondorioak aplikatzearen gainean:

FAMILIEN ERREAKZIO ESTILOAK



Familia sistema aztertu eta baloratzeak (irakasle arteko harremanak, faltak, eskasiak eta baliabideak, rolak, komunikazio estiloak, elkarreraginen maiztasuna eta kalitatea, talkarako eta elkarretaratzeko arrazoiak eta egoerak...) bide emanen digu arazoa bere testuinguruan kokatu, zailtasunak zehaztu eta dauden baliabideak ezagutzeko, zein datuak, denak ala denak, oso ardura handikoak diren zer esku-hartze egin litekeen planifikatu, doitu eta zehazterakoan.

Hala ere, maiz asko ikasleak etxean daukan portaera hain da larria, jarraikia eta distortsionatzailea ezin baita soilik familia testuinguruaren eraginez eta hango elkarreraginez esplikatuz; aitzitik, badirudi kondizio psikopatologiko pertsonaletatik datorrela eta esku-hartzearen objektu zuzenekotzat eta lehenestekotzat hartu behar dela. Kasu horietan, ahalegina egin behar dugu jakiteko zein diren ikaslearen portaera maizkoenak eta kezagarrienak eta nola eragiten dioten familiaren jardunbideari; hartarako, aukera dugu gurasoei eranskin hauetan eskaintzen direnak bezalako tresnak erabiltzeko: **33. ERANSKINA** "Etxeko portaera eta erantzunak erregistratzeko taula" (212-213. orrialdea) eta **34. ERANSKINA** "Etxeko portaeraren prospekzioa" (214-215. orrialdea). Haietako lehenbizikoak erkatu egiten ditu seme-alabaren portaerak gurasoen erantzunekin eta haien eragingarritasunarekin; bigarrenak bide emanen digu arazoa zehazkiago deskribatu, eskaera zein den zehaztu eta koordinatzeko eta denak baterako egintzak egiteko.

b) Sentimenduak balioztatzen. Hutsei giza neurria ematen:

Familiak egiten diguten eskaera bakoitzaren atzean, dudarik gabe, karga emozional handia egoten da, izandako porrot esperientzietatik eta betegabeko espektatibetatik datorrena. Samindurik, tristaturik, beldurturik, asalaturik sentitzea normala da, osasungarria ere bai; sentimendu horietan, haien erreakzio gaitasuna azalerraten da gertatzen direnen aurrean (sentikortasuna). Garrantzi handia

du familiek beren sentimenduak zilegi eta zuzen direla senti dezaten, bai eta negatiboenak ere, eta sentimendu horiek gainez egin eta nagusitu egiten zaizkienean beren autokontrol gaitasuna balora dezaten. (*"Gogoz jo egingo nuke egin duenagatik... Kolerak hartua nauka... eutsi egiten dut, ordea, bai-baitakit ez dela baliagarria eta etikoa..."*).

Portaera nahasmenduak dituzten ikasleen gurasoei minik handiena egiten dien gai bat da beren kontrol estrategiak alferrik direla ikustea; erabateko ezgaitasun sentimendu horrek sortzen ditu familietako disfuntzio eta gatazka asko. Ikastetxetik argi utzi behar dugu hezkuntzako eta hazkuntzako hutsak ere gauza erabat naturala direla (denok eskubidea dugu halakoak egiteko) denok akastunak garen partez gertatzen baitira. Gurasoek bestea edo norbere burua erruduntzeari ihes egin behar diote, sentimendu horrek ezer egin ezinik utziko baititu. Zerbaitean huts egiten dugunean, aztertu behar da zerk funtzionatu duen oker, hura zuzentzeko. Hori da arrakasta izateko lehenbiziko pausoa.

Illo horretatik, familiekin ditugun elkarrizketetan honako gai hauek ukitu behar behar ditugu bereziki sakon:

- Ez seme-alaba ez gurasoak ez dira errudunak.
- Normala da asaldura, beldurra, errua sentitzea.
- Sentimenduek ez gaituzte paralizatu behar. Aurrera egiteko erabili behar ditugu.
- Normalena da hutsak egitea eta besteek ere egitea.
- Beti gauza berak egiten bagabiltza, beti emaitza berak izanen ditugu.
- Aholku espezializatua eta laguntza emozionala bilatu.



▶ **Gogoan izan!**

*Uler zazu haren kolera, nahasmenetik sortua da.
Uler zazu haren gogortasuna, frustraziotik sortua da.
Balora itzazu haren ihesaldiak, beldurraren ondorio dira.
Eskua luza egiezu!*

c) Erantzunen eragingarritasuna baloratzen:

Haurrak, nerabeak eta gazteak maneiatzeko, hainbat estrategia daude, mundu osoan onartuak eta erabiliak: arauak eta araudiak, arreta deitzeak eta errietak, egindako hutsa eta zuzendu beharra airtortzera bultzatzea, zigor eta zehapenak ezartzea... Estrategia horiek beren buruz erabiltzen dituzte portaera-nahasmenduak dituzten neska eta mutilen gurasoek, bai eta lehen momentuetatik ere, eta ikusten dute ez dutela emaitza onik lortzen edo oso emaitza kolokak, momentukoak eta kasuan kasukoak lortzen dituztela. Gurasoek denak saiatu ohi dituzte. Orduan da garaia estrategia horiek aztertu eta haien benetako eragingarritasuna baloratzeko, guraso biek ongi jakin dezaten zer ari diren egiten eta zer emaitza lortzen ari diren; gauza bereziki baliagarria da atzematea zer egoerak edo estrategiak eman izan duten emaitza ona momenturen batean, hura oinarri hartu eta handik aurrera hobekuntzari ekiteko. Hemen: **33. ERANSKINA** "Etxeko portaera eta erantzunak erregistratzeko taula", halako datuak erregistratzeko balio duen tresna bat eskaintzen dugu.


Behin azterlan hori burutu ondoren, agerian utzi beharko da emandako erantzunen arrakasta eta porrotaren frogak, eta porrota izan bada, alternatibak bilatu beharko dira. Erantzunak aztertze-rakoan ez da soilik garrantzizkoa zeinek izan duten arrakasta eta zeinek ez aztertzen gelditzea; aitzitik, guraso bakoitzak edo ardurako helduak horiek nola aplikatu dituen ere miratzea (erantzun baten kalitatea, hein handi batean, hura aplikatzeko moduaren mende dago); zenbait kasutan, erantzun mota aldatu beharrean, hobe izanen da ahalegina egitea parte-hartzaileek erantzunari ekiteko daukaten jarrera pixkanaka aldatu dezaten.

d) Espezialista nahiz adituengana bidaltzen:

Familiak ikastetxeei egiten dizkieten balorazio, diagnostiko eta erantzun eskaerei kasu egiteko, zenbait kasutan beharrezkoa izan daiteke espezialista eta adituek esku-hartzea. Hezkuntzako profesionalen eskumena eskolaren testuingurura eta nola edo hala hari eragiten dioten beste guztietara mugatzen da. Diagnostiko diferentziala, norbere hazkuntzarako eta trebetasunak gararazteko berriazko programak aplikatzea, familia barneko desorekak, bikote harremanak familiako kideen garapen eta autokontrol emozionala... Gai horiek, behin antz emanez gero, eskuarki haietan diharduten profesional eta erakunde publikoetara helarazi behar dira (kabinete psikologiko eta psikopedagogikoetara, Emakumeendako Zentroak, Gizarte Zerbitzuak, familia elkarteak...).

Gure ardura da familiei irizpideak ematea kalitatezko bilaketa bat egiteko:

ESPEZIALISTA ETA ADITUAK BILATU ETA KONTRATATZEKO PROZESUA




FAMILIEKIKO KOORDINAZIOA:

Aurreko ataletan esan bezala, portaera disruptibodun seme-alabak dituzten familiak, nahasmendu horiek gaitz psikiatriko batetik eratorriak izan ala ez, ohiturik egoten dira berri txarrak jasotzen. Maiz hartzen dituzte auzokideen, ahaideen eta beste neska-mutilen gurasoen kexak bere seme-alabaren portaera txarragatik. Behin eskolara hasiz gero, familiak esperantza du egoera aldatuko ote den eta ikastetxea gai izanen ote den arazoak konpontzeko; baina, gehiegitan, hain zuzen alde-rantziz gertatu ohi da, berri txarrak nondik datozen beste ezer ez da aldatzen: Orain eskolatik datoz.

Ongi dakigun bezala, oso zaila da pertsonen arteko harreman osasuntsu bat ezartzea-adiskidantza izan ala laneko harremana– etengabeko frustrazioan eta etsipenean oinarriturik; egoera horietan, mintzakideek ihes egiten diote harremanari, elkarri ez ikusia egiten, elkarri errua botatzen edo erasotzen. Hori horrela, guk, familiak ikastetxearekin duen harremana behar bezalako bideetatik ibil dadin lortzeko, kosta ahala kosta galarazi behar dugu porrot eta ezinegon sentimendu horiek sortu daitezten. Familiekin koordinatzeko gure proposamena honako printzipio hauetan oinarritzen da:

1. Ikasgelan gertatu dena ikasgelan konpondu behar da. Ahal den neurrian, ez da beste eremu batzuetara pasatu behar. Portaera larria izan denean baizik ez diegu gurasoei berri emanen.
2. **Komunikazio positiboan maiztasuna handitu behar dugu.** Edozein aurrerapen edo hobekuntza izan denean, den txikiena ere, haren berri emanen diegu, haien laguntza eskertuko eta izandako arrakasta haren ahaleginei esleituko.
3. Familiestik bileren helburua da familiei laguntza profesionala ematea. Elkarrekin zer egin dezakegun hartuko da ardatz, zer gertatu den baino gehiago.
4. Denak baterako esku-hartze plana (arauak, eskaerak, neurriak...) ikastetxeko profesionalen eta adingabeen gurasoen artean itxuratzen da, ikaslea bertan ez dela.
5. Ikasle adingabeari bilera batera deitzen zaio erabakien berri emateko eta haren aurrean denak baterako eta zirikiturik gabeko fronte bat eskaintzeko.



ERANSKINEN ZERRENDA BIGARREN ETA HIRUGARREN PARTEAK

Zk.	TRESNA-ERREGISTROA	ORRIALDEAK
19	HPBen interesen eta espektatiben autopertzepzio galdetegia	181-182
20	Portaera antisozialen autobalorazioa	183
21	Arrisku psikosozialean dauden ikasleei antz emateko protokoloa	184-185
22	Atxikimendu arazotsuaren adierazleak	186
23	Hautzaroaren gaineko elkarrizketa	187-188
24	Atxikimendu traumatiko batek maizenik eragiten dituen arazoak	189
25	Agresibitate piztaldien erregistro pertsonala	190-192
26	Sustantzien erabileraren gaineko galdetegia	193-195
27	Ikasgelan/ikastetxean ebaluatu beharreko oinarriko printzipio psikosozialak	196
28	Elkarreragin sozialeko trebetasunetan nor bere burua ebaluatzeko galdetegia	197-198
29	Arreta eta funtzio exekutiboak trebatzeko zentzumen askotako ariketak	199-204
30	Autokontrollean trebatzen	205-207
31	Klaseen garapen normala nekezten edo trabatzen duten portaeren aurkitegia	208-209
32	Erregistro gurutzatua. Ikasleen portaera - irakasleen esku-hartzeak	210-211
33	Etxeko portaera eta erantzunak erregistratzeko taula	212-231
34	Etxeko portaeren prospekzioa	214-215

4. PARTEA

ERANSKINAK

1. PARTEA

1. ERANSKINA

Portaera disruptibo eta desagokituaren talde azterketa

“Comportamiento desadaptado y respuesta educativa en Secundaria. Equipo de Psíquicos y Conductuales de Secundaria. CREENA. 2000” liburutik hartu eta eraldatua

1. ZER GERTATZEN ARI DA?

<i>Portaera arazodunei nola antz eman</i>	BAI	EZ
Antolamenduaren eta arauen kontrako portaerak dira		
Atazekin loturik daude		
Autokontrol emozionalaren falta batetik datoz		
Beti edo maiz irakasleekiko harremanetan agertzen dira		
Ikaskideekiko harremanean agertzen dira		
Autoestimua falta batean dute jatorria		
Erantzunbehar falta batetik datoz		
Eskubide eta betebeharrak deblauki arbuizatzea esan nahi dute		
Bestelakoak:		

<i>Zer ari da itxuratzen portaera arazodun hori?</i>	BAI	EZ
Portaera hori ikaslearen egoera biologikoaren ondorio da		
Portaera horrek jatorri psikikoa du		
Portaera hori abilezia eta trebetasun falta batetik heldu da		
Portaera hori lehengo esperientzia traumatikoen ondorio da		
Aurreko edo abiagarrizko akuilu horietakoren bat kokatu ahal izan duzu? Esan zein:		

<i>Portaera arazodun horren helburua zein da?</i>	BAI	EZ
Helduaren arreta deitzea		
Ikaskideen arreta deitzea		
Frustrazioa gainditzea		
Besteen aurrean prestigioa irabaztea		
Abantailak lortzea (ez lan egitea, ez azterketarik egitea...)		
Beste helbururik atzeman al duzu? Esan zein:		

2. ZER EGIN DEZAKEGU?

<i>Zein portaera arazodun dira zure ustez lehenestekoak?</i>	BAI	EZ
Kalte fisiko nahiz psikikoa edo horren arriskua dakartenak		
Hezkuntza jarduera tratatzen dutenak		
Segregazioa edo isolamendua dakartenak		
Errazenik aldarazi edo kontrola daitezkeenak		

Zein prozedura erabili dituzu portaera arazoduna aldarazteko?

1. Portaera aldarazteko teknika eragileak

	Erabilera		Eragingarria	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Fitxen ekonomia – Erantzunaren kostua				
Kanpo Denbora				
Gain-zuzenketa				
Ordezko portaeren errefortzu diferentziala				
Zigorak, ondorio negatiboak, araudia aplikatzea...				
Bestelakoak: Esan zein				

2. Hautemateko edo nork bere burua hautemateko teknikak

	Erabilera		Eragingarria	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Eredu-ematea (imitatzeko eredu egokiak eskaintzea).				
Autokontrol emozionala				
Asertibitatean trebatzea				
Gizarte trebetasunetan trebatzea				
Erlaxazioan trebatzea				
Norbere burua hautematea-erregistroa				
Bestelakoak: Esan zein				

3. Portaera aldarazteko trebetasun kognitiboak

	Erabilera		Eragingarria	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Autojarraibideak				
Gatazka eta arazoaren ebazpidea				
Ondorioen azterketa				
Berregituratze emozional eta kognitiboa				
“Pausoz pauso”ko metodoak				
Bestelakoak: Esan zein				

4. Aurre-hartze eta prebentzio prozedurak

	Erabilera		Eragingarria	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Arau sistema adostu eta publikoa ezartzea				
Tutoretza harreman pertsonalizatuak ezartzea				
Izaera prosoziala eta taldean ardura duten ikasleak eragileztat erabiltzea				
Ikaslearekin itunak eta kontratuak proposatzea				
Ikasgelan giro irekia, komunikaziozkoa eta errespetuzkoa sustatzea				
Klaseak prestatzerakoan garrantzia berezia ematea ataza edo unitatearen alderako motibazioari				
Umore zentzua erabili bai erantzuterakoan bai ikasleak egin duena interpretatzerakoan				
Bestelakoak: Esan zein				

2. ERANSKINA

Neure irakaslanaz gogoeta egiteko galdetegia

	Beti	la beti	la inoiz ez	Inoiz ez	Gehiagotan egin nahi nuke	Gutxiagotan egin nahi nuke
ARAUAK BETETZEA						
Puntuala naiz sartu nahiz ateratzeko						
Guztien arreta izan arte ez dut saioa hasten						
Denbora ematen dut ene ikasleek arauak ikasi eta bete ditzaten						
Klasea bukatzean taldeak nola jardun duen laburbildu eta iritziak eskatzen ditut						
Denbora ematen diet interesa erakutsi eta gehiago lan egiten duten ikasleei						
Denbora ematen diet interesik ez duten eta gutxiago lan egiten duten ikasleei						
Ahaleginean esaten diedana betetzen dut (datak, jarduerak, ateraldiak, sariak...)						
Ikasleak lanean ari direla, nire iruzkinekin eten egiten diet						
Ikasgelan gertatzen den guztia dakit eta horren arabera jokatzeko						
Gaizki portatzen direnean nahiago dut ez ikusiarena egin						
Jendurrean egiten diet errita arauak bete ez dituzten ikasleei						
Klasea bukatu ondoren arauak bete ez dituen ikaslea deitu eta harekin mintzatzen naiz						
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO TREBETASUNAK						
Esplikatzen eta jarraibideak ematen ari naizela, ikasleei begiratzen diet						
Argiro mintzatzen saiatzen naiz ikasleek ongi ulertzeko						
Entzun egiten diet ikasleei eta ulertzerak ahalegintzen						
Sartzean agur egiten dut eta ateratzean despeditzen						
Lehen pertsonako mezuak ematen ditut: "Ni...", "gaizki sentitzen naiznean"						
Deskalkifikazioa, jendurrekoa nahiz pribatua, baztertzen dut						

	Beti	la beti	la inoiz ez	Inoiz ez	Gehiagotan egin nahi nuke	Gutxiagotan egin nahi nuke
GATAZKEI ERANTZUTEKO TREBETASUNAK						
Ikasgelan egoerak gainez egiten duenean, kontrolatzen naiz						
Beti aurre egiten diet portaera arazoei						
Ikasgelan arazoak daudenean beste batzuegana jotzen dut konpontzeko (Tutorea, Zuzendaria...)						
Arazoak sortzen direnean ebazpideak bilatzen ditut, ez ditut pasatzen uzten						
Esan egiten diet ikasleei haien portaeratik zer zaidan gogaikarri						
Gatazkei ihes egiten diet ez gaizki sentitzeko						
Kritika eraikitzaileak egiten ditut						
Kritikak ongi hartzen ditut eta denbora ematen dut aztertzen						
Erasokor erantzuten dut erronka egiten didatenean						
IKASLEEKIKO HARREMAN TREBETASUNAK						
Beren izenaz deitzen diet ikasleei						
Bakoitzaz arduratzen naiz						
Kontuan hartzen ditut haien iritzi eta ekarpenak						
Badakit zer afizio eta interes dituzten						
Ikasle batek behar nauenean, beti denbora ematen diot						
Ikasgelan umore onean egoten naiz						
Bakarka mintzatzen naiz ikasle gehienekin, bereziki ikasgelan lan gutxiago egiten dutenekin						
IRAKASLANERAKO ESTRATEGIEN ERABILERA						
Irakasteen eta ikasleekiko kontaktuan atsegin hartzen dut						
Lan saio bakoitza planifikatzen dut						
Saio hasieran denbora bat ematen dut ikasleak lanerako motibatzen						
Askotariko tresnak erabiltzen ditut edukiak eskualdatzeko						
Arreta ikasle guztien artean banatzen dut						
Etengabe gainbegiratzen ditut atazak eta lanak eta bai ikasle bakoitzaren bilakaera ere						
Ikasleei ataza desberdinak eskaintzen dizkiet beren gaitasun akademikoaren arabera						

	Beti	la beti	la inoiz ez	Inoiz ez	Gehiagotan egin nahi nuke	Gutxiagotan egin nahi nuke
Askotariko jarduerak proposatzen ditut, egintza desberdinak dakartzatenak: Entzun, idatzi, arrazoitu, hitz egin...						
Talde banatze desberdinak behar dituzten jarduerak proposatzen ditut: Bakarka, binaka, talde txikietan ...						
Dudak aurkeztu orduko argitu egiten ditut						
Aurrea hartzen diet zailtasunei eta pentsatu egiten dut zer laguntza eman ditzakedan						
Ikasleei prozedura eta atazak gauzatzeko ereduak eskaintzen dizkiet eta haietara erakartzen dut haien arreta						
Gidatu egiten ditut ikasleak, atazak gauzatzeko bidean behar diren pausoak eta egintzak azalduz						
Ikasleak bultzatzen ditut ikasitako prozedurak nork bere kasa maiz erabiltzera						
Egoerak eta proposamenak sortzen ditut ikasleek ikasitako gauzak aplikatu eta orokortu ditzaten						
Saioko denbora gehienez esplikatzeko aritzen naiz						
Saioko denbora gehienez eserita edo arbelean ematen dut						
Jardueren arteko aldaketak zaintzen ditut						
Klase bukaera zaintzen dut, jarduera ixteko, atazak eman eta despeditzeko denbora utziz						
Ahalegintzen naiz curriculuma ikasleen premia eta interesetara moldatzeko						

NIRE INDARRUNEAK LABURBILDIRIK

--

NIRE AHULUNEAK LABURBILDIRIK

--

3. ERANSKINA

Nork bere irakasle funtzioak hautemateko

Marius Martínez Muñozen "Manual de orientación y tutoría"tik egokitua

IRAKASLEENDAKO GALDETEGIA

IRAKASLEA:

	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Ikasgelako gaiak eta lanak ikasleen interes eta espektatibekin lotzen ditu			
Maiz, ikasgelan, nire dudak azaltzen ditut jorratzen ari garen gaiaz.			
Maiz galderak egiten ditut ikasgelan elkarrizketa hasteko			
Ikasgelan garatu beharreko lanak programatzen ditut			
Esan liteke nire klaseetan talde eztabaidak sustatzen direla			
Lan talde desberdinak sortu daitezten ahalegintzen naiz, ikasgelan ez azpitalde egonkorrik sortzeko			
Interesa dut ikasleek erabakiak hartu ditzaten beren gainean eragina duten alderdien gainean			
Ikasleen artean harreman arazoak atzematen ditudanean, ahaleginean berehala ekiten diot estrategiaren bati			
Nire ustez, irakasle konfiantzaduna, iristerraza eta ikasleei irekia denaren irudia ematen dut			
Ikasgelan maiz hartzen ditut ahotan ikasgaiaren ikaspenari buruzko zenbait arazo, badakidalako zenbait ikaslek arazo horiek sufritzen dituztela			
Ahaleginean, ez ditut ikasle batzuk beste batzuen aurretik faboratzen			
Ahaleginean, ikasleen arreta mantentzen dut			
Arreta berezia ematen diet ikaspenarekin lotutako kasu zailei			
Ikasturte hasieratik saiatzen naiz ikaspen arazoei antz ematen, lehenbailehen konpontzeko			
Elkarlana sustatzen dut			

	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Ahalegintzen naiz ikasgaia ez dadin gogorra eta segitzeko zaila gertatu			
Programei, eskemei, lan agendari eta gaien gaineko sarrerei esker, ikasleek beti jakiten dute zer egin behar duten			
Maiz gogorarazten diet ikasleei kurtsoak zer helburu dituen, zer konpromiso eta zer arau begiratu behar diren			
Maiz aski ikasgelan ahotan hartzen ditugu kurtsoaren martxarekin lotutako hitzarmenak			
Nire ustez ongi kontrolatzen dut programaren denbora banaketa			
Nire ustez ongi kontrolatzen dut irakaste metodologia			
Edukiei dagokienez, ez dut hain malgu jokatzeko, baina bide ematen diet nola ikasi nahi dituzten finkatzeko			
Altxariak banatzeko modua eta dekorazioa erabiliz, saiaterik naiz ikasgela toki atsegina izan dadin			
Estrategia metodologiko behar bezain bariatuak erabiltzen ditut ikasleek interesa senti dezaten			
Ikasleak desanimaturik edo muzindurik daudela sumatu orduko, aldatzen dut nire irakasteko modua.			
Beti irekia egoten naiz estrategiak aldatzeko, eta ikasleekin mintzatzen naiz bai edukien bai erabilitako edukien gainean			
Erabat zurruna naiz portaera desegokietuekin eta klasea eteten dutenekin			
Ez dut lasaitasuna galtzen zenbait ikasleren portaera desegokien aurrean			
Saioa bukatzean, arauak bete ez dituzten ikasleei deitu eta buruz buru hitz egiten dut haiekin			
Familiekin kontaktuan egoten naiz bai gatazkak konpartitzeko nola arrakastak kontatzeko			
Irakasle taldeak elkarlan eta koherentzia maila ona izaten dugu gatazken aurrean			
Arazorik gabe eskatzen diet laguntza ene irakasle lagunei irakaskuntza dudak edo kontrol problemak izaten badituzte			

4. ERANSKINA

Ikasgela antolatu eta kudeatzeko estrategiei nola antz eman (1)

Iturria: Sánchez-Cano y Bonals. 2005

IRAKASLE HAUTEMANA.....

IRAKASLE HAUTEMAILEA.....

ADIERAZLEAK	MAIZTASUNA		
	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Taldeei dagokienez antolatutako ikasgelan. Funtzio banaketa argia			
Talde antolamendu uniforme, saio guztietan arau argiak daudela (ikasgai guztietan)			
Irakasleen jarduerari eta ikasleen jarduerari emandako denborak orekaturik			
Lehendik landutako ikaspen eta eduki edo jarduerekin lotura egoten da. Lehendik landutakoa gogorarazten zaie, ikasleei parte hartu araziz			
Gaia gaurko errealitatearekin lotzen da, ikasleen esperientziekin eta beste ikaspenekin			
Ikasleen iritzi eta oharrak jaso egiten dira gaia eta haren jarduerak bideratzeko			
Eduki gutxi, ongi landuak, ataza sinpletuak			
Saioaren hasieran: esplikatu egiten da zer egingen den eta nola lan egingen den			
Hizketan hasi baino lehen, isiltasuna sortu arte zain egoten da			
Atazak bakarka nahiz taldeka banatzen dira			
Jarduera aldaketak arautzen dira; jarduerak itxi egoten dira			
Atazak egiteko zer denbora dagoen seinlatu eta kontrolatu egiten da			
Ohitura eta prozedurak eta arau orokorrak gogorarazi egiten dira (eskua jaso, ez norbere tokitik zutitu...)			

Ikasgela antolatu eta kudeatzeko estrategiei nola antz eman (eta 2)

Iturria: Sánchez-Cano y Bonals. 2005

ADIERAZLEAK	MAIZTASUNA		
	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Eskuarki ahots doinu emea erabiltzen da isiltasuna eta entzumena sor daitezen bultzatzeko			
Prozedura prosodikoak erabiltzen dira (doinua altxatu. Isiluneak, jestuka...) arreta deitu eta erakartzeko			
Portaera disruptiboei edo arreta faltakoei aurrea hartu ("X, Ezer behar al duzu?")			
Ikasgela osoan barna mugitzea kontrol sentazioa eman eta bakarkako laguntza emateko			
Errefortzu emozional indibiduala ematen dio hala behar duen ikasle edo taldeari			
Lana zatitan banatzen da bururatzea errazteko			
Laguntza pertsonalizatua ematen da			
Etxeko lan gutxi, argi daudela segurtaturik			
Norbere hutsak zuzendu eta argitzeko bidea ematen da			
Behar bezalako irakurriaren ulermena seguratzten da			
Zenbait ikasle jakini iruzkin positiboak egiten zaizkie			
Zenbait talderi edo ikasgelari iruzkin positiboak egiten zaizkie			
Zenbait ikasle jakini iruzkin negatiboak egiten zaizkie			
Zenbait talderi edo ikasgelari iruzkin negatiboak egiten zaizkie			
Irakaste baliabideen erabilera konbinatua: Ahozko azalpenak, irakurketak, eskemak, ikus-entzunezko materiala...			
Osagai distortsionagarriak aurrez galarazten dira: Giro fisikoa, ikasleen banaketa, ordutegi hutsak...			

5. ERANSKINA

Irakaste estrategiei begiratzea

ZEIN IRAKASLERI BEGIRATZEN ZAIO.....

ZER IRAKASLEK BEGIRATZEN DION.....

ZER IKASGAI EMATEN DEN.....

IRAKASTE ESTRATEGIAK	Maiz erabilia	Batuetan erabilia	Ez erabilia
Test eta proba objektiboak ezartzea			
Espezializazio taldeak sortzea			
Ulermena bilatzea			
Datuak kontsultatzea (Internet, liburuak, liburuxkak...)			
Demostrazioak (ereduak eta adibideak)			
Elkarrizketak, solasaldiak, eztabaidak...			
Eduki beraren gaineko hurbilbide desberdinak			
Jarduera desberdinak			
Simulazioak erabiltzea			
Kasu azterketa			
Gaiak ahitu arte aztertu beharra			
Gaiak zehaztasunez aztertu beharra			
Esperimentu zientifikoak			
Lanak edo edukiak zer garrantzia duen esplikatzeko			
Helburuak argi adieraztea			
Lan fitxak egitea			
Taldekako elkarreragina. Batzarreko eztabaidak			
Lekzio magistrala			

IRAKASTE ESTRATEGIAK	Maiz erabilia	Batzuetan erabilia	Ez erabilia
Arrakasta-porroten gaineko berrinformazioa			
Ikasleen lanerako jarraibideak			
Ataza edo egintzen planifikazioa			
Trebetasunak gainbegiraturik gauzatzea			
Trebetasunak norbere kasa gauzatzea			
Galdera irekiak			
Oroimena eta buruz ikastea			
Egindako lan edo atazaren gaineko gogoeta			
Arazoen ebazpidea			
Notak eta apunteak hartzea			
Idea zurrunbiloa			
Talde antolatuko lana			
Bakarkako lana			
Binakako lana			
Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea			
Dudak argitzea			
Hutsen tolerantzia			
Espektatiba positiboari aurre hartzea			
Ikasleei eta haien jardunbideari antz ematea			
Arreta erakartzeko estrategiak			
Ordenari eutsi eta lanera itzultzeko deiak			
Lanari errefortzua eta goresmenak egitea			
Kontrolerako behar diren neurriak aplikatzea			

IRAKASTE ESTRATEGIEI BEGIRATZEA. KOMUNEAN JARTZEA ETA ONDORIOAK

Zure antzeko ikasle begiratzailer batekin batu zaitez eta konpara itzazue zuen begiraldiaren gidoiak. Nota ezazue zein trebetasun positibo seinalatu dituzuen eta zein iruditu zaizkizuen biei begiratu-tako irakasleak falta zituela.

Ongi garatutzat jo ditugun trebetasunak:

.....

.....

.....

.....

.....

Hartu gabekotzat iruditu zaizkigun trebetasunak:

.....

.....

.....

.....

.....

BEGIRATUTAKO IRAKASLEAREKIN BILERA:

Bi ikasleko taldearen ordezkariak azaltzen du begiratze lanetik zer ondorio atera diren eta horiek baloratu aztertu eta egiten dira begiratutako irakaslearekin. Ondoren, lortu gabeko trebetasunak garatzeko behar diren erabakiak hartzen dira.

Irakaste trebetasun eragingarriak garatzeko hartu litezkeen egintzak:

	Lagunen aurrean antzeztea.
	Ikasgelan trebatzea begiratzailer aurrean.
	Ikasgelan trebatzea norbere buruari begiratzuz.
	Ikus-entzunezko grabazio batekin trebatzea.
	Oso trebetasun garatuak dituzten irakasleei begiratztea.

6. ERANSKINA

Egindako irakaste funtzioei buruzko ikasleendako galdetegia

X batez markatu zein laukik adierazten duen hobekien zure irakasleaz duzun iritzia proposatutako item bakoitzari dagokionez.

IRAKASLEAREN IZENA

	Inoiz ez	Gutxitan	Askitan	Askotan	Beti
ALDERDI AKADEMIKOAK					
Ongi esplikatzen du. Ulertzen diogu.					
Bistan da ematen duen gaia gustatzen zaiola					
Ikasgelan ordena mantentzen du					
Ikasi beharrak lehenik dakigunarekin eta gaurko gaiekin lotzen ditu					
Askotariko tresnak erabiltzen ditu esplikatzeko: Arbela, liburuak, ordenagailuak, audio zintak, Bideo zintak...					
Askotariko jarduerak proposatzen ditu (idazketa, ahozko erantzuna, ordenagailua...)					
Talde-banatze desberdinekin egin beharreko jarduerak proposatzen ditu (bakarka, talde txikian ...)					
Atazak argiro proposatzen ditu (zer egin behar den, nola, zenbat denboran...)					
Lan denborak errespetatzen ditu, isilik, eta ohar nahiz arretra deiekin gure lana eten gabe					
Gure ikaspen premietara moldatzen da eta behar dugun laguntza eskaintzen					
Jarduera sekuentzia aurrez hautatuta egoten da eta batetik besterako pasaerak normal egiten dira, tarte hilik gabe.					
Dudak edo zailtasunak ditugunean lagundu egiten digu					

	Inoiz ez	Gutxitan	Askitan	Askotan	Beti
ALDERDI SOZIO AFEKTIBOAK					
Ikasgelan sartzean agur egiten du eta ateratzean despeditzen					
Xaloa eta atsegina da. Jarrera hurbila du					
Gutaz arduratzen da, galderak egiten animoak ematen ...					
Umore zentzua badu					
Ikasleen arteko errespetu faltak galarazten ditu (irainak, burlak ...)					
Espektatiba positiboak azaltzen ditu gutako bakoitzaren gainean, aurrera egitera bultzatzen gaitu					
Gure arrakastak errefortzatzen ditu eta desbalorizazio mezuak ekiditen					
Beti modu berean jokatzen du, ez du inor baztertzen, justua da. Guztiekiko tratua beti-batekoa da					
Koherentea da. Esaten duena egiten du					
Gurekin kontaktatzen du, gure iritzia eskatu eta kontuan hartzen du					
Jarrera tolerantia du					
Irmoa da bere sinesmenetan eta zigorrak ezartzerakoan					

7. ERANSKINA

Eskolako giroaren gaineko galdetegia (1)

Tagiuri R. 1967-tik egokitua

BAKARKAKO ERANTZUNETARAKO FORMATUA

PARTE-HARTZAILEA.....

KARGUA

IRAKASLEEN JARRERAK

Ixa (X) bat jarri balorazio gradientean.

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	JARRERA GRADUA (-+)										OSAGAI ERRAZGARRIAK	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
Etengabeko eztabaida eta lehiaketa giroa dago irakasleen artean												Irakasleek elkar laguntzen dute
Irakasleek ikuskera negatiboa dute ikastetxearen gainean												Irakasleak harro daude beren ikastetxeaz
Irakasleek ihes egiten diote lanari. Lehenbailehen alde egin nahi izaten dute												Irakasleek atsegin hartzen dute beren lanean eta ikastetxean profesionalki beterik sentitzen dira
Irakasleak apatiko eta negatibo sentitzen dira beren lanarekiko												Irakasleek optimismoa, kemena eta gogo bizia agertzen dute
Irakasleek ez dute ikastetxeko arazoetan inplikatu nahi izaten												Irakasleek ikastetxeko problemetan beren burua inplikatzeko dute
Irakasleak indibidualistak eta gutxi profesionalak dira beren lanean												Irakasleak produktiboak dira beren bakarkako nahiz taldekako lanetan
Irakasleak egun osoan ari dira lanaz, lankideez, ikasleez eta oro har ikastetxeaz arnegatzen												Irakasleek jarrera kritikoa baina positiboa dute beren lanaren eta ikastetxeko antolamenduaren aurrean

EGOERA HORREN ARRAZOIAK.....

.....

.....

.....

ESTAMENTUEN ARTEKO HARREMANAK

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	GIZARTE HARREMANAK										OSAGAI ERRAZGARIAK
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
Ez dago talde lanik											Ikastetxean taldean lan egiten da maizenik
Irakasleen arteko harreman giroa negatiboa da											Irakasleek elkarrekin harremana izaten dute bai ikastetxean eta bai kanpoan
Ez dago komunikaziorik irakasleen artean											Komunikazio maila ezin hobe dago irakasleen artean
Ez dago komunikaziorik irakasleen eta ikasleen familien artean											Komunikazio maila ezin hobe dago irakasleen eta familien artean
Ez dago komunikaziorik irakasleen eta ikasleen artean											Komunikazio maila ezin hobe dago irakasleen eta ikasleen artean

EGOERA HORREN ARRAZOIAK.....

.....

.....

.....

KUDEAKETAREN AZTERKETA

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	KUDEAKETA GRADUA										OSAGAI ERRAZGARIAK
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
Eginkizun banaketa autokratikoa da											Eginkizun banaketa demokratikoa da
Irakasleek beren eginkizunak ez betetzen saiatzen dira											Irakasleek bere eginkizunak onartu eta bururatzen ditu
Informazioaren komunikazioa txarra da eta goitik behera jaisten da											Informazioa eta erabaki-hartzea horizontala da
Ez dago erabaki hartze zailurik											Erabaki hartzea zailua da
Kudeaketa ez da eragingarria											Kudeaketa eragingarria da
Arazoak sortu ahala konpon-tzen dira, inprobisazioa nagusitzen da aurreikuspenaren gainetik											Egoeretakoko (baja, ordezkapenak) aurreikusita daude
Ez dago koordinazio egituraturik, ez informalki ere											Koordinazio bitarteko eta eragileak ezarrita daude, premiei erantzutea ahalbidetzen dutenak
Zuzendaritza taldea bere kasa aritzen da, gainerako irakasleen iritzia kontuan hartu gabe. Zurruna izaten da erabakiak hartzerakoan eta kudeaketan											Zuzendaritza taldeak harreman onak ditu irakasle guztiekin jarrera malgua du bere erabakietan eta kudeaketan
Zuzendaritza taldeak bere erabakiak hartu eta ez da gainerako irakasleen proposamenez arduratzen											Zuzendaritza taldeak demokratikoki hartutako erabakiak errespetatzen ditu eta egiten zaizkion proposamenak onartzen
Zuzendaritza taldeak ez ditu baliabideak jartzen irakasleen gaitasunak behar adina bultzatzeko											Zuzendaritza taldeak irakasleen gaitasun profesionalak bultzatzen ditu
Ez da zehatz jakiten zein diren ikastetxearen premiak											Ikastetxearen premiak ongi jakinak dira
Baliabideak ez dira behar bezala aprobetxatzen											Baliabideak ezin gehiagoraino aprobetxatzen dira

EGOERA HORREN ARRAZIOIAK.....

.....

.....

.....

IKASLEEK NOLA ANTZ EMATEN DIOTEN ESKOLAKO GIROARI

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	NOLA ANTZ EMATEN DIOTEN IKASLEEK ESKOLA GIROARI										OSAGAI ERRAZGARIAK	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
Ikasleak kohibiturik sentitzen dira deiak eta iritziak adierazteko...												Ikasleek iritziak ematea libre dutela sentitzen dute
Ikastetxearen aldera arbuioa sentitzen, da, zigorraren erabilera sumatzen da (ikasleak bortxatuta datoz ikastetxera)												Ikastetxea toki atsegintzat bizitzen dute (ikasleak pozik eta gogoz etortzen dira ikastetxera)
Irakasleek ezartzen dituzte arauak. Ikasleak koakzionatuta daude (etengabe obeditu beharrean eta etengabe erasiatuta sentitzen dira)												Ikasleek parte hartzen dute arauak itxuratzen (ikasleek sentitzen dute kontuan hartzen dituztela)
Ikasleak ez daude pozik (klasera huts egiteko gogoa sentitzen dute, sasi eskola egiteko, egun batean klaserik ez badago, pozten dira)												Ikasleek ikastetxearen ikuskera positiboa dute. Borondatezko jardueretara etorri ohi dira
Ikasleek sentitzen dute ikastetxea desatsegina dela. Aspertzen dira												Ikastetxea atsegingarria sentitzen da, dibertigarria, pizgarria

EGOERA HORREN ARRAZOIAK.....

.....

.....

.....

LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO ARLOAK

HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eskola giroaren gaineko galdetegia (2)

R. Tagiuri. 1967-tik egokitua

DATUAK LABURBILTZEKO FORMATUA

DEPARTAMENTUA

TALDEA.....IKASTETXEA.....

IRAKASLEEN JARRERAK*Idatzi zenbat balorazio izan diren lauki bakoitzean eta guztien batuketa.*

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	LAUKITAKO BALORAZIOA										OSAGAI ERRAZGARIAK	OSOTARA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
Lehiaketa giroa											Elkar laguntzako giroa	
Ikastetxeaz arbuioa sentitzen dute											Ikastetxeaz harro egoten dira	
Lan desatsegina											Lan atsegina	
Apatia eta urduritasuna											Baikortasuna eta gogo beroa	
Inplikazio eza											Inplikazio handia	
Indibidualismoa, profesionaltasun eskasa											Elkarlana eta produktibitatea	
Kritika negatiboak											Kritika positiboak	

EGOERA HORREN ARRAZIOIAK (galdetegi bakoitzean notatutakoak jaso).....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ESTAMENTUEN ARTEKO HARREMANAK

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	LAUKITAKO BALORAZIOA										OSAGAI ERRAZGARIAK	OSOTARA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
Talde lanik ez											Talde lana egiten da	
Harreman giroa negatiboa da											Harreman positibo eta txaloak	
Irakasleen artean komunikaziorik ez											Irakasleen artean oso komunikazioa ona egoten da	
Ez dago familiekiko komunikaziorik											Familiekiko komunikazioa maila ezin hobea	
Ikasle-irakasleen arteko komunikaziorik ez dago											Ikasle eta irakasleen artean komunikazioa maila ezin hobea dago	

EGOERA HORREN ARRAZIOIAK (galdetegi bakoitzean notatutakoak jaso).....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

KUDEAKETAREN ANALISIA

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	LAUKITAKO BALORAZIOA										OSAGAI ERRAZGARIAK	OSOTARA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
Eginkizun banaketa autokratikoa											Eginkizun banaketa demokratikoa	
Profesionalek ez dituzte beren eginkizunak betetzen											Profesionalek beren eginkizunak onartu eta betetzen dituzte	
Komunikazio bide desegoki eta goitik beherakoak											Komunikazioa jaria korra da eta bi norabideetakoak	
Erabakiak hartzeko prozedura traketsak											Erabakiak hartzeko zalutasuna	
Kudeaketa ez da eragingarria											Kudeaketa eragingarria	
Inprobisazioa arazoak konpontzeko											Arazoak konpontzeko aurreikuspena eta argitasuna egoten da	
Koordinazio egituraturik ez dago											Koordinazio bide eta eragile argi eta ezagunak daude	
Zuzendaritza talde bere kasakoa eta isolatua											Zuzendaritza taldea taldean integraturik	
Zuzendaritza taldea makurrezina da erabakiak hartzeko eta kudeaketarako											Zuzendaritza taldea malgua da eta iradokizunak onartzen ditu	
Zuzendaritza taldeak gutxi motibatzen du eta baliabide gutxi ematen											Zuzendaritza taldea motibatzailea eta asertiboa da	
Ikastetxearen premiak ez dira ezagutzen											Ikastetxearen premiak denek ezagutu eta partekatzen dituzte	
Baliabideak desaprobatzen dira											Baliabideak ezin hobeki aprobetxatzen dira	

EGOERA HORREN ARRAZIOIAK (galdetegi bakoitzean notatutakoak jaso).....

.....

.....

.....

IKASLEEK NOLA ANTZ EMATEN DIOTEN ESKOLAKO GIROARI

OSAGAI OZTOPAGARRIAK	LAUKITAKO BALORAZIOA										OSAGAI ERRAZGARIAK	OSOTARA	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10			
Ikasleak koartaturik sentitzen dira ideiak, iritziak adierazteko												Ikasleek sentitzen dute libre dutela iritziak adieraztea	
Ikastetxearen alderako arbuioa												Ikastetxea toki atsegina sentitzen dute	
Ikasleak koakzionaturik sentitzen dira												Ikasleek arauak itxuratzen parte hartzen dute	
Ikasleak ez dira pozik egoten												Ikasleek ikastetxearen ikusketa positiboa izaten dute	
Ikasleek ikastetxea desatsegina dela sentitzen dute. Aspertzen dira.												Ikastetxea atsegingarria dela sentitzen da, dibertigarria eta pizgarria	

EGOERA HORREN ARRAZIOIAK (galdetegi bakoitzean notatutakoak jaso).....

.....

.....

.....

.....

.....

LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO ARLOAK

HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

8. ERANSKINA

Irakurketa dialogikoak. Datuak eta ideiak jasotzeko gidoia

IRAKASLEA

KAPITULUA:.....DATA:

Kapitulu hau irakurtzeak piztu dizkizun hiru ideia nagusiak jaso:

1.....

2.....

3.....

Zure ustez zein ideia aprobeitza ditzakezu zeure irakaslanean?

1.....

2.....

3.....

Zer behar zenuke (laguntza, elkarlana...) ideia horiek zure klaseetan abian jartzeko?

1.....

2.....

3.....

Zein proposamenetan ez zaude egilearekin ados? Zergatik?

.....

.....

.....

JASO HEMEN ZURE LAGUNEN IDEIARIK HOBERENAK

9. ERANSKINA

Konfidentzialtasun konpromisoak

Dokumentu honetan formalki jaso eta sinatzen dugu zer konfidentzialtasun irizpide erabiliko diren hemendik aurrera ikasleen datu pertsonalak Orientazio Departamentuko kideen eta beste profesional irakasle nahiz ez irakasleen artean trukatzeko.

Ikaslearen egoera pertsonala	
1. Diagnostikoa:	Kodea:
2. Diagnostikoa:	Kodea:
Historia pertsonalaren datu ardurakoak:	

Jardunbidea arloka							
Errendimendua		Arauen errespetua		Besteen errespetua		Asistentzia	
+	-	+	-	+	-	+	-

Ikasleen egoera pertsonalaren gaineko datuak besteri eskualdatzeko irizpideak	X
Ez eman nire egoera pertsonalaren berri inongo hezkuntza profesionalei	
Nire egoera pertsonalaren berri soilik nire tutoreari emateko baimena ematen dut	
Baimena ematen dut ene ikastaldeko irakasle taldeari emateko nire egoera pertsonalaren gaineko informazioa	
Baimena ematen dut nire datu pertsonalak nirekin lan egiten duen edozein profesionali emateko	

Orientazio Departamentuaren eta Tutoretzaren konpromisoa
Orientazio Departamentuko eta Tutoretzako profesionalek beren burua lotzen dute ikasleak aurreko atalean adierazitako desirak betetzeko.
Orientazio Departamentuak eta Tutoretzak, ikaslearen baimena harturik, beren burua lotzen dute beren esku-hartzeak testuinguruan kokatu eta hobetzeko baizik ez datuak beste profesional batzuekin partekatzeko.
Orientazio Departamentuak eta tutoretzak beren burua lotzen dute ikasleari aditzera emateko zer datu ematen zaizkien hirugarrenei eta salbuespenez haiei baimena eskatzeko haien datuak bestelako inguruneetan partekatzeko (Kongresuak, Egunak...).

Stua.: Ikaslea

Stua.: Aita

Stua.: Ama

Stua.: Tutorea

Stua.: Orientatzailea

Data:.....

10. ERANSKINA

Dilemen gaineko talde lana

Jarraibideak

Hona zertan den ataza:

- * Historia bat irakurrita dudak erneko zaizkigu haren protagonisten jardunbide moralaz.
- Gertatzen dena aztertu eta baloratuko dugu.
- Sortzen diren galderei erantzungo.
- Ondorioak aterako.

Lauzpabost laguneko taldeak osatu:

- * Mahai bakoitzaren inguruan lau edo bost aulki jartzen dira eta behin ataza esplikatuz, taldeak osatzeko eskatzen zaie nahi duten aulkian gogoia duten lagunekin eserita.
- Talde bakoitza bere buruz osatzen da, irakasleak haren eratzean esku-hartu gabe.
- Azkenean ikasleren bat bakarturik gelditu bada, ikasgelari gogorarazten zaio ezinbestekoa dela denak talde batean egotea.
- Inork jardueran parte hartu nahi ez badu edo talde batean sartzeari onartzen ez badu, ikusle bezala parte-hartzeko eskatzen zaio.

Talde bakoitzeko kideen artean honako eginkizunak banatu:

IDAZKARIA, esaten dena idazten duena.

KOORDINATZAILEA, parte-hartze denborak banatu eta hitza eman nahiz kendu egiten duena.

ELEDUNA, klasearen aurrean taldeak atera dituen ondorioak azaltzen dituena.

“Bizikleta horia”

Xabier poz-pozik zegoen. Etorbidetik zetorren etxera bidean, bere bizikleta estreinatu berrian igota; sprint bakoitzean eta kurba bakoitzean bere gorputzak makinaren gainean zuen agintea sentitzen zuen; ritmikoki eragiten zien pedalei eta bihotza nola abailtzen zitzaion sentitzen, biak sensazio berri eta oso atsegingarriak Xabierrentzat.

Aspalditik zuen gogoia ziklista profesionalena bezalako bizikleta bat izateko baina dirua, aurretuz ere, beste bi urtetan behintzat ez zitzaion iritsiko. Uda bukaeran aitak, bai-baitzekien zer irrika zuen, agindu zion halako bat erosiko ziola lehen ebaluazioa nota onekin gainditzen bazuen. Joan den larunbatean dendara joan ziren eta sartu orduko, izugarri gustatu zitzaion hau, kolore hori distiratsukoa eta koadro estilizatu eta agresiboa ikusita. Ez zuen dudarik egin.

Auzora izerditan iritsi zen, kalera sartzean adiskideekin eta ezagunekin topatu zen eta denek agur esaten zioten:

- Hara zer bizikleta! Berria da?
- Xabier, utziko didazu gero buelta bat?

Hark irribarre eta buruarekin baietz esaten zien:

- Beste egun batean plazan ikusten garenean pixka bat utziko dizut!

Atari aurrera iritsi zenean bizikleta farolan bermatu eta pedalak errebisatu, katea, transmisioa eta galgak begiratu zituen, ez ote zuten hauts arrastoren bat. Oroitu zen arratsaldean bertan kate ona erosi behar zuela bizikleta edonon lotuta utzi ahal izateko.

Orduan, ama azaldu zen hirugarren solairuko leihotik eta esan zion:

– Xabier, zoaz tintoreriara eta jaso itzazu zamaiak, jada garbituak izanen dira eta arratsaldean itxita dago.

- Orain ezin dut, ama, bizikletarekin naiz.
- Utzazu, ba, hor puska batean bermatuta, eta zoaz lasterka, pakete handia da eta.

Bai Xabierrek hala egin ere, azken begiratu bota bizikletari eta ziztu bizian atera zen tintoreriara bidean, izkina doblatu eta hantxe baitzen.

Han beste bi bezero topatu zituen bere aurretik, itxuraz presarik ez zutenak, lasai asko berriketan ari baitziren denda jabearekin.

Handik hamar minutura zamauen paketea hartu eta etxe aldera joan zenean....

BIZIKLETA EZ ZEGOEN UTZITAKO TOKIAN!

Eskaileran miratu, kalean, beste atarietan, eta ezer ez, bizikleta ez zen agertu.

Aurkazko fruta dendara galdetzera joan zen eta saltzaileak esan zion:

– Orain gutxi, mutiko magrebi hori ikusi nuen, lehen fruta lapurtzen zidana, zure bizikletari begira, eserlekuan eseri eta goitik behera begiratzen zion. Gero bestetara aldatu burua eta ez nuen gehiago ikusi. Handik puska batera, berriz begiratu, eta bizikleta ez zegoen.

Ondoko tabernan Julian kamareroak esan zion:

– Nik hiru mutil ikusi ditut, auzokoak ez zirenak, zure bizikletari begira; furgoneta zuri batetik jaitsita hortxe egon dituk begira eta begira. Gero bezeroak etorri zaizkit eta nere gauzetan aritu naiz... Berriri begiratu dudanean, han ez zen ez bizikletarik ez mutilik.

Tabernako bezero batek, solasaldia aditu eta esan zuen:

